

Goienkaria

2007ko urriaren 26a > Egubakoitza > VII. urtea > 306. zenbakia > Doan banatzekoa

www.goiena.net

"Identitatea berreskuratzea da datozen urteetako erronka nagusietakoa"

Joxean Alustiza
Fagor Arrasateko lehendakaria > 09



G2a

Federiko Luppi aktorearekin hitz egin dugu > 43-44

HEZKUNTZA
Gaur egingo du Bergarako UNEDek ikasturtearen irekiera ekitaldia > 05

OSASUNA
Hilaren 31n bukatuko da gripearen kontrako kanpaina > 15

ANTZUOLA
Udalak 2008rako onartutako tasak eta zergak %2,6 igoko dira > 36

AZPIEGITURAK > ARRASATEKO MENDEBALDEKO SAIHESBIDEA

Udaberrian hasiko dituzte Arrasateko saihesbideko lanak

ONESPENA Aldundiak behin betiko onartu du proiektua; lanak udaberrian hasi eta 27 hilabeteen bukatuko dituzte

EZAUGARRIAK Bi kilometroko luzera eta hiru osagarri nagusi ditu: bi biribilgune, Olandixoko tunela (860 m) eta zubi bat

AURREKONTUA 41,3 milioi euroko aurrekontua du Arrasateko mendebaldeko saihesbideak > 19

Osasunaren gaineko gehigarria

GOIENKARIArekin batera, 8 orriko gehigarria osasunari buruz, dena koloretan.




ARETXABALETA > KULTURA

Kultura etxe berria zabaltzear

Aurrera doaz kulturarako eraikin berriaren lanak; hain justu, 2008ko lehen hiruhilabetarako egongo da zabalik. 3.700.000 euro inguruko aurrekontua izan du eta erabilera askotarikoa izango da. > 31

Ordu aldaketa

Neguko ordutegia estreinatuko dugu zapatuan: goizeko hiruretan ordu biak izango dira. Ez ahaztu!



Huheziren eta Fagorren laguntza eskertu gura izan du EMUNek 10. urtemugan

EMUNek 10. urteurrena ospatzeko egitarauari amaiera eman zion joan den eguaztean, Arrasateko Amaia antzokian egindako ospakizun ekitaldi batekin. Ehunka lagun elkartu ziren, tartean erakunde publiko eta enpresetako ordezkariak.

Ekitaldian, Huhezi eta Fagor taldea omendu zituen lana euskalduntzeko kooperatibak, sorreratik alhoan izan dituelako biak. > 06



OMENALDIA EMUNeko Dani Larreak esker hitzak izan zituen Huheziko Nekane Arratibel eta Jesus Garmendiarentzat. m.b.

AURKIBIDEA

Debagoiena > 04-08
Elkarrizketa > 09
Iritzia > 10-11
Gutunak > 12
Herriak > 15-39
Kirola > 41-42
Kultura > 45
Saillatuak > 46
Eskelak > 47
Denbora-pasa > 48
Gazteak > 50
Komunikazioa > 51
Telebista-Irratia > 52
Non-zer > 54-55

IKER

Fagor sukaldeko altzariak,
%25eko deskontua lau modelotan.
Azaroaren 18ra arte.

FAGOR  Zatoz eta ikus itzazu!


MEMESA
INDUSTRIA HORNIDURAK

ARRASATE
TEL.: 943 712 425
FAXA: 943 712 298

ARETXABALETA
TEL.: 943 712 411
FAXA: 943 712 004

ONATE
TEL.: 943 718 080
FAXA: 943 718 045


SEIN
GRUPOTALDEA

Euskadiko erreferente nagusia
industria horniduran

MERKATARITZA > MERKATARITZA-GUNEEN GAINEN JARDUNALDIAK

Herriaren bizitza jokoan dagoela eta indarrak batu behar direla dio Ibai-Artek

IBAI-ARTEK merkataritzaren inguruko jardunaldiak egin zituen eguaztenean, egoera aztertzeko eta Eibar eta Irungo esperientzien berri emateko

MERKATARITZA-GUNEAK herrietako erdigunean jartzea ez du txarto ikusten merkatarien elkarteko kide Arrasateko dendarien elkarteak

ARAZOA merkatariena ez ezik, gizarte osoarena dela dio Ibai-Artek, eta, beraz, hausnarketa egiteko eskatu die ordezkari politikoei eta herritarrei

MIRIAN BITERI > ARRASATE

Gaur egungo kontsumo ohiturekin arduratuta dago Ibai-Arte, Arrasateko zerbitzu merkatarien elkarte, eta egoera berri horri aurre egin nahian, merkataritza-gune irekien gaineko jardunaldiak egin zituen joan den eguaztenean Kulturaten.

Ibai-Arteko kide Jesus Mari Elkorok Goienarekin izan da, Arrasateko merkataritzaren egoeraren eta egindako jardunaldien gainean hitz egiteko. Azken horren harira, horien helburua bikoitza zela aipatu du: batetik, merkataritza arloan, Eibar eta Irunen bultzatu diren esperientziak ezagutzera eman gura zuten; bestetik, merkatariek eta Udaleko teknikari nahiz ordezkari politikoak sentsibilizatea bilatzen zuten. "Indarrak metatzeko" eta "guztion artean lanean has gaitezen".

Esan bezala, Eibar eta Irungo esperientzien berri eman zuten han. Eibarko Udaleko Merkataritza Saileko zinegotzi eta merkatarikari Mertxe Garatek eta Mer-

kataritzako teknikari Leire Ojanguenek lehenengoaren kasua azaldu zuten han bildu zirenen aurrean. Jarraian, Irungo Mugan merkatarikari elkarteko gerente Tomas Maeztuk eta Irungo Udaleko Merkataritza Saileko zinegotzi Maite Cruzadok hartu zuten hitza, euren herriko esperientzia kontatzeko.

OHITURAK ALDATU EGIN DIRA

Azkenaldian ohiturak asko aldatu direla gogorarazi du Elkorok. Lehen etxe ondoko zerbitzuetara jotzen zuten herritarrek behar zuten guztia erosteko. Orain, ordea, hiriburuetara eta bereziki merkataritza-gune handietara joaten dira erosleak.

Arrasateko merkataritzari dagokionez, gaur egun bi ingurune bereiztu behar direla dio: erdigunea eta auzoak, hain zuzen. Azken horietan, azkenaldian, komertzio asko itxi direla jakinarazi du: "Gutxieneko zerbitzuak direla esango nuke", dio Ibai-Arteko kideak. Erdiguneko

Jesus Mari Elkorok bi merkataritza-gune bereizten ditu Arrasaten: erdigunea eta auzoak; azken horietan "gutxieneko zerbitzuak" daudela azpimarratu du

"Jendeak uste du komertzio txikiak handien kontra gaudela, eta hori ez da guztiz egia; zentro handiak kanpoan egitearen kontra gaude", gaineratu du

egoera, berriz, hobe dela uste du, mugimendu handiagoa dago-eta. "Bizirik dago erdigunea", azpimarratu du Elkorok.

Hala ere, merkatariek arduratuta egoteko arrazoia dutela azaldu du. Hala, gogoratu behar da Zabaleta merkataritza-gunea eraikitzeke egitasmoa hor dagoela. Horren harira, ziurtatu du elkarte ez dagoela zentro horiek egitearen aurka: "Jendeak uste du komertzio txikiak handien kontra gaudela, eta hori ez da guztiz egia", dio.

HERRITIK KANPOKO GUNERIK EZ

Elkorok garbi utzi gura izan du ez daudela merkataritza-guneen kontra. Herriko kanpoko aldean eraikitzearen aurka daude: "Gatazka herri barruko eta kanpoko komertzioen artekoa" dela esan du. "Herritik kanpo egiten diren gauzen kontra gaude, horrek min egiten diolako herriari eta esku pribatuek baino ez dituztelako onurak ateratzen zentro horietatik", salatu du.



BIZITASUNA Ibai-Arte elkarte ez dago Arrasateko

Horrez gain, onartu du merkataritza-gune handia erdigunean egoteak ez lukeela kalte handirik eragingo: "Horrelako guneak herri barruan eraikitzeak bizitasuna emango lioke herria-

IBARREKO MERKATARIEN ELKARTEEN IRITZIA

Mari Carmen Sesma

BERGARAKO BEDELKARREKO PRESIDENTEA

"Merkataritzaren egoera txarra da, aparkalekuak behar ditugu"

Bergarako merkataritzaren egoera "txarra" dela uste du Bedelkarreko presidente Mari Carmen Sesmak. Ohiturak aldatu egin direla eta hori herriko zerbitzuetan igarri dela dio. "Erosotasunari ematen zaio gaur egun garrantzia", aipatu du janari berezitasunak saltzen dituen emakume horrek. Ados dago Ibai-Arterekin herrien bizitza arriskuan dagoela esaten duenean.

Hiriburuekin ezin direla lehiatu eta Bergara "lo-hiri" bihurtzen ari dela dio, horren harira, Bedelkarreko presidentea. Aparkaleku "premia handia" ikusten du, horrek "mugimendua ekarriko lukeelako". Udalarekin harremanetan jarri da dagoeneko merkatarien elkarte, merkataritzaren egoerari irtenbidea bilatzeko eta aparkalekuak egin ditzan eskatzeko.

Inma Baladron

OÑATIKO TXANDAKO KIDEA

"Jendeak etxea eta autoa ordaindu behar ditu, eta diruz larri dabil"

Oñatin, azkenaldian, merkataritzak "beherakada" jasan duela uste du Txandako kide Inma Baladronek. Gremio batzuetan bestetan baino gehiago igarri dela gaineratu du. Balandronek arropa denda bat du eta beherakada faktore askok eragin duela dio.

Jendea "diruz larri" dabilela eta ondorioz erosketak murriztu dituela dio arropa saltzaile horrek: "Etxea eta autoa ordaindu behar ditu eta zerbait aurrezten duenean nahiago du dirua bidaia batean gastatu, beste zerbait erosi beharrean", aipatu du. "Zapatuan ez dugu ia lanik", azaldu du egoeraren berri emateko. Merkataritza-gune handiek ere eragina izan dutela esan du. Horrez gain, bere kasuan, iazko neguko eguraldiak eragin handia izan zuela azpimarratu du.

Alberto Asensio

ARETXABALETAKO ARETXARTEKO KIDEA

"Hemendik gutxira merkatarik asko erretiratuko da gurean"

Azken urteetan egoera ez dela askorik aldatu dio Aretxabaleako Aretxarteko kide Alberto Asensiok. Denda batzuk itxi badira ere, "antzerka" dagoela uste du. "Jendea betidanik joan izan da Gasteizera eta azkenaldian zabaldu diren merkataritza-gune handien eragina ez dugu askorik sumatu", azaldu du arropa saltzaile horrek.

Bada, komertzio txikien abantailak bultzatzen saiatzen dira. Ordutegi zabala izaten eta tratu pertsonalagoa eskaintzen dute. Horrez gain, arropa eta zapata denden kasuan, adibidez, bezeroei produktuak etxera eramaten uzten diete, "lasaiago probatzeko aukera izan dezaten". Arduratuta egoteko arrazoia duela jakinarazi du, azkenik, Asensiok: "Hemendik gutxira merkatarik asko erretiratuko da gurean, eta arazo potoloa sortuko da".



erdigunean merkataritza-gune handi bat jartzearen kontra. Horrek jendea ekarriko lukeela uste dute.

M.B.

ri. Gainera, egon daitezkeen gabeziak betetzeko ere ona izan daiteke", azpimarratu du Ibai-Arte elkarteke kideak.

Hori horrela egiten ez bada, "herriaren bizitza jokoan dagoela" ohartarazi du. "Zenbait arduradun politikok pentsatzen dute herriaren bizitza berez sortzen dela", esan du merkataria. Baina "jendea gero eta gehiago mugitzen da" eta "herria bizitasuna galtzen ari da", aipatu du. Adibide gisa Arrasate bi zinema izatetik bakarria edukitzera pasa dela aipatu du.

UDALA SENTSIBILIZATU

Elkororen ustez, "ordezkari politikoei konturatu behar dute merkataritzaren egoera, berez, ez dela aldatuko eta zerbait egin beharra dagoela". Udala sentzibilizatu gura du Ibai-Artek. "Ez da merkatarien arazo bat bakarrik, gizarte osoaren arazo bat da", gaineratu du.

Hala, Eibarren eta Irunen bultzaturiko esperientzien berri ematea erabaki zuen elkarteak.

"Ez dakit kasu horiek onak edo txarrak diren, baina kontuan hartzekoak dira", esan du.

Herriko baliabide guztiek "indarrak metatu" eta "norabide bera" hartu behar dutela azpimarratu du. "Horixe da, hain zuzen, merkataritza-guneek egiten dutena. Plan orokor baten barruan mugitzen da enpresa guztia. Hori da falta zaiguna", gaineratu du.

Herritarrei ere mezu bat helarazi gura izan die: etxe ondoko zerbitzuetara joateko gonbita egin die. Bestela, Elgetan gertatutakoa ibarreko beste herri batzuetan ere gerta daitekeela ohartarazi du; alegia, herriko azken harategia itxi dutela: "Ondoan daukagunari ez diogu garrantzirik ematen galtzen dugun arte". Bada, horren inguruan erreflexionatzeko dei egin die heritarrei.

ONURAK ETA DESABANTAILAK

Merkataritza-gune handiek eta komertzio txikiek dituzten abantailak buruz ere hitz egin du Elkorok. Zentro handiek eskaintza zabala dutela eta "kolpe batez

erosketa" guztiak egiteko aukera eskaintzen dutela onartu du Elkorok.

Komertzio txikiek onurak dituztela ere gogorazi du: gertutasuna, tratu pertsonalagoa eta sarritan urte askoko esperientzia eskaintzea. Prezioei dagokienez, denda txikietan ere eskaintza interesgarriak aurki daitezkeela esaten amaitu du.

Mertxe Garate > Eibarko zinegotzia eta merkataria "Udalaren inplikazioa eta elkarlana funtsezkoa da merkataritzan"

M.B. > ARRASATE

Mertxe Garate Eibarko Udaleko Merkataritza Saileko zinegotzia da. Horrez gain, merkataria ere bada. Joan den eguaztenean Ibai-Artek antolatutako jardunaldietan izan zen, Eibarren bultzaturiko esperientziaren berri ematen.

Merkataritza saileko zinegotzia izateaz gain, merkataria ere zara. Zerikusia du zinegotzi izateak zure lanbidearekin?

Bai. 25 urte daramat denda batean lan egiten eta Eibarko Udalean orain dela 16 urte sartu nintzen. Merkataritza bultzatzeko asmoz sartu nintzen han. Egia esan, ez naiz damutzen. Esperientzia ona izan dela uste dut.

Zertan izan da onuragarria?

Hasieran, merkatarien eta Udalaren arteko harremanak ez ziren oso onak. Udalak ez zituen gure arazoak ezagutzen. Elkarrekin lanean hasi ginen eta orain dela bederatzirte, Merkataritza Saila sortu zen. Horrek asko lagundu du, baita dendarien elkartearen sorrerak ere. Bi horien arteko elkarlana funtsezkoa da.

Beraz, Udalaren inplikazioa ezinbestekoa delakoan zaude...

Hala da. Baliabide ekonomikoak eta pertsonalak behar dituzte merkatariek. Ez da erraza, bidean oztopo asko daudelako. Baina posible da aurrera egitea. Horrez gain, merkataria ere borondatea izan behar du, bestela ez dago zereginik. Optimista izan beharra dago. Hortaz, nor bere zerbitzua bultzatzeaz gainera, oso inportantea da elkarte batean sartzea, arloak dituen arazoei, denon artean, irtenbide emateko.

Orain dela bi urte merkataritza-gune ireki moduan ezagutzen dena sortu zen Eibarren. Zertan datza?

Elkarte bat da. Ostalariek, Eibarko Dendarien Elkarteak, El Corte Inglesek, Merkatu Plazako Elkarteak, Udalak, Merkataritza Federazioak eta Debabarreneko Garapen Ekonomikorako Elkarteak osatzen dute. Guztion artean egiten dugu lan, merkataritzaren egoera ona izan dadin.

Hemendik gutxira merkataritza-gunea zabalduko da erdigunean...

Bai, hala da. Merkatariek eta Udalak bultzatu duten egitasmo bat da.



GOIENKARIA

Erdigunean egongo denez, bizitasuna emango die horrek kaleei. Horrelako egitasmo bat onuragarria izan daiteke guztiondako. Bezeroek denetarik aurkitu ahal izango dutelako metro gutxi batzuetan. Merkatariek, bestalde, horretaz jabetu behar dute. Horrek jendea ekarriko du eta salmentan igarriko da, ziurrenik. Aukera bat da guztiondako, eta aprobetxatu egin behar dugu.

Arrasaten ere horrelako zerbait bultzatu daitekeela uste al duzu?

Baita. Zergatik ez? Edozein tokitan jar daiteke martxan horrelako egitasmo bat. Elkarlana funtsezkoa da, baina benetakoa behar du izan horrek.

Amaitu aurretik, nola ikusten duzu Eibarko merkataritzaren egoera? Hobera egin daitekeela uste al duzu?

Gaur egungo egoera nahiko ona da. Ziklo ekonomikoek, hala ere, eragin zuzena dute merkataritzan. Ekonomia gaizki baldin badao berehala igartzen da. Hobera ere egin daiteke. Ekonomia ondo joango da, eta, beraz, merkataritzan sentituko da. Baikorra izan beharra dago.

"Udalak inplikatu behar du; behar ekonomikoak eta pertsonalak dituzte merkatariek"

"Merkataritza-gune bat erdigunean zabaltzea onuragarria izan daiteke guztiondako"

SSANGYONG ACTYON 4x4 BERRIA

Mercedes-Benz Motorrarekin:
200 Xdi 141 ZP
270 Xdi 165 ZP

SSANGYONG

VERTIZ MOTOR

Olaso pol. 27 - ELGOIBAR
Tel.: 943 74 41 10

Frantzia pas. 14 - DONOSTIA
Tel.: 943 29 22 66

Sarroeta pas. 13 - MARTUTENE
Tel.: 943 46 92 99

27.900 €-tik aurrera



HILTEGIA Tasa berriak onartu dituzte 2008. urterako; besteak beste, hiltegioko tasak.

GOIENKARIA

MANKOMUNITATEA > URRIKO GOBERNU BATZORDEA

Mundumira Bergaran ospatzea aztertzen dabil Mankomunitatea

Eguaztenean egin zuten batzarra Arrasaten. Besteak beste, onartu zuten Zaldibar eraikinaren proiektua eta aurrekontua aldatzea

AINTZANE IRIZAR > ARRASATE

Agintaldiko hirugarren batzarra egin zuen eguaztenean Debagoieneko Mankomunitateko gobernu batzordeak.

Batetik, Mankomunitateko turismo teknikariak 2008ko Mundumira jaialdiaren gainean egin dako proposamena aztertu zuten eguaztenean Mankomunitatearen gobernu batzordean. Teknikariak proposatu du 2008ko Mundumira egitea Bergaran. Orain, Bergarako Udalaren erantzuna jakin beharko da.

TASEN IGOERA

Bestalde, 2008. urterako tasak onartu zituzten; hiltegioko tasek %3,5eko igoera izango dute eta Enpresa Ekintzetarako Zentroko tasak igoko dira %3,6. Tasa horiek jendaurrean egongo dira 30 lan-egunez, eta kontrako alegaziorik ez badago, behin betiko onartuta geratuko dira.

ZALDIBAR ERAIKINEAN ALDAKETAK

Mankomunitatearen egoitza berria izango den Zaldibar eraikinean uztailean hasi zituzten

egokitzapen lanak. Orain, proiektu horri hainbat aldaketa egitea onartu du gobernu batzordeak; horrek dakar aurrekontuaren igoera bat. Hasierako aurrekontua zen 2.868.909 euro. Orain onartu dute kopuru horri gehitzea 132.152 euro. Proiektuari gehitu diote, besteak beste, argiteria sistema, errekarako landareen inausketa berezia egitea, egitura indartzea, hoditerian hainbat aldaketa egitea eta musika-haria ezartzea. Argiteria sisteman izan da igoerarik handiena: 112.294 euro, hain zuzen ere.

Azkenik, aipatzekoa da zabor bilketen egutegiak onartu dituztela, 2008. urterako. Abenduan edo urtarrilean banatuko dituzte egutegiok etxez etxe.

ELKARTASUNA > ELKARHEZITZEN ELKARTEAREN KANPAINA

Ciudad Juarezko bi ama izango dira azaroan gurean

Elkarhezitzen taldeak gonbidatuta etorriko dira eta ibarreko herri guztietan egingo dituzte berbaldiak

AINTZANE IRIZAR > BERGARA

Ciudad Juarezko neskatila eta emakumeenganako elkartasuna izeneko gaitzespen-kanpaina antolatu du Elkarhezitzen taldeak. Kanpaina horretarako gonbidatu ditu Nuestras Hijas de Regreso a Casa elkarteko bi kide, bi ama. Elkarte hori osatzen dute Mexikoko Ciudad Juarez herrian hildako eta desagertutako emakume gazteen amek, familiek eta lagunek.

Azkeneko hamalau urteotan ehunka neska gazte hil dituzte Ciudad Juarez eta Chihuahua herrietan eta hiltzaileek ez dute inolako zigorrrik jaso. Emakume horietako asko bahituta izan dituzte eta sexu erasoak egin zizkieten. Beste gazte asko, bestalde, desagertuta daude.

TESTIGANTZA ZUZENA

Mexikoko gertakari larri horiek gertutik ezagutzeko, bi ama izango dira Debagoienean eta berbaldiak emango dituzte azaroan zehar, ibarreko herri guztietan. Elia Escobedo eta Julia Esther Cano etorriko dira; biak dira hildako bi gazteren amak. Gaur egungo egoeraren eta sentitzen dutenaren gainean berba egingo dute. Hitzaldien izenburua izango da: Emakumeen aurkako indarkeria, *Ciudad Juarezko feminizidioa*.

Hitzaldiez gain, beste bi ekitaldi ere antolatu ditu Elkarhezitzen-ek, kanpaina beraren barruan. Batetik, gai horren gaineko tertulia egingo dute Arrasaten, azaroaren 16an, egubakoitza, 18:00etan, Ekin Emakume Elkartearen egoitzan.

Bestetik, hilaren 19an, astelehena, 20:00etan, Oihulari Klown taldeak *Klownklusioak* antzez-lana eskainiko du Bergarako Pol-Pol tabernan.

KANPAINAREN HELBURUA

Elkarhezitzenen esanetan, indarkeria gehiegi dago gaur egun emakumeen aurka. Horregatik, taldearen helburua kanpainarekin zera da: emakumeen aurkako indarkeria salatzea eta Mexikoko emakume horien giza eskubideen urraketa gaitzestea. Era berean, emakumeenganako elkartasuna sortu arazi nahi dute debagoiendarraren artean.

HITZALDIEN EGUTEGIA

> ANTZUOLA

Azaroaren 8an, eguena, 19:00etan, Olanan etxean.

> ESKORIATZA

Azaroaren 13an, martitzena, 18:30ean, kultura etxean.

> OÑATI

Azaroaren 14an, eguaztena, 19:00etan, kultura etxean.

> ARETXABALETA

Azaroaren 15ean, eguena, 19:00etan, kultura etxean.

> BERGARA

Azaroaren 20an, martitzena, 19:00etan, Miguel Altunaren.

> LEINTZ GATZAGA

Azaroaren 21ean, eguaztena, 19:00etan, kultura etxean.

> ARRASATE

Azaroaren 22an, eguena, 19:00etan, Kulturaten.

> ELGETA

Azaroaren 23an, egubakoitza, 19:00etan, Espaloia antzokian.

> ARAMAIO

Azaroaren 28an, eguaztena, 17:00etan, kultura etxean.


Finantzaketa kuota personalizatuak

SYMS
SERVIMASA

Sukaldeko altzariak eta osagariak

Aitziturri 4, Posta-kutxa 173
Tel.: 943 76 19 95 Faxa: 943 76 07 49
20570 BERGARA

103 Industria poligonoa
Tel.: 943 52 05 00 Faxa: 943 51 57 57
20100 LEZO



JESUS ATXA Iruñean hil da asteon Jesus Atxa, 87 urterekin.

GOIENKARIA

KULTURA > EUSKAL KULTURA

Jesus Atxa euskaltzale aretxabaletarra hil da

Martitzenean hil zen Atxa; ohorezko euskaltzaina, Nafarroako ikastolen bultzatzailea eta Manuel Lekuona sariduna zen

AINZANE IRIZAR > ARETXABALETA

Jesus Atxa ohorezko euskaltzain aretxabaletarra martitzenean, urriak 23, hil zen Iruñean, 87 urterekin.

14 urte bete zituen arte herriko eskolan ikasi zuen. Gero, Durangoko jesuitetara joan zen ikastera eta hantxe egon zen bi urtez. 1936an, gerra zela eta, Belgikara bidali zuten gurasoek; hurrengo zazpi urteak jesuitekin egin zituen. Zapi hilabete egon zen Belgikan, nobizio; hamasei hilabete Caracasen, bi urte Kolonbian eta beste hiru urte Bogotako Jesuiten Unibertsitatean, Filosofia eta Letrak ikasketak egiten.

IBILBIDE OPAROA

Euskal kulturaren lan handia egindakoa

Ondo aprobetxatutakoak izan dira Jesus Atxaren bizitzaren 87 urteak. EAJko taldeak sortzen ibilitakoa; Iruñako San Fermin ikastolako zuzendari izandakoa; Bizkaiko Ikastolen Federazioaren sortzailea; Nafarroako hainbat ikastolaren historia idatzitakoa; Bizkaiko *Zeruko Argia* aldizkariaren arduraduna izandakoa; euskaltzain ohorezkoa eta Manuel Lekuona Eusko Ikaskuntzaren saria jasotakoa, besteak beste.

Pedagogia ikasketak ere egin zituen. 1942an Caracaserara joan zen berriro eta 1945ean itzuli zen Euskal Herrira. Elorriora etorri zen eta Julia Igartzarekin ezkondu zen.

Itzuli zenetik EAJko taldeak sortzen ibili zen Euskal Herrian zehar. 1961ean Bilbora joan zen eta Edili argitaletxe euskaltzalean hasi zen lanean eta argitaletxe horretako zuzendari ere izan zen.

Bestalde, Bizkaia osoan zehar ibili zen, herriz herri, ikastolen sorreran laguntzen. Bizkaiko Ikastolen Federazioa sortu zuen. Durangoko Azokaren sorreran ere hartu zuen parte.

Hainbat aldizkaritan jardun zuen, bai lanean, bai kolaboratzaile moduan. Itzulpengintzan ere jardun zuen, bai ipuinen alorrean, baita zineman ere.

HEZKUNTZA > UNED IKASTETXEAREN IREKIERA EKITALDIA

Ansorena UNEDen ikasturte hasieran

Jose Ignacio Ansorena musikari eta aktoreak irekiera hitzaldia egingo du. Gaur izango da ekitaldia, Bergarako udaletxean

ko ikasturtean ikasketak amaitu dituzte ikasleei diplomak banatuko dizkiete.

ESKAINZA ZABALA

Aipatzekoa da UNEDek eskaintza akademiko zabala jartzen duela bertan ikasi nahi duen edonoren aukeran, eta aurtengo ikasturterako, adibidez, 34 unibertsitate ikasketak egiteko aukera eskaintzen du. UNEDek erraztasunak eskaintzen dizkie eskoletara joateko ordutegi finkorik hartu ezin dutenei, eta tutoretza orduak ere jartzen ditu ikasleen eskura; horretarako, 60 tutore baino gehiago daude eta tutoretza ordu horien gehigarri gisa formazio telematikoa ere ematen du UNEDek, Internet bidez ikasketak jasotzeko, kontsultak egiteko...

Matrikulazio epea oraindik ere zabalik dago, azaroaren 15a arte. Nahi duena bertara joan daiteke, 943 76 90 33 telefono zenbakira dei dezake edo www.uned.es/ca-bergara webgunearen bidez egin dezake.

JASONE ZABALA > BERGARA

Gaur, egubakoitza, arratsaldeko zazpitan izango da UNEDeko 2007-2008 ikasturte akademikoaren irekiera ekitaldia, Bergarako udaletxeko areto nagusian.

Jose Ignacio Ansorena *Peter* musikari eta antzezleak egingo du irekitze hitzaldia, *Nola esaten da UNED euskaraz?... edo tradizioa ez da inertzia izenburupean*. Ekitaldian, besteak beste, UNED-Bergarako zuzendari Juan Jose Alvarez Rubiok eta Gipuzkoako ahaldun nagusi Markel Olano Arresek parte hartuko dute.

Horrekin batera, aldundiko, UNEDeko eta Bergarako udaletxeko ordezkariak aurre-



MIREN ARREGI

Bidea ondo gurutzatzen erakutsi zuten

Barne Sailak antolatuta, semaforo figuratuzko mozturrotutako bi lagun ibili ziren eguaztenean Arrasaten, Arrasate pasealekuan, oinezkoen harrapaketen inguruan jendearen kontzientzia pizteko. Errepidea txarto edo modu arriskutsuan gurutzatzen zutenei atentzioa eman zieten eta esku-orriak banatu zituzten.

GAS HODITERIA > BERGARATIK IRUNERA DOA NATURGASEN GAS HODITERIA

EHNEk Naturgasen jokaera salatu du hoditeriaren gaian

Kalteordain justuak nahi ditu baserriarren sindikatuak

Orain dela 26 urte baino gutxiago kobratuko dute

AINZANE IRIZAR > BERGARA

Gipuzkoako gas hoditeria berria egiten dihardu Naturgas enpresak. Gai horren inguruan ez dute akordiorik lortu enpresak eta EHNE nekazarien sindikatuak.

Hiru fasetan egingo du azpiegituren berritzea Naturgasek: Bergara-Zaldibia, Zaldibia-Villabona eta Villabona-Irun. Lehenengo faseko lanak aurrera doaz eta EHNE ez dago konforme Naturgasek eskainitako kalteordainekin. Sindikatu horrek salatu duenez, lursailengatik "huske-

ria" bat jasoko dute lur-jabeek, "obra osoaren kostuaren %1 baino gutxiago, guztira".

Orain dela 26 urte jarritako hodiak txiki geratu direlako dihardute hoditeria berritzen. EHNEk azaldu duenez, garai hartan baino gutxiago ordainduko die baserriarrei Naturgasek.

Enpresa hornitzaileak, berriaz, adierazi du sindikatuaren eskaerak bidezkoak direla eta saiatuko direla hurrengo faseetan EHNEk esandakoak aintzat hartzen.

Ford Connect

0%ko UTB
8.000€-rainoko finantzaketa

MUGARRI AUTOAK | Feel the difference

Araba Etorbidea, z/g ARRASATE

BERTSO ANTZERKIA Ekitaldia amaitu aurretik, EMUNekoek prestatutako *Egunero jira-biran* bertso antzerkia abestu zuten kooperatibako eta beste enpresetako langileek.

JON BEREZIBAR

EUSKARA > 'ELKARREKIN BIDEA EGITEN... ETA ELKARREKIN OSPATUZ' OSPAKIZUN EKITALDIA

Ehunka lagun joan ziren eguaztenean Amaia antzokira, EMUNen urtemugako ospakizun ekitaldira

Huhezi eta Fagor omendu zituzten, EMUNen sorreran eta bilakaeran izan duten garrantziagatik

MIRIAN BITERI > ARRASATE

Ekitaldi berezia egin zuten joan den eguaztenean Arrasateko Amaia antzokian. Adin guztietako ehunka lagun bildu ziren han, EMUNen 10. urteurrena ospatze-

EMUNek hamar urtez bidelagun izandakoak omendu zituen

ko. Lana euskalduntzeko kooperatibak bezero eta erakunde publiko eta enpresetako ordezkarien sostengua izan zuen.

Julio Ibarra kazetari ezagunak aurkezle lanetan jardun zuen. *Elkarrekin bidea egiten... eta elkarrekin ospatuz* lelopean egindako ekitaldian, kooperatibaren sorrera eta bilakaera laburtzen dituen ikus-entzunezkoa ikusi zen lehenik. Jendearen gustukoa izan zen *Hartu eta EMUN* dokumentala, txalo zaparrada jaso zuen-eta amaieran.

Jarraian, erakunde publiko eta enpresetako ordezkarien txan-

da iritsi zen. Hitza hartu zuten guztiek EMUNen lana txalotu zuten. Arrasateko alkate Ino Galparsorok "euskarak lan mundua irabazi behar duela" azaldu zuen. Euskaldunak "amore ematen ohiituegiak" gaudela ere aipatu zuen. Euskara identitatearen "funtsezko oinarria" dela gogorazi eta "zorrotza" izan beharra dagoela gehitu zuen.

"HUTSAREN HURRENGOA"

Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuorde Patxi Baztarrikak EMUN eta mota horretako enpresak "beharrezkoak" direla ziurtatu zuen. Hala,

enpresetan euskara "hutsaren hurrengoa" dela eta administrazioei "politikak diseinatu eta bultzatzea" dagokiela aipatu zuen.

MCCko lehendakari Jose Mari Aldekoak, berriz: "MCCk asko jaso du EMUNetik, eta baita ere EMUNek MCCtik", adierazi zuen; eta, hain zuzen, hemendik aurrera ere biek elkarlanean jarraitzeko asmoa dutela azpimarratu zuen.

Gipuzkoako diputatu nagusi Markel Olanok, azkenik, EMUN "osasuntsu" dagoela adierazi zuen. "Bidea besterik ez da egin", ohararazi zuen, horrez gain.

Ondoren egindako omenaldian une hunkigarriak bizi izan ziren. EMUNen sorreratik ondoran izan diren entitateak omendu zituzten: Huhezi eta Fagor kooperatiba, hain zuzen. Lehenaren ize-nean, Jesus Garmendia eta Nekane Arratibel igo ziren Amaia agertokira; Esti Solana eta Juanjo Ansoategi, berriz, Fagorretik. Makila eta txapela jaso zuten.

Eta, ekitaldia borobiltzeko, EMUNek prestatutako *Eguneroko jira-biran* bertso antzerkian parte hartu zuten kooperatiba eta beste enpresetako langileek. Txaloekin amaitu zen ospakizuna.

EUSKO IKASKUNTZA > JAKIUNDE AKADEMIA

Lau debagoiendar daude Jakiunde akademia berrian

Eusko Ikaskuntzaren zientzia, arte eta letren akademia da Jakiunde, eta asteen aurkeztu dute

AINZANE IRIZAR > BERGARA

Atzo, eguena, egin zuten akademia berriaren aurkezpena, Donostian. Zientzietan, arte-sormenean eta pentsamendu kritikoan egindako lanagatik nabarmendutako 26 adituk osatzen dute Eusko Ikaskuntzak eratu

duen Jakiunde akademia. Tartean, lau debagoiendar daude: Itziar Astiazaran aretxabaletarra, farmazialaria; Mari Karmen Gallastegi bergararra, ekonomialaria; Jon Markaide elgetarra, astronomoa; eta Jesus Mari Ugalde bergararra, kimikari fisikaria. Hain

zuzen, 26 adituen artean izen ezagun asko dago; besteak beste, honakoak: Bernardo Atxaga idazlea, Jabier Agirresarobe zinemagilea, Rafael Moneo arkitektoa eta Jesus Altuna antropologoa. Akademiako lehendabiziko lehendakaria izango da Pedro Miguel Etxenike fisikari ezaguna.

HELBURU GARRANTZITSUAK

Jakiunde akademiako kideak urtean hiru aldiz elkartuko dira osoko bilkuretan. Haien zeregina izango da elkarrekin hausnartu eta iritziak ematea; horretarako, gizartearen antzematen dituzten gabeziak eta euskal letrek, zientziek eta arteek datozen urteetan hartu beharko luketen bidea hartuko dituzte hizpide. Ikerketak, azterlanak, txostenak eta irizpenak egiteko zeregina izango dute adituok.



Itziar Astiazaran, Aretxabaleta.



Mari Karmen Gallastegi, Bergara.



Jon Markaide, Elgeta.



Jesus Mari Ugalde, Bergara.

kontsumoa



Telefono zenbaki horiek ez dute erregulazio zehatzik.

GOIENKARIA

Iruzur baten berri eman dute, 1.500 euroko soldata eskaintzen duena

GOIENKARIA > BERGARA

Telefono bidez egiten den iruzurrak ohartarazi berri dute. Kontsumitzaileek telefono dei bat jasotzen dute eta 1.500 euroko soldata tokatu zaiela esaten diete. Informazio gehiago eskuratu gura duenak 905 telefono zenbaki batera deitu behar duela ere jakinarazten dute. Dei hori egitean itxaron egin beharko du bezeroak; hasieran, linea duen bakoitzean, 0,95 euro inguru ordainduko ditu, baina denborak aurrera egin ahala kopuru hori handitu egingo da.

Telefono zenbaki horiek ez dute erregulazio zehatzik. Kontsumitzaileen elkarteek arautzeko eskatu diete administrazioei, iruzurrik gerta ez dadin. Horrela, zenbaki horiek markatzerakoan, jabeari buruzko doaneko informazioa eskainiko da, baita deiak zenbat balio duen eta blokeatzeko aukerarik izatea ere. Horrela, erabiltzailearen eskutik egongo da deia erantzun edo ez.



Etxean istripu asko gertatzen direla ohartarazi dute

Kontsumoko Institutu Nazionalak etxean istripu asko gertatzen direla jakinarazi du. Hala, ezbeharren %57,4 norberaren etxean izaten dira, lan eta zirkulazio istripuak kontuan hartu barik.

Herritarrek, hala ere, ez dira horretaz ohartu, %80k ez dute eta arrisku hori ikusten. Kaleko lanak eta merkataritza-etxe nahiz umeendako parkeen zoruak arriskuak izan daitezkeela uste dute herritarrek.

Etxeko istripuen %15ek zoruekin izan zuten lotura. Baina jendeak aparailu elektrikoetan eta gas botiletan ikusten du arrisku handien. Garrantzitsuena dauden arriskuez ohartaraztea da.



Vodafone, Movistar eta Orange enpresak espedientatu dituzte

Eskumenen Batzorde Nazionalak Vodafone, Movistar eta Orange enpresei espediente zigortzailea zabaldu die, tarifak adostu zituztela susmatzen duelako. Telefonia mugikorrek operadorek prezioak igo behar zituztela jakinarazi zuten joan den otsailean, eta halaxe egin zuten.

Kontsumitzaileen elkarteek hori salatu eta eskutako kautelazko neurrien artean, tarifa horiek bertan behera uztea zegoen.

Ondoren, adostasun hori izan den aztertu behar da. Eta hori hala izango balitz, isuna ezarriko diete esandako hiru telefono operadorei.



Irudian, Jose Antonio Martinez; duela 10 urte operatu zuten bihotz eta hezur muinetik.

JASONE ZABALA

Jose Antonio Martinez > Bihotz eta hezur muin transplantatua

"Nire esperientzia gogorra izan da, baina esperantza ez da inoiz galdu behar"

JASONE ZABALA > BERGARA

Duela 10 urte operatu zuten Jose Antonio bihotz eta hezur muinetik; amiloidosis gaixo batengan munduan munduan mota horretako lehen operazioa izan zen harena. Mendizalea betidanik eta automobil mekanikoa lanbidez, 1997an bere bizitzak 180 graduko bira eman zuen hilabete gutxian. Hain zuzen, bizitza zenbat aldatu den kontatu digu Jose Antoniok.

Noiz eta zergatik egin zizkizuten bihotz eta hezur muineko transplanteak?

Guztia azaltzea nahiko luzea da, asko sufritu dut-eta. Ni oso mendizalea nintzen, eta oraindik ere mendira joaten naiz, baina duela 10 urte onddo bila genbiltzan aitagarreba eta biok. Inoiz baino azkarrago nekatzen nintzela ohartu nintzen eta hori ez nuen batere normala ikusten; lanean ere inoiz baino azkarrago nekatzen zitzaizkidan besoak, lanik ere egin ezinez gelditu nintzen. 1996. urteko uda zen, eta medikuek begiratu ninduten Arrasaten, eta hemendik Gasteizera joan nintzen proba batzuk egitera; bertan, bihotza normala baino handiagoa neukala esan zidaten, eta baita amiloidosis gaixotasuna bere maila txarrean neukala ere.

Amiloidosis gure gorputzak sortzen duen substantzia bat da, eta nire gorputzak amiloidosis gehiegi sortzen zuen, eta gorputzeko organo garrantzitsuetan eragiten zuen; nire kasuan bihotzera. Nire osasunak txarrerantz jo zuen, eta Gasteizen hiru hilabete eman ondoren, ez zidaten gaixotasunarentzat konponbiderik topatzen eta hil egingo nintzela esan zidaten, nire gaixotasunak

ez zuelako momentu hartan tramendurik. Ez nuen bizitzeko zentzurik ikusi momentu hartan eta nire buruaz beste egitea ere pentsatu nuen. Baina nire seme-alaba eta emaztearengan pentsatu eta aurrera jarraitu behar nuela erabaki nuen.

Eta zein izan zen hurrengo pausoa?

Emaztearen lehengusu baten bitartez Santanderko Valdecilla ospitalera joan ginen; hori da Espainia mailan transplanteen erreferentzia zentroa. Bertan, amiloidosis zuen neska mexikar bat ere operatu zuten bihotzetik. Hura esperantza izpi bat izan zen niretzat. Bihotz berri bat lortzeko zerrendan jarri ninduten. Bitartean, Bartzelonan ere egon ginen beste mediku bat bisitatzen: hemen esan zidaten bihotz transplantea bai, baina hezur muinekoa ere egin behar zidatela gaixotasuna sendatzeko. Bartzelonan nengoela gutxiegitasun

kardiako batek ere eman zidan. Bergarara bueltatu, eta semearen jaunartze bezperan tronbosia izan nuen.

Hurrengo egunean Valdecillara heldu zen niretzako bihotza Tarragonatik, eta gaixotasunarekin hasi eta urtebetera, ekainaren 21ean egin zidaten bihotzeko transplantea. Dena ondo atera zen; handik sei hilabetera, Santanderren ere hezur muinetik operatu ninduten.

Zergatik diozu munduan kasu bakarra dela zurea?

Amiloidosis gaitza edukita bihotz eta hezur muinetik operatu duten pertsona bakarra izan naizelako munduan.

Hamar urte pasatu dira operazioetik. Orain nola zaude zu eta zure familia?

Orain oso ondo nago, nahiz eta gogorra izan den errehabilitazioa, eta nire familiak asko lagundu dit, baina batez ere emazte eta anaiagatik izango ez balitz ez nintzatekeen aurrera aterako.

Bizitza asko aldatu dizu horrek guztiorrek?

Bai, baina beti zerbait egiten egon behar dut, ez duela 10 urteko indarrarekin, muga batzuk baititut, baina onddo bila, mendira buelta bat ematera... joaten naiz.

Amaitzeko, zer esango zenieke bihotz arazoak dituztenei, transplante baten zain dauden pertsoneri?

Ni ATCOREn nago (EAEko transplantatuen elkarte). Ez gaitzeko esperantzarik inoiz, aurrera begiratzeko, eta jendea organo emaile bihur dadila.

"Amiloidosis gaixotasuna izanda, bihotz eta hezur muinetik operatu duten bakarra izan naiz munduan"

"Anai eta emazteagatik izango ez balitz, ez nintzatekeen mundu honetan egongo"

"Jendeari esango nioke emaile bihur dadila"

gure artekoak

RENAULT LAGUNA > Renault etxeak Laguna modeloaren hirugarren belaunaldiko automobila aurkeztu berri du. Bergarako Elkarre Renault kontzesionarioko Joana Dezak erakutsi digu automobil berria.

Joana Deza > Elkarre Renault kontzesionarioko aholkulari komertziala

"Hiru urteko bermea du Renault Laguna automobilak"

AINZANE IRIZAR > BERGARA

Hilabete honetan bertan aurkeztu dute merkaturatu Laguna berria. Hirugarren belaunaldikoak dira orain merkaturatu dituzten Laguna automobilak.

Joana Deza Bergarako Elkarre Renault kontzesionarioko aholkulari komertzialak horrela berba egin du automobil berriaren gainean: "Kalitateari dagokionez, diseinuari eta fabrikazioari eman dio Renaultek lehentasuna. Erabilitako materialak dira ezin hobekak".

EuroNcap zigiluaren arabera, bere segmentuko hiru automobil onenen artean dago Laguna. Gainera, zigilu horrek automobil seguruenei ematen dien sei izarrak ditu.

Segurtasunari dagokionez, aipatzekoa da, bestalde, Pre-fill sistema; horri esker, larrialdi egoeratan, balaztatzeak akzioa aurreratu egiten du. Azeleragailua kolpean askatzen dugunean, balazta-pastillak gerturatu egiten dira.

AUTOMOBIL EKOLOGIKOA

Europatik bultzatutako Eco2 ekimenaren barruan dago Renault etxea; Laguna berriak hainbat baldintza betetzen ditu. Besteak beste, CO2 emisioak murriztu ditu eta ondorioz, kontsumoa ere



Joana Deza, Renault Laguna automobil berri-berriarekin.

A.I.

Renault Laguna 1.5 DCI 110 ZP

Prezioa	21.350 euro
Luzera	4,69 metro
Zabalera	1,81 metro
Maletategia	462 litro ⁽¹⁾
Kontsumoa	4,9 litro /100 km ⁽²⁾
Abiadura	192 km/h ⁽³⁾
Otik 100era	15 seg.
CO2 isurketak	130 g/km

(1) Gehienezko edukiera
(2) Batez besteko kontsumoa, hiri barrukoa eta errepidekoa kontuan hartuta
(3) Gehienezko abiadura

bai. Bestalde, automobila ekoizteko erabilitako plastikoaren %5 gutxienez birziklatutakoa da.

MOTORRAK

Gasolinazkoen artean, honako motorrak daude aukeran: 1.6, 110 zaldi potentziakoa; 2.0, 140 ZP eta 170 ZP. Dieselen artean: 1.5, 110ZP; 2.0, 130, 150, 175 edo 180 ZP. Motor guztiak dira sei martxakoak.

Bukatzeko, hauxe aipatu du Dezak: "Hiru urteko bermea dute automobilerik; bi urtekoa, kilometroen mugarik gabe. Hirugarren urtean, 150.000 kilometroko mugarekin".

etxeke leihotik



Goiatz Arana > GOITBko erredakzio-burua

Dendari txikien ohiturak aldatzeko garaia ote?

Merkataritza-gune handiak egungo kontsumo aldaketan adierazle dira, edo alderantziz, gune horiek dira erosleen joerak aldatu dituztenak. Bata edo bestea dela ere, errealitate bat da. Horren aurrean, kezkatuta daude merkataritza txikiak, Arrasatekoak, urrunago joan gabe; Zabaletan merkataritza-gune bat egiteko dagoen asmoa makina bat buruhauste ari zaie eragiten.

Debagoiendarrak Gasteizko merkataritza-guneetara joango zarete, ziurrenik, nik Urbilerako joera dut, joera edo... Ez naiz oso zalea, baina ezin esan joaten ez naizenik. Ez nau hara beharrak eramaten, baina badakit zenbaitentzat salbazioa direla; guztiok ez dugu lan ordutegi bera, eta aukeran etxe azpiko dendan erostea nahiago izanda ere, ezinezkoa gertatzen da maiz, eta halako gune erraldoiak dira soluzioa. Pena emango lidake herriak hilda ikusteak. Hori saihestea kontsumitzaileen esku dago, bai, baina baita dendarienean ere; eurek ere ohiturak aldatzeko garaia iritsi da, akaso. Merkataritza-guneetarako joan-etorria gutxitzea euren baitan ere egon daitekeelakoan diot hori. Egungo gizartearen beharrak ez dira lehengoak.

"Merkataritza-gune erraldoiak salbazioa dira askorentzat, lan ordutegiagatik"

> Zer egin behar lukete merkataritza txikiak? Eguerdietan ere ireki? Iluntzeetan beranduagorako arte aritu? Erantzun eske hasita, askotariko iritziak jaso ditut inguruan. Ez dago samurra!

> Azaroaren 10ean egingo da aurtengo Arrasateko Baserrieta-ko Produktuen Azoka. Seber Altuberen egingo da, baserriarrek hala eskatuta; Biteri plazako korranteak ez zien iaz mesederik egin.

begi-bistan



Sekulako onddo (Bergara) 2007/10/14

Argazkia: Asun Ojanguren.
Testua: Ainzane Irizar.

Zabaleta baserriko Juan Mari Alberdik sekulako onddo beltza topatu zuen Angiozarren. 96 zentimetroko perimetroa dauka. Tortilla ederra egingo zuten argazkiko onddo ederrarekin!

Har ezazu parte:

Argazkia eta azalpentxoak bidali honako helbidera: goienkaria@goiena.com

izen propioak



Itziar Lamarain

PP ARRASATE

Eusko Jaurlaritzako Euskararen Aholkularitza batzordeko kide izendatu dute oraingo astean bertan Arrasateko Udaleko PPko zinegotzi Itziar Lamarain.

PPk proposatu zuen kide izateko eta asteon onartu du proposamena batzordeak.



Martin Arriolabengoa

EAE ARAMAIO

Aramaioko EAEko zinegotzi Martin Arriolabengoa da Udalerri Euskaldunen Mankomunitateko kide izateko hautagaietako bat. Bihar egingo dute batzar orokorra Zestoan. Jon Bollar Aulestiko alkatea da lehendakari izateko hautagaia.



Koldo Madariaga

GAZTAGILEA

Lleidako Seu d'Urgell herrian, Pirinioetako artisau gazten XIII. lehiaketa irabazi zuen Oñatiko Gomiztegi kooperatibako gazteak, Koldo Madariagak egindako gazteak. Katalunia, Frantzia, Aragoi eta Euskal Herriko 33 gaztagilek parte hartu zuen.

Fagor Arrasatek 50 urte bete-
ko ditu azaroaren 13an. Hori dela
eta, kooperatibako kontseilu
errektoreko lehendakari Joxe-
an Alustizarekin hitzordua egin
dugu egoitza nagusian, bilaka-
era eta hemendik aurrerako
erronka nagusien inguruan hitz
egiteko. Horrez gain, urteurre-
na dela eta egingo diren ospa-
kizunen berri ere eman digu
Alustizak ondorengo lerroetan.

Joxean Alustiza > Fagor Arrasateko kontseilu errektoreko lehendakaria

"Identitatea berreskuratzea da datozen urteetako erronka nagusietako bat"

MIRIAN BITERI > ARRASATE

Joxean Alustiza ezkiotarra da, bai-
na urte asko daramatza Zumarra-
gan bizi izaten. 1991. urtea ezke-
ro egunero dator Arrasatera, Fago-
rren egiten du eta lan. 1995. urtean
kontseilu errektorean sartu zen,
eta zortzi urte eman ditu dagoe-
neko presidente.

Urteak beteko ditu aurki Fagor Arrasatek. Urteurrena ospatzeko asmorik badaukazue?

Bai. 1957ko azaroaren 13an, Fagor Arrasatek Lan Ministerio-ko kooperatiben erregistroan izena eman zuen. Bi urte lehenago hasi zuen, hala ere, jarduerara. Fagor Arrasate izan zen Arrasateko esperientziaren inguruan erregistratu zen lehenengo kooperatiba. Horrenbestez, badago zer ospatu.

Zer-nolako ekimenak antolatuko dituzue?


Ez dugu egingo gauza bereziri askorik. Ekimenak bi ardatzetan banatu ditugu: batetik, barrura begirakoak daude. Fagor Arrasate osatzen dugun kideen arteko festa berezia egingo da abenduaren 1ean. Amaia antzokian ekitaldi instituzionala egin dugu eta fundatzaileak ere omenduko ditugu. Handik Kulturatera joango gara, argazki erakusketa ikustera. Uarkarpen amaituko dugu, bazkari ederra eginda.

Eta kanpora begira zer duzue aurreikusita?

Gure inguruarekin ere zer ospatzerik dugula uste dugu, Arrasaten jaio eta kokatuta egon garela beti, fundatzaile gehienak arrasatearrak direlako eta izena bera ere hortik datorrelako. Udalarekin eta talde kulturarekin batera hainbat ekimen prestatzen ari gara datozen hilabeteetarako. Hori guztia labean dago, ez daukagu zehaztuta.

Nolakoak izan ziren Fagor Arrasateren hasierako urteak?

Beste hainbat proiektu bezala, On Jose Maria Arizmendiartak bultzatu zuen. Egundean, Eskola Profesionaleko irakasle Leandro Uribarren eta Felix Gonzalez Zerrajerako langilea deitu zituen bulegora eta lantegi bat osatzeko agindu zien. Haren gidaritzapean, Legarre auzoko Aranzabal-Icia enpresa erosi zuten. Hango langileekin eta Eskola Profesionaleko talde batekin 15 laguneko taldea osatu zuten. 13 arrasatear, aretxabaletar bat eta esko-



Fagor Arrasateko kontseilu errektoreko lehendakari Joxean Alustiza, Arrasateko egoitza nagusian.

MIRIAN BITERI

riatzar bat. 50 urteko bide luze-
ari eman zioten hasiera orduan.

**Gauzak asko aldatu dira ordu-
tik hona. Zein izan da hedatze
horren gakoa?**

Gako asko ditu. Nik lau nabarmendu nituzke: lehenengoa eta garrantzitsuenak ehunka lagunena da. Hori gabe Fagor Arrasate ez zen izango gaur egun dena; bigarrenik, erabaki inportanteak hartzeko ausardia aipatuko nuke; hirugarrenik, Fagor taldeak interkooperazio mekanismoarekin eman digun laguntza egongo litzateke. Makina-erremintan zikloak daude eta krisi garaietan eman digun laguntza oso inportantea izan da; azkenik, zortea izatea aipatuko nuke.

Zenbat langile eta lantegi ditu egun Fagor Arrasatek?

Lau lantegi ditu: zentrala Arrasaten dago, San Andres auzoan. Bertan 325 langile inguru gaudu. Prentsa handiak, xaflak mozteko makinak eta etxetresna elek-

OSPAKIZUNAK

"Festa berezia egingo da abenduaren 1ean. Amaia Udal Antzokian fundatzaileak omenduko ditugu"

LANTEGI BERRIAK

"Arrasaten eta Txinan eraikitzen hasi dira; hemendik sei edo zortzi hilabetera altxatuta egotea espero dugu"

ETORKIZUNA

"Iragana pasa da eta espero dugu, gutxienez, beste 50 urtez jarraitzea"

trikoak egiteko makinak daude; Markinan beste lantegi bat dugu, 110 langilerekin. Prentsa ertain eta txikiak egiten dira han; hirugarren bat Donostiako Errekalde auzoan kokatuta dago eta siderurgiarako makinak ekoizten dituzte 70 bat lagunek; laugarrena, lehen Game zena, orain dela hiru edo lau urte gehitu zitzaigun. 50 bat langile ditu; berezoendako asistentzia zerbitzua ematen dute eta makina zaharrak berriztatzen dituzte.

Planta gehiago zabaltzeko asmoa ere baduzue...

Hala da. Lehenengo proiektua etxean dugu, San Andresen handitze lanak ari gara egiten. Gure ahalmena bikoiztu egin nahi dugu Arrasaten, gure ekoizpena handitzen doalako eta makinak ere gero eta handiagoak direlako. Baliabide gehiago izatera behartzen gaitu. Horrez gain, Txinan beste planta bat egiten hasi gara. Globalizazio garai hauetan Txinan ikaragarriko

proiektuak ari dira gauzatzen eta horiei aurre egiteko, hor egon beharra dago.

Nola daude lan horiek?

Lurrak mugitzen eta plantak eraikitzen hasi dira dagoeneko Arrasaten eta Txinan. Hemendik sei edo zortzi hilabetera altxatuta izatea eta lanean hasteko moduan egotea espero dugu.

Nola baloratuko zenuke egungo enpresaren egoera?

On moduan salduko nuke. Azkenaldian ikaragarriko garapena izan dugu eta salmentetan ere maila handian gaude. Estatuan makina-erremintako enpresa handiena da Fagor Arrasate eta enpresa-alorrean ere mundu osoan gaude. Horrez gain, gazte asko sartu dira azken hamar urteetan, 150 bazkide berri egin ditugu. Etorkizunari begira garantzia ematen digu horrek.

Gazteria aipatu duzu. Gazteak kooperatibismoaren gaineko balioak kontuan hartzen dituela uste al duzu?

Lehenik, kooperatibismoko balioak ikusi eta ikasi behar ditu. Orain dela lau bat urte, MCCn prozesu bati ekin genion eta azken 15 urteetan, identitate galera inportantea izan dugula ondorioztatu genuen. Galera hori izan dugula onartzea inportantea da.

Zer egin daiteke identitate hori berreskuratzeke?

Horretan gabilta orain. Hiru ardatz nagusi finkatu ditugu horretarako: batetik, formazio kooperatiba dago. Formaziorik ez badago ezin dugu kooperatibismoaz hitz egin; bestetik, parte-hartzea dago, instituzionala eta lanpostuan bertan. Hori ere garatu beharreko ardatz inportantea da; azkenik, erantzukizun soziala dago. Gizartearen zati bat gara eta hor ere gure parte-hartzea landu behar dugu. Orain hirur ardatz horiek zelaz garatu aztertzen gabilta. Datozen urteei begira, erronka nagusietako bat da hori.

Horretaz aparte, zeintzuk dira hemendik aurrerako erronkak?

Etorkizuna. Gainontzeko guztia horretan sar daiteke: enpresa-garapena, garapen soziala eta balioen inguruko prozesuaren garapena, besteak beste. Iragana pasa da eta espero dugu, gutxienez, beste 50 urte jarraitzea hemen.



zabalik

Eneida Iturbe

Bestelako egia

Nik hau idazten dudan bitartean, nigandik kilometro eskasetara Al Gore lurraren beroketa dela-eta kataluniarrak kontzientziazten ibiliko da (hitzaldi bat entzuteko 300 euro ordaindu ditzaketen kataluniarrak, noski, hori baita konferentziaren prezioa).

Itxura denez, hemengo erakundeek ez dira nahikoa eta Al Goreren beharra daukagu "ingurumena zaintzea denon ardura dela" jabetzeko. Behin eta berriz errepikatzen omen du esaldi hori hitzaldietan. Eta ez du arrazoirik falta. Baina hala koetan, eta besteen eredu izateko, norbere buruarekin hastea komeni izaten da. Eta, entzun dudanez, klima-aldaketaren guruak ez ditu ohitura ekologikoegiak, ezta horiek aldatzeko asmorik ere.

Hasteko, ez du nahikoa ZPri bere dokumentalaren 30.000 kopia saltzarekin, alde batetik bestera dabil hitzaldiak egiten; hori bai, hegazkinez, horrek sortzen duen CO2a kontuan izan gabe. Gainera, bere Nashvilleko luxuzko etxean Estatu Batuetako familien batez bestekoa baino 20 aldiz energia gehiago kontsumitzen omen da.

Bestalde, Al Gore Clintonen presidenteorde zela, Estatu Batuek ez zuten Kiotoko protokoloa berretsi eta militarrek bidali zituzten Sudanera, Afganistanera, Irakera, Haitira, Zairera, Liberiara eta Jugoslaviara. Horiek bai "egia deserosoak" Bakearen Nobel sari-dun batentzat.

Bertako produktuak kontsumitzen dituztenak, egunero lanera bizikletaz joaten direnak, energia berdeak darabiltzatenak... Horiek dira benetako ekologistak. Ez dituzte han eta hemen hitzaldiak emango eta ez dute inoiz Nobelik jasoko, baina euron egunerokotasunean beren ideiekin kontsekuente dira. Nire ustez, horrek mila sari eskuratzeak baino meritu dezente gehiago dauka.

"Klima aldaketaren guruak ez ditu ohitura ekologikoegiak"

"Al Gore Clintonen presidenteorde zela AEBek ez zuten Kiotoko protokoloa berretsi"

Goienkaria

Argiraratzaillea Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkarteak • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
Lehendakaria Estepan Plazaola Zuzendari nagusia Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate Erredaktore burua Monika Belastegi Saitetako arduradunak Edu Mendibil (Herriak), Aitziber Aranburuzabala (G2a), Xabi Urtzelai (Kirola), Alex Azkarate (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)
Erredakzioa Iker Barandiaran, Mirari Altube, Aintzane Irizar, Mirian Biteri, Larraitz Zeberio, Arritxu Barruso Oinarrizko diseinua Goio Arana Maketazioa Alex Azkarate, Kepa Martelo Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martín, Fausto Berazadi, Itxaso Berezibar Testuen zuzenketa Sergio Azkarate Harpidetza eta banaketa Marta Leturia Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Marilu Unamuno.

EGOITZA NAGUSIA

BERGARA 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 01/02 • Faxe: 943 25 05 13
Posta-e: goienkaria@goiena.com

ORDEZKARITZAK

ARRASATE 20500 Otarola Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxia • Tel.: 943 71 25 11 • Faxe: 943 71 23 89
Posta-e: arrasate@goiena.com

ARETXABALETA 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxe: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

Publizitatea Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Faxe: 943 79 22 93
Posta-e: publi@goiena.com

Harpidetza Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

Lege Gordailua: NA-3329/2000 • ISSN: 1577-1210 • Tirada: 19.400 ale • Difusioa: 19.056 ale.



OID erakundeak
ikuskatutako astekaria

LAGUNTZAILEAK



Eusko
Jauriaritza



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Arrasateko
Udala



Bergarako
Udala



Oñatiko
Udala



Aretxabaletako
Udala



Eskoriatzako
Udala



Antzuolako
Udala



Aramaioko
Udala



Elgetako
Udala



Leintz Gatzagako
Udala

herritarrak galdezka

DOMU SANTU EGUNERAKO
AUTOBUS ZERBITZU
BEREZIRIK EGONGO DA?

Arrasateko irakurle batek jakin nahi du datorren astean, azaroaren 1ean, Domu Santu eguna dela eta, ea urbano zerbitzu berezirik egongo den San Kristobal hilerria joan-etorria egiteko.

Bada, bai, urriaren 31n eta azaroaren 1ean indartu egingo du San Kristobal hilerriko zerbitzua Arrasateko hiri-busak, azkeneko urteetan egin izan duen moduan.

Urriaren 31n, eguaztena, orduro egongo da autobusa, 10:00etan hasi eta 12:00ak arte eta 15:00etatik 18:00etara bitartean.

Azaroaren 1ean, Domu Santu eguna, berriz, 10:00etatik 13:00etara eta 15:30etik 18:30era izango da zerbitzua hilerrian gora eta behera.

Bi egunotan Gorostiza eta San Kristobal hilerriaren arteko ibilbidea egingo du hiri-busak eta bien bitartean hamahiru geldialdi egingo ditu. Honako ibilbide hau, hain justu ere:

Gorostiza, Erguin, San Viator Txiki, San Andres, Garibai, Maala, San Frantzisko, Legarre, Musakola, Joan Bengoa, Galizia, Cristo Obrero, Obenerreka, Makatzena, San Kristobal hilerria.

EZKONTZA URTEURRENA
GOIENKARIA-N AZALTZEKO
ZER EGIN BEHAR DA?

Eskoriatzako irakurle batek egin digu galdera hori aste honetan,

Galdera egiteko:

Zerbaitetaz arduratuta bazaude eta gai horren gaineko informazio gehiago jaso nahi baduzu, bidaliguz galdera eta geu jarriko gara harremanetan dagoiokionarekin. Galdera egiteko bideak:

• Telefonoz: 943 25 05 01

• Faxe: 943 25 05 13

• Postaz: Goienkaria. Irizar jauregia. Barrenkalea 33. 20570 Bergara.

• Posta elektronikoz: goienkaria@goiena.com

baina hark bezala, beste askok deitzen dute galdera bera egin ez.

Bada, bi aukera daude GOIENKARIA halako urtemugak helarazteko: alde batetik, e-postaz helaraz daiteke, aezkibel@goiena.com helbidera idatzita.

Bestetik, ditugun hiru egotzetako batera ekar daiteke urtemuga: Aretxabaletara (udalaxe zaharreko lehen solairua), Arrasatera (Otarola 31) edo Bergarara (Barrenkalea 33).

Ekarri beharrekoak honakoak dira: ezkontzera doan bikotearen kasuan, bien izen-abizenak, jaioterria eta ezkontzaren data eta lekua eta, ezteibidaia egitekoak baldin badira, nora joango diren. Urtemugaren kasuan, bi protagonisten izen-abizenak, jaioterria, zenbatgarren urtemuga den eta urtemugaren data dira behar diren datuak.

Horrekin guztiarekin batera, ezinbestekoa izango da bikotearen argazkia ekartzea, bai ezkontzera doan bikotearen kasuan zein urtemuga ospatzera doan bikotearenean.

marrakiz

Alex Ugalde



Bekadun izateko elkarrizketa, berriz.

Robinson Crusoe ez zukeen nobelarik idatziko

Bernardo Atxaga

www.atxaga.org/blog

Begira dezagun Euskal Herrira. Lehengo garaian, idazleek ez zuten, nahiz aurrean eduki, uharte deserturik ikusten, baizik eta haren atzean zegoen paradisuak, diktadorea erori ondoren loratuko zen Baratza Ederra. Ilusio hura zela eta, nobela edo antzerki pare baterako kotta

izaten zuten, edota ehun bat poematarako. Gero, intxaurrak beti lau, edo gutxiago, "agortutako iturriak" bezala sentitzen ziren –halaxe esan zidan behin Gabriel Arestik–, eta utzi egiten zuten, edo beste hizkuntza batera pasatzen ziren; inoren esker onik gabe, pasa ere, edota Abertzale Beti Garbien mespretxuarekin. Idatzi zuen Gabriel Arestik berak: "Euskal Herri nerea, ezin zaitut maite, baina non biziko naiz zugandik aparte". Niri aldaera bat bururatu zait: "Euskal Herri nerea ezin zaitut maite, zuk bihurtu nauzu-ta Robinson Crusoe".

Iraganean, euskal idazleei zegokienez, uharte desertuak zabalera handia hartu zuen. Eta, gaur egun? Ez dakit. Zailagoa egiten zait gaurko bere neurria kalkulatzeko. Itxura batera, urriagoa dirudi, nahiz eta Besteak, oraindik ere, oso gutxi diren eta oso gutxi eskatzen duten. Baina zalantza ez zaizkit erabat joaten. Kontrakoa, zalantza berriak sortzen dizkit idazle autentiko batzuei –ez idazle izenaren usurpatzaileei, esan nahi dut– entzuten dizkidanak. Gogoan dut, kasu, orain dela gutxi Karlos Linazasorori irakurri nizkionak. Uharte

plazara

Etxebizitzen salmentak geldialdia jasan duela, prezioetan beherakada izan dela... Azken boladan askotan entzuten ari garen baieztape-

nak dira. Baina hori benetan al da horrela? Jesus Markaideren arabera, "une honetan drastikoki jaitsi da etxebizitzen eskaria". Prezioei

dagokienez, berriz, ez du horren argi: "Salerosketa batzuk tasazio prezioaren azpitik egiten diren neurrian; beste batzuk ez".

Jesus Markaide *


Etxebizitzen gaineko hausnarketa

Ondoko lerroetara ekarriko ditudan hausnarketak dira Arrasaten eta Bergaran ditugun bulegoetan ikusi ahal izan ditudan oinarritutakoak, eta batik bat, bigarren eskuko etxebizitzen gainean jardungo dut.

Debagoienean hirukoiztu egin da etxebizitzen prezioa 1999ko maiatza eta 2007ko maiatza arteko zortzi urteotan.

Azpiko inflazioa deskontatuz gero -esandako epean %29,7ra iritsi da-, esan daiteke, prezio errealean, etxebizitzen prezio erreala igo dela 2,25 aldiz esandako epealdian. Hori igoera benetan ikusgarria da eta Euskal Autonomia Erkidegoan eta Estatuan gertatu den igoeraren pareko da, ia mimetikoa. Horrek gizartean benetako alarma piztu du, agerian geratu delako konstituzioak jasotzen duen honako printzipioa: Estatuak bermatu behar die herritarrei etxebizitza duin bat.

Ikuspuntua pixka bat haratago eramanez gero, AEBetako Erreserba Federalak 2005ean egindako ikerketa azter dezakegu. Ikerketa horretan konparatzen dituzte euren ustez esanguratsuen diren garatutako 18 herrialde eta erreferentzia gisa hiru data hartzen dituzte: 1970, 1985 eta 2005. Ikerketan analizatzen dute prezio errealean eboluzioa -inflazio deflaktatua- eta honako ondorioetara iritsi ziren: herrialde guztietan, 1970-1985 eta 1985-2005 epealdietan -batik bat azkenean- prezioak igo egin dira, KPIren gainetik. Epealdi osoan eta herrialde guztietako prezio errealak 2,2 aldiz hazi dira, baina Espainiari dagokio leheneko



MIKEL ARROIABE

lekua: 4,7 aldiz igo da. Atzetik Ingalaterra (4 aldiz) eta Irlanda ditu (3,66 aldiz). Bakarrrik bi herrialdek, Japoniak eta Alemaniak, merkatu dituzte, prezio errealean, euren etxebizitzak 1985-2005 epealdian. Bestalde, ikerketak ere jasotzen du litekeena dela 2005ean prezio errealean jaitsiera gertatzea, kotizazioek jo duten gaina kontuan izanda. Gainera, igoera handiagoa izan den herrialdeetan jaitsiera nabarmenagoa izan litekeela ere jasotzen du ikerketak.

Horrekin guztiarekin, nire ustez Debagoieneko merkatuaren egoera gaur egun honakoa da:

2006. urte bukaerara arte edo 2007ra arte ez dugu egoeraren

"2007ra arte, tasazio prezioek etengabeko igoera izan dute amaiezina zirudien eskaeragatik"

"Guruek' datorren urterako egin dituzten iragarpenetan denetarik dago: batzuek diote apur bat igoko direla prezioak; beste batzuek, %10"

aldaketa nabarmenik igarri; hau da, gure tasazio prezioek etengabeko igoera izan dute merkatuaren errealitateagatik -amaiezina zirudien eskariagatik, hain justu-.

Une honetan, drastikoki jaitsi da eskaria -etxebizitza garestiendako, 50 milioitik gorakodako- eta baita transakzio edo salerosketa kopurua ere.

Prezioen eboluzioari dagokionez, ez dago horren argi. Egiten dira hainbat salerosketa tasazio prezioaren azpitik, baina baita goitik ere.

Guruek datorren urterako egiten dituzten iragarpenen artean denetarik dago: batzuek diote apur bat igoko direla prezioak eta beste batzuek %10 igoko direla. Argi dagoena da azken igoera hori gertatuko balitz, egoerak oro har eragingo lukeela ekonomian. Gaur egungo egoeratik kezagarriena da eskariaren interes falta.

Gertatzen ari den guztiaren arrazoiak aurkitzea ez da erraza. Ziur dakigun bakarra da prezioen eta eskarien igoera hasi zela interes tipoak jaisten hasi zirenean, baina ez dakigu zergatik jarraitzen zuten igotzen sei urte geroago.

Ez dakigu, ezta ere, zergatik sustatzaile txiki eta handiek egin dituzten halako dirutzak, banketxeen jabe egin arte, eta ez diren banketxeak izan boom inbiliarioaren zuzeneko onuradunak izan, 80ko hamarkadan izan ziren bezala.

*Jesus Markaide, higiezinaren jabetza-ko agentea da

zer deritzo zu?

www.goiena.net

Ordua energia aurrezteko aldatzen da?

BAI	%66,6
EZ	%33,3

> BAI

Hala diote eta uste dut dela Europako Batasunak ezarritako araua. 1974. urtean petrolioak jasan zuen krisia izan zen abiapuntua. Orduan hasi ziren ordua aldatzen, Europa osoan. Argumentazioa izan zen argiztapenean aurrezten zela.

Iker

> IMAJINATZEN DUT BAIETZ

Imajinatzen dut baietz. Bestela zertarako egiten dugu, bada? Ondo iruditzen zait, gainera, eguzkiak eskaintzen digun argiaren arabera funtzionatzea. Ez bakarrik dirua aurrezteko, energia aurrezteko ere bai. Naturarekiko eta gure munduarekin errespetuz jokatzeko ordua da!

Aitor

> EZ DAKIT

Ez daukat ideiarik ere. Dena dela, imajinatzen dut halaxe izango dela. Baina, bueno, auskalo. Zenbat gauza ez ote dituzten egingo agintariak gu, ezertaz enteratu barik

Amaia

DATORREN ASTEKOA:
Ondo ikusten duzu denda txikien etorkizuna?

Eman zure iritzia www.goiena.net atarian. Datorren astean argitaratuko ditugu hemen erantzun interesgarrienak.

-top

desertu batean sentitzen den norbaiten azalpenak iruditu zitzaizkidan. Eta seguru ez zela bere buruaz bakarrik ari.

Gaurko egoera dela eta, neuk behin egindako poema baten aldaera bururatzen zait: "Esaidan, zoriontsuak al dira mugaz bestaldeko idazleak? Kausitzen al dute irakurlerik bere maitatuen arteko ehuneko hogeita bostaren edo hogeiaren baitan?".

Robinson Crusoe ez zukeen nobelarik idatziko. Eta egunkaririk ere ez. Eta *lenga d'òc* hizkuntza erabiltzen duten idazleek ere larri ibiliko dira Robinsonen konplexua gaindi-

tu eta literatura bat eraikitzeko orduan. Idazle gailegoak eta euskal idazleak, berriz, ikusi egin behar.

Atxiloketak

Mikel Iturbe

www.goiena.net/blogak/zubia

Zorionak denoi. Heldu da zuzenbide estatua udalerrira, heldu da justizia eta honelako ekintzekin batera, helduko omen da bakea. Zuzenbide estatuaren sendotasunaren eskutik (aspaldi ondorioztatu nuen zuzenbide

estatu terminoa erreprezioaren eufemismo hutsa zela) helduko gara autoemantzipaziora, berak egiten baikaitu handi.

Ironia alde batera utzita, Madrilan, atxiloketok geroago eta gorroto gehiago sorrarazten dutela eta erreprezio eta bide polizialek ez direla inoiz gauzak konponduko laster konturatzea espero dut.

Poztuko nintzateke baita ere, herrian atxiloturikoak laster, berriro ere jaietan, parkean, tabernetan... ikusiko banitu. Ordura arte, beste askorekin batera, itxaron egingo dut.

koplak

Egoitz Iturbe

Guggenheim 10 urte

Titaniozko eraikin handi ibai bazterrean eder batzuentzako hainbeste zara beste batzuentzat ezer.

Hamar urteko ibilbidean mundu mailako eredu. Bertakoek zu gorrotatzeak Zerbait esan nahi ote du?

Artea erakusketa bidez zabaltzen duzu mundura ta erakutsi ezin den hori ezkutuan al duzu ba?

Bilbao hiriko garapenaren zutabe garrantzitsua. Arte iturri berri bat eta negozio burutsua.

Ezkerraldean tinko dotore eskuinekoa izaki itzala nori egin behar zaion deabruak ondo daki.

Berriro ere idatziko dut beste urteurren baten ibaiak gora eginda errotik ez bazaitu eramaten.

GOIENKARIAren jarrera

Ismael Gonzalez
Bergara

Pasa den ostiralean *Ertzaintza-
ren eta herritarren talde baten
istiluak zapatuak* GOIENKA-
RIAN agertu zen artikuluak
GOIENKARIAren jarrera
azaltzen du. Pilota "bien artean"
jartzen saiatu zarete, baina
Ertzaintzaren prentsa bulego-
ren lana egin duzuela uste dut.

Bi taldeen arteko borroka
bat aurkezten duzue, baina
kalean genbiltzanok (eta
inguruan bizi den jendeak)
ikusitua gurek ez duem
Ertzaintzarena izan zen. Ez
zegoen "herritarren talde bat",
baizik eta kalean zebiltzan
herritarrek, epaituak izango
direnak eta kolpeak jasan
zituena ez baitziren koadrila
edo talde batekoak. Ertzaintza
agertu baino lehen gaueko giroa
oso lasaia eta polita zen, baina
istiluak ekidin behar dituzte-
nek, euren portaerarekin,
tentsioa areagotu besterik ez
zuten egin. Beren bultzakadek,
borra-kolpeak (eta burdinazko
tramankulu harekin emandako-
ek), tiro jaurtiketek, keinu
zikinek eta atxiloketek jendea
sutan jarri zuten eta oihu, txistu
eta irainekin erantzun zuen. Ez
dakit nondik ekarri edo nola
hartu zituzten kolpeak hiru
ertzainek ospitalera joateko.

Ertzaintzaren lana "herria"
zaintzea da, ez liskarrak sortzea.
"Kaleko jantzita zihuan Ertzain-
tzaren patruila" hori identifi-
katu balitz (legezkoa den moduan)
besteak identifikatuko lirakee-
la ziur nago eta astelehenean
basean dena konpondu zitekee-
la, baina bortzikeriaren bidea
hartu zuten eta horrela bukatu
zen gaua: kolpeak jende ugari-
rentzat eta giro nahasia. Eta
ondorioz zentzugabeko epaiketa.

Kontzertatu- publikoak (eta 2)

Estepan Plazaola Otadui

(Aranzadi ikastolako gurasoa)
Bergara

Onartzen duzu, Aitziber,
ikastetxe publikoek zein
kontzertatuek betebeharrak
dituztena baina, hala ere,
defendatzen duzu publikoek
eskubide gehiago dutela.
Betebeharrak bera dutenei, lan
bera egiten dutenei, eskubide
desberdina aitortzea injustua
iruditzen zait.

Bi adibidetxo jarriko
dikizut, errealitatean oinarri-
tutakoak:

1. Elkarren ondoan dauden
bi herri: Ataura eta Lazkao.
Ataunek 1.800 biztanle ditu;

Lazkaok 5.000 inguru. Ataunen
eskola publikoa dute eta ez dago
ikastolarik; Lazkaon ikastola
bakarrik dago, 2000. urtean
eskola publikoa itxi egin zelako
ikasle faltaz. Justua da ataunda-
rrek diru publikotik lazkaota-
rrek baino gehiago jasotzea?
Lazkaoko herritarrek Ataungo-
ak baino aberatsagoak ote dira?
Lazkaoko herritarrek eskubide
gutxiago dute ikastola aukera-
tze hutsagatik?

2. Jo dezagun zu eta ni
Bergarara etorri garen bi
familia etorkinetako gurasoak
garela eta Bergaran 2 ikastetxe
ditugula:

- A, kontzertatua. Bertan
dabilta: Ainara (gurasoen
soldata, 35), Maria (zuen alaba,
Administrazioak berak bidali
du ikastetxe honetara; gurasoen
soldata, 40) eta Jokin (gurasoen
soldata, 150).

- B, publikoa. Bertan dabil-
ta: Andoni (gurasoen soldata,
35), Jose Mari (gure semea,
Administrazioak berak bidali
du ikastetxe honetara; gurasoen
soldata, 40) eta Maite (gurasoen
soldata, 150).

Zure ereduaren arabera,
guraso horien zergak batu
ondoren, baliabide gehienak B
ikastetxean jarri behar dira.
Ikastetxe horretakoek ordaindu
behar zaie kostu osoa; A
ikastetxekoei, ez.

Hainbat galdera sortzen
zaizkit: A ikastetxeari dena
ordaindu behar ez bazaio,
zenbat ordaindu behar zaio?
%50, %80, %90...? Zeren izenean
kopuru bat edo beste? Falta den
dirua gurasoek jarri behar
dute? Nik ez nuke jakingo
esplikatzeko zuk ordaindu
behar duzun eta nik ez.
Zuk eta nik ez dugu ezer
aukeratu. Administrazioak
bidali gaitu bata batera eta
bestea bestera. Gogoratuko
dizut sistema hau (etorkinak
eskola batera edo bestera
administrazioak berak bidera-
tzea) Eskola Publikoaren
eskariz ezarri zela, eskola
publikoak etorkinen ghetto
bihur ez zitezen. Nik pentsatzen
dut betebeharrak bera ezartzen
zaienei eskubide bera aitortu
behar zaiela.

Eta, era berean, zergatik
ordaindu behar dute Jokinek
eta Ainarak eta ez Andonik eta
Maitek? Zeren izenean desber-
dintasun hori? Hori da Eskola
Publikoak sorreratik zuen
printzipio nagusietako bat
(herritarren baliabide desber-
dintasunak konpentsatzea)
aplikatzeko modua?

Ala, uste duzu gurasoei ez
zaiela kobratu behar eta
baliabide gutxiagorekin bete
behar dituela A ikastetxeak B
ikastetxearen konpromiso
berak?

Kataluniako Hezkuntza
Paktuan dio Kontzertua dela
herritarrei aukera berdintasuna

eta doaneko hezkuntza berma-
tzeko bitarteko bat, eta, horreta-
rako, ikastetxeko gastu guztiei
egin behar diela aurre.

Hori da aukera berdintasun-
a aplikatzea. Bestea da
batzuei zenbait pribilegio
eskaintzea administrazioaren
titularitateko ikastetxea
aukeratu dutelako edo admi-
nistrazioak bere titularitateko
ikastetxera bidaltzeko "zortea"
izan dutelako.

Nik ere, honenbestez,
nahiko.

Esker ona

Mikel Lopez de Arkaute

(Iturrigorri Elkarlan Elkarte)
Debagoiena

Orain dela hilabete batzuk,
hezur muin emaile egin nahi
duten pertsona guztiei beraien
ematea errazteko asmoarekin
lanean hasi ginen Iturrigorriko
elkartekideok, eta bazela garaia
iruditu zaigu, bai Arrasateko
herritarrei, eta baita Debagoie-
neko herritar guztioi esker ona
emateko.

Hasteko, urte honetako
urtarril bukaeran, bailarako
zenbait enpresatan, aste baten
buruan batu ziren 3.500 sinadu-
rak eman zituztenei, Osakide-
tzari Arrasateko ospitalera
hezur muin emaile egin ahal
izateko zerbitzua ekar zezala
eskatuz; Osakidetzak eskaera
honi eman zion ezetza zela
medio sortu zen Iturrigorri
elkartea.

Apirilean, Txirri Mirri eta
Txirribiton-en emanaldira etorri
ziren guztioi ere eskerrak eman
nahi dizkiegu, beraiengatik izan
baitzuen emanaldi honek hain
emaitza ona.

Ekainean Mendizorroztan
eta Anoetan futbol partiduetan
guk egindako triptikoak banatu
zituzten, eta San Mames
kanpoaldean guk banatu
genituen, jendea arazo honetaz
kontzientziazteko asmoarekin.

Ekainean bertan, Eusko
Legebiltzarrean egon ginen,
osasan batzordearekin, Osaki-
detza mugiarazteko asmoare-
kin, harrera hona eduki genuen,
baina ez dugu oraindik Osakide-
tzak Arrasateko ospitalera
zerbitzu hori ekartzerik lortu,
baina lanean dihardugu.

Eta azkenik, irailaren 29ko
emanaldian parte hartu zuten
guztiei eta bertaratu ziren
denei, eskerrik asko, eta batez
ere, Goikobaluko kideei,
Arrasate Musikal Big Band,
Belcebues eta ETBko *Mi querido
Klikowsky* telesaioko aktoreei,
guztiei, benetan asko eskertu
beharreko ahalegina egin
baitzuten, pertsona ugari
hartu zuen parte bertan beraien
denbora librean, eta ez ahazteko
modukoa da hori. Guk gure
partetik gure helburuetan tinko

mantentzeko asmoarekin
jarraitzen dugu, ikusirik
gainera jendearen laguntza
badaukagula, espero dezagun
laster Arrasaten urte hasieran
eskatutako zerbitzua izatea, eta
batez ere, Euskal Autonomia
Erkidego guztiko hezur muin
emaria, munduko beste herrial-
de batzuen mailaraino igotzea;
beste emate batzuetan munduko
lehenak gara, odol eta organo
ematean, esaterako. Zergatik ez
hezur muinean?

Gure helburua Euskal
Autonomia Erkidegoan 50.000
emaile izatea da, eta lanean hasi
ginenetik emaile kopurua
bikoiztu egin da, lehen %0,6koa
zen eta orain %0,12ra heldu
gara, gure helburutik urrun,
baina bidea egiten goazela
ikusten dugu.

Gonbita

Amaitze Agirre (Etxerat)

Arrasate

Zuengana zuzentzen gara beste
behin ere, gure herriko presoen
egoera plazaratzeko asmoz.
Garai gogorak bizi ditugu,
horren adibide dira Gaizka
Olabarrieta zein Gorka Aztiria-
ren espetxeratzea, Luis Mari
Azkargorta *Kanto*-ren zigor
luzapena, hainbat urtetan gure
herrikide izan den Lander
Labajo *Gufi*-ren atxiloketa...

Hala ere, gaixo dauden
presoak ekarri nahi ditugu
gogora gaurkoan. Ezartzen
dieten espetxe politika oso
krudela da eta behin eta berriz
eskatzen ditugun osasun
baldintzak ukatuak dira.
Horren adibiderik gordinenak
herrian bertan dauzkagu, Jon
Agirre eta Josu Uribebarria.

Jonek artrosi orokortua (bi
aldakak ukituak). Hernia
diskala L4-L5en artean. 2005ean
egin zioten eskuineko aldakako
ebakuntza: protesi bat ezarri
diote. Diabetes Mellitus 1998an
diagnostikatua. Horren ondo-
rioz: alde biko miopia,
hiperkolesterolemia,
hiperglizeridemia eta miokar-
dioko bihotzema larriaren
arriskua. Honetaz gain, esku-
ineko eskuko Dupuytre gaixota-
suna.

Josuk, ostera, giltzurruneko
minbizia. Ezker giltzurruneko
kartzinoma. 2005/06/09an
nefrektomia bat egiten diote:
ezkerreko giltzurruna kentzen
diote. Ondorioz, aldiro aldiko
kontrolak egin beharko ditu
urologiako kontsultan; bizitza
osorako tratamendua da. Egoera
hau (espetxearena, alegia),
noski, ez da egokiena gisa
honetako gaixo batendako:
espetxean jarraituz, kanpoan
egonik baino arrisku larriagoa
du gaitza berpiztu dadin. Bestela
ere, 2 urtetan gaitza berpizteko
arriskuaren aukera %51koa da.

Biei ere 92. artikulua
hainbat aldiz ukatu diete eta
Langraitzeko erietxean daude.

Hau guztia salatzeke, gaur,
urriak 26, arratsaldeko 7,30etan
herriko plazan burutuko den
elkarretaratzea etortzeko
gonbita luzatzen dizuegu
Etxeratetik.

Ez gure estiloa

Uxue Zabaleta Arin

Bergara

Hainbat modu daude kale bat
girotzeko. Txaranga batek
zoruko harlauzak ere dantzan
jarri ditzake. Trikitilariak kale
kantoiak alai eta kontent utzi
ditzakete. Batukada batek, ume
kantuek, jolasek, mozkor kantu-
kantariak... Hauek guztiek
ederki girotu dezakete kale bat.
Eta Ertzaintzak? Girotu dezake
kalea? Bergaran duela hamabost
egun egiaztatu genuen ertzainek
ere girotu dezaketela kalea, ondo
girotu ere. Baina ez da guri
gustatzen zaigun giroa, ez da
guk Bergararako nahiko
genukeen giroa. Larunbat gau
bat zapuztu besterik ez zuten
egin, parranda bat oztopatu,
tentsioa sortu bakea zegoen
kaleetan. Emaitza tamalgarria
utzi zuen, gainera, interbentzio-
ak: atxilotu bi, jipoiak, zauri-
tuak, salaketa bat...

Zirkutat jo liteke beraien
jarduna, baina barreen orde
malkoak sortzen dituen zirkua.
Gau hartan bazirudien poliziek
lehoizat zutela euren burua,
ederto egiten zuten orroa
behintzat! Nik, berriz, errepika-
tzen dut ez dugula lehoirik
behar orroka Bergarako
kaleetan. Are gutxiago, lehoiak
kasko gorritz jantzita badaude.
Lehoiak Afrikan eta ertzainak...
horrelako jarrerarekin hobe
daude etxean. Soilik espero dut
tamalez horrenbeste errepika-
tzen diren jarduerak behingoa-
gatik gelditzea, poliziak gorro-
toz orde profesionaltasunez
jokatzea.

Amaitzeko, nire elkartasuna
adierazi nahi diet larunbat beltz
hartan atxilotu eta salatu
zituzten bi lagunei. Zuekin
gaude, herritarrok badakigu ez
zenutela ezer egin eta lehoien
orroek ez gaituzte beldurtzen.

Eskerrik asko

Karme Agirregabiria

Bergara

Kilometroak 07 jaian tonbola
antolatzen ibili den batzordea-
ren izenean eskerrak eman nahi
dizkiegu oparitan zein dirutan
laguntza eman diguten guzti-
guztiei. Haiengandik izan ez
balitz ez litzateke hain arrakas-
tatsua izango Kilometroak 07ko
tonbola.

IRAKURLEAREN GUTUNAK Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 50 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. GOIENKARIAk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.



Barrenkalea 33
20570 BERGARA



Telefonoa:
943 25 05 01



Faxa:
943 25 05 13



Posta elektronikoa:
goienkaria@goiena.com

Txartel bat bezain bizkorra den kreditua

Txartel itxura dauka, baina txartel hutsa baino askoz ere gehiago da. Hain da kreditu azkarra non ez dagoen eskatu beharrik ere. Poltsikoan eraman dezakezu. Eta era guztietako erosketak finantzatzeko balio dizu.

Zeuk erabakiko duzu noiz eta zenbateraino erabili, baita diru hori nola itzuli nahi duzun ere. Itzultzen duzun kopurua berriz ere erabilgarri izango duzu zure txartelean. Berehala, eta era iraunkorrean.

Eskura ezazu zeure **MasterCard Txartel Urdina, 901 333 555** telefono-zenbakira deituta. Hartara, zernahitarako kreditua izango duzu.

MasterCard Txartel Urdina



zer nahi duzu bihar?

www.kutxa.net

 **kutxa**



LORTU DUGUNAREN SEINALE



Asko da egiteko duguna
baina 10 urte
hauetako emaitzak
begi bistakoak dira

ESKERRIK ASKO
LANA EUSKALDUNTZEKO
DINAMIKAN MURGILDUTA
ZAUDETEN GUZTIOI

10 URTE
...11
egun
hartu eta EMUN

ESKERRIK ASKO
GUREKIN IZAN ETA IZANGO ZARETEN GUZTIOI

EE EMUN
NE LANA EUSKALDUNTZEKO
KOOPERATIBA

Informazio gehiago: www.emun.com/10urte
www.lantalan.com

Herriak

Arrasate > 18-23 Bergara > 24-29 Aretxabaleta > 31-32 Oñati > 33
Eskoriatza > 34-35 Antzuola > 36 Aramaio > 37 Elgeta > 38 Leintz Gatzaga > 39



> **ARRASATE**
Ilusioa euskaraz kanpaina, herriko euskalgintzaren eskutik > 19



> **BERGARA**
Historia lanak bultzatuko ditu Udaleko Artxiiboak > 25



> **ARETXABALETA**
Kulturarako eraikina: zelan dinamizatu aztertzen ari dira > 31



> **ESKORIATZA**
Udalak eta Bidegik hamabostean behin egingo dituzte bilerak > 34

OSASUNA > OSAKIDETZA, SAREAN

Osakidetza: telefonoak aise irabazten dio Interneti txanda hartzeko orduan

INTERNET

Familiako mediku zein pediatria zerbitzuetarako txanda hartzeko aukera dago

ZORTZI HILABETE

'www.osanet.net' helbidera oraindik jende gutxi jotzen du

LAN UGARI

Uda ostean lan ugari izan dute ibarreko anbulatorioetan

EDU MENDIBIL > BERGARA

Familiako mediku zein pediatria zerbitzuetarako txanda Interneten eskatzeko aukera eskaintzen du Osakidetza azken hilabeteotan: www.osanet.net da abian jarritako webgunea. Anbulatorioetan goizetan jasotzen diren telefono deiak gutxitzea eta herri-tarrei gauzak erraztea da helburuetako bat. Hala ere, oraindik ere askok ez dute zerbitzu berria ezagutzen eta saretik txanda eskatzen dutenak gutxiengoa dira. Santiago Ayeche Oñatiko anbulatorio-ko arduradunaren hitzetan, "%2 izango dira sarera jotzen dutenak medikuaren txanda hartzeko. Baina gauza positiboa da gaixoei gauzak erraztea. Kontuan izan behar da adin bateko jendea ez dagoela oso trebatuta teknologia berriekin, baina poliki-poliki joango da jendea ohitzen". Ayechuk emandako datuen arabera, egunean 350 txanda inguru ematen dituzte Oñatiko anbulatorioan. Familiako mediku eta pediatria zerbitzuez gainera, erizainengana, sendatze gelara edota *elektroak* egitera joaten direnak kontuan hartuta.

TELEFONO DEI UGARI

Bergarako anbulatorioan, telefonoa jo eta jo izaten dute goizean goizetik. Iñaki Urgoitia da Ber-



ANBULATORIOA Txanda gehienak telefonoz ematen dira oraindik. Bestalde, www.osanet.net helbidearen akatsak salatu dituzte hainbat erabiltzailek.

GOIENKARIA

garako anbulatorioiko arduraduna. Hark hauxe esan digu: "Batuetan telefono deiak hartzeko larri ibiltzen gara, harrera gelakoek beste zeregin batzuk ere badituztelako. Edozein modutan,

aukera ona da txanda Internetetik gestionatu ahal izatea. Egin izan dira kanpaina batzuk horren berri emateko, baina beharbada eragina ez da bat-batekoa izan, normala denez. Gauza hauek den-

bora behar dute, eta jendea joango da ohitzen".

Kontuak kontu, lan ugari daukate urteko sasoi honetan ibarreko osasun etxeetan. Santiago Ayuchok hauxe azpimarratzen du:

"Udan beherakada igartzen dugu, baina udazken partean eta negu partean jasotzen ditugu gaixo gehien, gripearen aurkako kanpainagatik eta bestelako patologiangatik, besteak beste".

Gripearen kontrako kanpaina datorren eguaztenean, urriaren 31n, amaituko da

Gripearen kontrako kanpaina irailaren 24an jarri zuen abian Osakidetza eta urriaren 31n amaituko da. Osakidetza emandako gomendioen arabera, txertoa jasotzea komeni zaien arrisku taldeak honakoak dira: 65 urtetik gorakoak, diabetikoak eta gaixotasun kronikoren bat dutenak (biriketakoak, bihotzekoak, gibeletakoak, giltzurrunekoak edo immunodeprimituak). Ibarreko anbulatorioetan kanpaina ondo doala diote, iazko antzera. Esaterako, Edurne Marañon Arrasateko anbulatorioiko arduradunak esan digunez, Arrasaten gripearen aurkako 4.300 txerto jaso zituzten eta horietatik 3.930 dagoeneko ipinita dituzte. Beraz, 370 txerto besterik ez da geratzen. Azken egunotan jende gehiagok jo du osasun etxeetara txertoa hartzera, lehenbiziko egun hotzekin ohartuta beharbada. Kanpaina, esan bezala, hurrengo eguaztenean, urriaren 31n, amaituko da. Dagokion herrian aurretik txanda eskatzea beharrezkoa da txertoa hartu ahal izateko.



Gripearen aurkako txertoa jasotzeko txanda eskatu behar da aurretik.

ARTXIBOA

zerbitzuak

GUARDIAKO FARMAZIAK

ARRASATE

Egubakoitza, 26	Irizar	Erguin 15	943 79 12 39
Zapatua, 27	Amezua	Santa Marina 32	943 79 09 74
Domeka, 28	Español	Araba Etorbidea 14	943 79 18 65
Astelehena, 29	Ruiz	Maalako Errebala 31	943 79 14 09
Martitzena, 30	Etxeberria	Zarugalde 42	943 77 16 30
Eguaztena, 31	Azkoaga	Ferrerias 1	943 79 15 15
Eguena, 1	Azkoaga	Iturriotz 17	943 79 79 99

BERGARA

Egubakoitza, 26	Mozos	Iparragirre 2	943 76 12 15
Zapatua, 27	Urritikoetxea	Oxirondo 4	943 76 11 74
Domeka, 28	Urritikoetxea	Oxirondo 4	943 76 11 74
Astelehena, 29	Zabala	Barrenkale 25	943 76 16 87
Martitzena, 30	Guallar	San Antonio 5	943 76 11 05
Eguaztena, 31	Estella	Matxiategi 5	943 76 19 63
Eguena, 1	Mozos	Iparragirre 2	943 76 12 15

OÑATI

Egubakoitza, 26	Garate	Kale Barria 42	943 78 05 58
Zapatua, 27	Garate	Kale Barria 42	943 78 05 58
Domeka, 28	Garate	Kale Barria 42	943 78 05 58
Astelehena, 29	Juldain	Kale Barria 6	943 78 11 28
Martitzena, 30	Juldain	Kale Barria 6	943 78 11 28
Eguaztena, 31	Anduaga	San Lorenzo 3	943 78 21 16
Eguena, 1	Barrenetxea	Kale Zaharra 1	943 78 01 22

ARETXABALETA

Egubakoitza, 26	Juan Fraile	Herriko Plaza 10	943 79 21 99
Zapatua, 27	Juan Fraile	Herriko Plaza 10	943 79 21 99
Domeka, 28	Juan Fraile	Herriko Plaza 10	943 79 21 99
Astelehena, 29	Iturralde	Belorrieta auzoa 1	943 08 11 43
Martitzena, 30	Iturralde	Belorrieta auzoa 1	943 08 11 43
Eguaztena, 31	Iturralde	Belorrieta auzoa 1	943 08 11 43
Eguena, 1	Iturralde	Belorrieta auzoa 1	943 08 11 43

TELEFONO JAKINGARRIAK

((112))
SOS DEIAK

OSASUNA ETA LARRIALDIAK

Osakidetza (Larrialdia).....	943 46 11 11
DYA (Antzuola).....	943 78 71 57
Gurutze Gorria (Elorregi).....	943 76 55 76
Suhiltzaileak.....	943 78 28 00
Ertzaintza.....	943 53 47 20
Osasun Etxeak	
Arrasateko ospitala.....	943 03 53 00
Antzuola.....	943 76 62 23
Aramaio.....	945 44 53 40
Aretxabaleta.....	943 71 19 59
Bergara.....	943 03 54 00
Elgeta.....	943 03 54 00
Eskoriatza.....	943 71 44 52
Leintz Gatzaga.....	943 71 47 46
Oñati.....	943 03 54 30
Udalzaingoak	
Antzuola.....	943 76 62 46
Arrasate.....	943 79 14 39
Aretxabaleta.....	943 71 18 63
Bergara.....	943 77 91 06
Eskoriatza.....	943 71 44 07
Leintz Gatzaga.....	943 71 47 46
Oñati.....	943 78 04 11

GARRAIOAK

PESA.....	902 10 12 10
Taxiak	
Arrasate.....	943 79 12 22
Aramaio.....	945 44 50 33
Aretxabaleta.....	943 77 12 64
Bergara.....	943 79 12 22
Eskoriatza.....	943 71 40 59
Oñati.....	943 78 03 65

DEBAGOIENA

Mankomunitatea.....	943 79 33 99
Hiltzgia (Zubillaga).....	943 78 15 12
Nekazaritza ganbera.....	943 76 10 15
Zerga Bulegoa.....	943 76 58 63
Hondakindegai alternatiboak	
Arrasate.....	943 77 11 43
Bergara.....	943 76 44 42
Oñati.....	943 78 36 67

Kiroldegiak

Aramaio.....	945 44 53 35
Arrasate.....	943 77 16 77
Aretxabaleta.....	943 71 26 28
Bergara.....	943 76 56 41
Elgeta.....	943 76 82 84
Eskoriatza.....	943 71 53 28
Oñati.....	943 71 63 75

Kultura Etxeak

Antzuola.....	943 76 60 65
Aramaio.....	945 44 53 74
Arrasate.....	943 77 01 05
Aretxabaleta.....	943 71 10 27
Bergara.....	943 77 91 58
Eskoriatza.....	943 71 46 88
Leintz Gatzaga.....	943 71 47 46
Oñati.....	943 78 03 53

Udalak

Antzuola.....	943 76 62 46
Aramaio.....	945 44 50 16
Arrasate.....	943 79 09 00
Aretxabaleta.....	943 71 18 62
Bergara.....	943 77 91 00
Elgeta.....	943 76 80 22
Eskoriatza.....	943 71 44 07
Leintz Gatzaga.....	943 71 47 46
Oñati.....	943 78 04 11

URBANOAK

ARRASATE

Gorostizatik Eroskira (2 Linea)
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.

Eroskitik Gorostizara (2 Linea)
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.
IBILBIDEA: Eroski, J. Bengoa, S. Teresa, C. Obreiro, Obenerreka, Makatzena, Iñarra, S. Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.

Gorostizatik Eroskira (1 Linea)
08:30, 09:30, 10:30, 11:30, 12:30, 13:30, 14:30, 15:30, 16:30, 17:30, 18:30, 19:30, 20:30 eta 21:30.
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Zarugalde, Muxibar, S. Frantzisko, Iñarra, Makatzena, Obenerreka, C. Obreiro, Galizia, Bengoa eta Eroski.

Eroskitik Gorostizara (1 Linea)
08:05, 09:05, 10:05, 11:05, 12:05, 13:05, 14:05, 15:05, 16:05, 17:05, 18:05, 19:05, 20:05 eta 21:05.
IBILBIDEA: Eroski, Musakola, Legarre, Maala, Ospitalea, Garibai, San Andres, Arimazubi, Alecop, Uribarri, Erguin A eta Gorostiza.

BERGARA

San Lorentzo/San Juandik irteerak
07:00, 07:55, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:40, 13:30, 14:10, 16:00, 16:40, 17:20, 18:00, 19:00, 19:40 eta 20:20. Geralekuak: S. Juan (Torunsa), Amillaga (Manso), S. Lorentzo (Sorluzen), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zurradero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet), Labegaraieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.

Labegaraieta/Olabarrenetik irteerak
07:20, 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:50 (Olatik), 14:25 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:35, 18:25, 19:20, 20:00 eta 20:30. Geralekuak: Labegaraieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoioia (Mintegi), San Pedro, Arruriaga (Konde), Zubieta, Mugertza, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.

ARAMAIOKO AUTOBUSA

Arrasate	Aramaio	Gasteiz
07:00	07:15	08:00
10:00	10:15**	
11:00	11:15	
12:00	12:15**	13:00
15:15	15:30	16:15
17:20	17:35	
18:30	18:45**	19:30
19:00	19:15	
21:10	21:25**	
Gasteiz	Aramaio	Arrasate
08:30	07:50	08:05
	09:00	09:15
	10:15	10:30
	11:15	11:30
13:10	13:45	14:10
16:20	17:00	17:20
	17:35	17:50
	19:15	19:30
19:30	20:10	20:25

Izardun orduak, eskaeraren arabera, auzoeta-koendako. Bezperan deitu: 629 54 59 23

eguraldia

DEBAGOIENEAN



Zapatua, 27

Zapatuan eguraldiak nabarmen egingo du hobera. Goizak aurrera egin ahala jasotzera egingo du, ostarteak zabalduz.




Domeka, 28

Goizean goiz lainoak estaliko ditu hainbat haran eta goizaldean hodei-hondarrak mantenduko dira. Hala ere, jasotzera egingo du.

EUSKAL HERRIAN

Zapatuan tenperaturak gora egingo du eta beroenak 16-18 °C-ra hurbilduko dira eta arratsaldean zerua ia erabat garbi ikusiko dugu. Domekan antzeko eguraldia izango dugu: goizean hotz izango badugu ere, tenperaturak epelduz joango dira eguerdi parterako.



oharrak eta deialdiak

BERGARA

>1930ean jaiotakoek bazkaria egingo dute

Azaroaren 10ean egingo dute, Zumelagan. 14:00etarako argazkia egiteko hitzordua egin dute, olibondoen plaza-txoan. Izena emateko deitu 943 76 15 88 edo 943 76 22 22 zenbakietara.

BERGARA

>1945ean jaiotakoek aforia egingo dute

Azaroaren 17an egingo dute, Azpeitxi jatetxean. Izenematea da 40 euro, Kutxan. Informazio gehiago: 943 76 34 58 (Rosarito).

BERGARA

>1966an jaiotakoek aforia egingo dute

Azaroaren 24an egingo dute, Torrekuana. Izena emateko jo Ariznoara azaroaren 19a baino lehen -10 euro aurreratu behar dira-. Afari egunean 19:30ean elkartuko dira Ariznoan.

BERGARA

>1935ean jaiotakoek bazkaria egingo dute

Zumelaga jatetxean egingo dute, azaroaren 25ean, 14:30ean. Izena emateko 12 euro aurreratu behar dira Euskadiko Kutxan azaroaren 20a baino lehen.

BERGARA

>1934an jaiotakoek bazkaria -1955eko kintoak-

Azaroaren 11n egingo dute, Zumelagan. 14:00etan txikiteoa egingo dute eta baita argazkia atera ere. Bazkaria

14:45ean izango da. Izena emateko jo Zumelaga jatetxera. 12 euro aurreratu behar dira.

BERGARA

>Turismo bulegoa laster zabalduko dute

Urriaren 31n zabalduko dute, hain justu, eta azaroaren 4ra arte egongo da zabalik. Orduetgia izango da: lanegunetan, 10:30-14:00 eta 16:30-19:30 eta domeka eta jaiegunetan, 11:30-14:30. Bisitaldi gidatuak doan egingo dituzte.

BERGARA

>1943an jaiotakoek aforia egingo dute

Azaroaren 24an egingo dute, Azpeitxin. Izena emateko deitu 943 76 16 13 (Arantza Askasibar) edo 943 76 53 22 (Juan Antonio Fernandez) zenbakira azaroaren 22a aurretik.

ELGETA

>2-12 urte bitarteko umeendako izenematea zabalduko dute

ANTZUOLA

>Herriko jaietan antzeztutako euskal ezkontzaren gaineko DVDa salgai jarri dute

Anelkar elkartean taldeak salgai jarri du uztailaren 14an eta 15ean hainbat herritarrek antzeztu zuten euskal ezkontzaren DVDa. Zazpi euroko prezioan jarri dute salgai eta eskura daitezke Izar liburu dendan. 50 DVD kaleratu dituzte. Ezkontzako grabazioak gain, argazkiek eta soinu bandak osatzen dute DVDa.

943 25 05 01

goienkaria@goiena.com

TENPERATURAK

MINIMOA

Astelehena, 22

3 °C

MAXIMOA

Egubakoitza, 19

20 °C

ASTEKO

EURIA (l/m²)

7,1 L

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 17	23 °C	10 °C	0,3 l/m ²
Eguena, 18	17 °C	12 °C	- l/m ²
Egubakoitza, 19	20 °C	9 °C	- l/m ²
Zapatua, 20	20 °C	6 °C	- l/m ²
Domeka, 21	21 °C	4 °C	- l/m ²
Astelehena, 22	20 °C	3 °C	0,9 l/m ²
Martitzena, 23	16 °C	11 °C	5,9 l/m ²

Bergarako San Juan auzoan jasotako datuak.

ILARGIA URRIAN

Ilbehera 3	Ilberri 11	Ilgora 19	Ilbete 26

ONCEko kioskorra. Izenematea da 15 euro.

ARRASATE

>Nortasun agiria egiteko aukera egongo da BAZen

Urriaren 30ean eta azaroaren 6an eta 28an egingo dute BAZen. Horretarako txanda hartu beharko da BAZen bertan urriaren 26tik aurrera. Nortasun agiri hori ez da elektronikoa izango.

ARRASATE

>1957an jaiotakoek bazkaria egingo dute

Azaroaren 24an egingo dute, Baster-Alden -joateko autobusa egongo da-. Izena emateko 50 euro sartu behar dira Euskadiko Kutxan: 3035 0047 16 0471068086 -izena eta bi abizenak zehaztu-. Izena emateko azken eguna da azaroaren 17a.

BERGARA

>1971n jaiotakoek aforia egingo dute

Azaroaren 10ean egingo dute, Agorroren. Interesatuek izena eman behar dute azaroaren 3a baino lehen, Maxim's edo Deportivo tabernan -20 euro aurreratu behar dira-.

BERGARA

>1933an jaiotakoek bazkaria egingo dute

Azaroaren 18an egingo dute, Zumelagan. 13:00etan meza egongo da. Izenematea da Intxortan, sei euroren truke.

kale inkesta

Zer iruditzen zaizkizu kiroldegian egindako berrikuntzak?



Santi Rodriguez
Langilea
Oñati



Bego Akizu
Langilea
Oñati



Janire Diaz
Ikaslea
Oñati



Rosario Aiastui
Langilea
Oñati



Iker Larral
Langilea
Oñati

Ondo iruditzen zait kiroldegiko berrikuntza. Herriaren onerako den guztia positibotzat hartu behar da. Gainera, Oñatiko herriak berritzea behar zuen, jende asko etortzen delako bertara.

Ondo ikusten ditut berrikuntzak, baina badirudi barruko kantxa berriak ez dituela neurriak betetzen. Bestalde, harmailarik ere ez dago eta ikusleak ezin dira bertan egon, baina asmoa ona da.

Ondo iruditzen zait. Gainera, nik partidu asko jokatzeko ditut hemen, eta orain gusturago etorriko naiz. Pena da harmailarik ez egotea, baina orokorrean egokia ikusten dut berrikuntza.

Iniziatiba bezala ondo dago, herriarentzat ona da. Nahiz eta oraindik ez dudan ikusi, badirudi bertara joan direnak ez daudela oso gustura bertako kantxaren neurrietan.

Idea ona zen, baina proiektua ez da ondo irten. Diru asko gastatu dute kristalak ipintzen. Takillak ere ez dira bate-egokiak, eta harmailarik ere ez dago ikusleentzat.

txaloak eta txistuak



GOIENKARIA

Zerrajera amaierako zebrabidea



Asko dira astean zehar eta asteburuetan Bergarako Labegaraietako auzo inguruko bidegorrian paseatzen ibiltzen direnak. Irakurle batek haxe salatu nahi izan du horren inguruan: bidea pasatu nahi dutenek arrisku handia dutela zebrabide horretan, bihurtzeko baten ondoren dagoelako eta ikuspena eskasa delako Arrasate aldetik datozen automobilentzat.

asteko datua

1

Hori izango da datorren zapatetik domekarako goizaldean guztion ordularietan atzeratu beharko den ordu kopurua. Hain justu ere, 03:00etan izango dira 02:00ak. Ordu bat gehiago izango dugu lo egiteko, hortaz.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria

5 galdera...

Txaro Beobide

Katxalin elkarteko lehendakaria

1. Bularreko minbiziaren aurkako kanpaina abian da; zein da helburua?

Norberaren osasuna zaintzeko, pertsona hezi beharra dago. Programa hori 50 eta 69 urte bitarteko emakumeei zuzenduta dago. Hasierako lana beti da jendea sentsibilizatzea, emakumeari erakustea inoiz ez duela burua makurtu behar horrelako kasuetan. Hori da oinarritzeko helburua, eta baita ere herrietan elkarteak egiten dituen hitzaldietara joatea eta parte hartzea.

2. Zein da Katxalin elkarteak egiten duen lana?

Emakumeei laguntzea minbiziaren aurka borrokatzen eta dituzten beldurrak alde batera utzi eta gaixotasunari aurre egiten laguntzea.

3. Prebentzioa lehen baino handiagoa al da?

Prebentzioa berez ezinezkoa da, baina lagundu egin daiteke nork bere gorputza esploratzen erakutsita. Hori oso garrantzitsua da. Izan ere, emakume askok gorputza esploratzean koskorrak topatu dituzte.

4. Bularreko minbizi kasuak gutxitu egin daitezke?

Bai, gutxitu egin daitezke elkartearekin batera lan egiten eta herrietan egiten diren kontrolatara joanda. Hori da benetako prebentzioa, eta horrek gutxi ditzake bularreko minbizi kasuak.

5. Nola ikusten duzu etorkizuna?

Gero eta hobeto ikusten dut etorkizuna. Jendeak gero eta informazio gehiago dauka, komunikabideen aldetik, konferentzien bidez... Medikuntzan ere aurrerapauso garrantzitsuak ematen dira egunero, medikamentu eta tratamendu berriekin, eta itxaropentsu egon behar dugu horren aurrean, kontuan hartuz minbizi guztiak ez direla berdinak eta, beraz, ez dutela tratamendu bera, baina geroz eta hobeto konpontzen direla.



ustek uste

Iker Barandiaran

Ohiturak aldatzen dabilta

Gogoan daukat nire amonetako bat egunero joaten zela meza entzutera; gainontzeko aitona-amonak, ordea, astean behin joaten ziren, domeketan. Ohitura, fedea edo bien nahasketa zen ez nuen inoiz benetan jakin. Baina hala egiten zuten.

Gerora, ezagun da eurak baino gazteagoak diren gehienak elizkizun berezi edo hiletetara joaten direla mezetara. Eta gazteen artean, kasu gehienetan, ezer gutxi.

Proporzio antzekoan gero eta jende gutxiago egiten da moja edo apaiz. Hori hala izanda, aspaldian larri dabilta Arrasateko parrokiaren meza emateko On Jenaro Lekuona gaixotu zenetik, ordezkorik ez dutelako. Eskoriatzako elizateetan ere txandatuta ematen dituzte mezak, gaur egun ezinezkoa baita, lehen moduan, elizate bakoitzean abade bana izatea.

Norberak gura duen sinesmenak izan ditzake, eta egia da borondate handiko eliz-gizon eta eliz-emakumeak izango direla, baina Eliza Katolikoa irudikatzen duen erakundeak ez dit inolako penarik ematen. Txoltoa bukatzea doala esan dezakegu. Orain soberan dituen jabegoak herritarren artean banatu beharko litzuzke.

ZERBITZUAK > URIBARRIKO ZAHARREN EGOITZA

Uribarriko zaharren egoitza oraingo astean zabaldu dute

Uztailaz geroztik itxita izan da, egoitza kudeatzen zuen langilea falta zelako

U.M. > ARRASATE

Uribarriko auzotarren pozerako, oraingo asteko martitzenean zabaldu dute auzoko zaharren egoitza. Hura ustiatzeko langile berria aukeratu zuen Udalak astelehenean eta martitzenean bertan lanean hasi eta egoitza zabaldu egin zuten: "Presazkoa zen egoitza ahalik eta lasterren zabaltzea, uztailetik itxita dago eta. Uztailean hango langileak lana utzi egin behar izan zuen, abuztua etorri zen gero, eta ezin izan genuen ezer abiarazi. Gero, presazko prozedurarekin lehia-keta deitu genuen eta oraingo astean esleitu egin dugu zerbitzua", azaldu du Iñigo Garitanok, Udaleko Gizarte Zerbitzuen Saileko teknikari buruak.

LAU URTERAKO

Langile berriari lau urterako ustiapena esleitu diote. Honako baldintzak bete beharko ditu, bestelakoan artean: egoitza zabaldu beharko du astelehene-tik egubakoitzera 10:30etik 13:30era eta 15:00etatik 21:30era. Zapatu, domeka eta jai egunetan, berriz, 11:30etik 14:30era eta 16:00etatik 22:00etara. Horrez gainera, egoitza zabalik izan beharko da urte osoan, 20 egunez izan ezik. 20 egunetako horietatik 10 derrigor izan beharko dira abuztuko oporraldian.

EZINGO DA ERRE

Bestalde, beste baldintza bat bete beharko duela ere azpimarratu gura dute Udaletik: "Ea lortzen dugun erretzearen debekua errespetatzea. Orain bi urte erabaki genuen Arrasateko erretiratuen egoitzetan ezin izango zela erre, baina Uribarrikoan ez dute orain arte errespetatu. Orain, berriz, borondatea badago hori betearazteko".

> AISIALDIA

Bihar, Seber Altube plazan sormen tailerra egingo dute, 2 urtetik gorakoei zuzendutakoa

Gaztetxoeren sormena bultzatzeko helburuarekin, eskulanak egiteko aukera izango da bihar Seber Altuben, Txatxilipurdi elkar-tearen eskutik. 2 urtetik aurrerako neska-mutikoei zuzendutako ekimena da. 11:30ean hasi eta 13:30ak arte, haimak ipiniko dituzte Seberren eta jai-giroan eta hezitzaileek lagunduta, materiala banatuko dute neska-mutikoen artean haiek eskulanak egin ditzaten. Larunblai egitasmoaren baitan antolatutako ekimena da.

MONTSERRAT TABERNAN LATINDAR JAIK!

Zapatu guztietan 23:00etatik aurrera!

Salsa
Merengue
Bachata
Reggaeton...

Arrasateko institutoaren ondoan gaude,
Santa Teresa kalean!

Anima zaitez!!

S. CARRASCAL S.L.

Guk egindakoak:

- Sukalde altzariak
- Horma-armairuak
- Trastelekurako armairuak

Erakusketa berria

Ekutio kalea pab. 14-15
Uribarri auzoa 4
Tel. faxa: 943 79 01 82

UGARTE

Industria
hornidurak

San Andres auzoa 2. 5-6
Pab.
Tel.: 943-71 21 41
Faxa: 943-71 21 40



DENETARIK Azokan Arrasaten ekoiztutako orotariko produktuak izaten dira; baina bereziki barazkiak izaten dira. GOIENKARIA

GIZARTEA > ARRASATEKO BASERRITARREN AZOKA 2007

Arrasateko baserritarren azokan izena emateko epea ixtear dago

Biteri plaza utzi, eta aurten baserritarren azoka betiko lekura bueltatuko da: Seber Altubera; Biterin hotz eta korronte handiagoa dago

UBANE MADERA > ARRASATE

Laugarren aldiz, Arrasateko Udalak herriko baserritarren azoka antolatu du. Azaroaren 10erako egin dute hitzordua. 08:00ak aldera iritsiko dira baserritarrak. 09:00etan zabalduko dituzte postuak eta 14:00ak bitartean izango dira azokan, lehena-go produktuak saltzen ez badira, behintzat.

Egitasmoaren izenak dioen moduan, herriko baserritarrek parte hartu ahal dute azoka horretan, Arrasaten produzitutako produktuekin, hain justu ere. Helburua horixe da-eta, Marga Garmendia udal teknikariak aditzera eman duen moduan: "Arrasaten ekoiztutako baserriko produktuei bultzada ematea da hel-

burua. Horregatik, ekimena dago zuzenduta nekazaritza arloan jarduten duten arrasatearrei".

IZENA EMATEKO, UDALERA

Azoka horretan parte hartzeko nahikoa da Udaleko Enplegu Zerbitzura jotzea (943 25 20 70, Marga Garmendia). Hori bai, adi ibiltzea ere komeni da, izena emateko epea datorren eguaztenean itxiko dute-eta.

Garmendiak jakinarazi duenez, dagoeneko hasi dira parte-hartzaileen izenak hartzen: "Oraingoz poliki dabil jendea etortzen; badakizue, halakoetan azken orduan etortzen da bereziki jendea izena ematera". Edozelan ere, jakinarazi du Udaletik 12 bat postu espero dituztela.

BITERIN BARIK, SEBER ALTUBEN

Bestalde, azken hiru urteotan Seber Altuben egin dute azoka. Laz, berriz, Biteri plazaren inaugurazioarekin bat egin eta Biterin bertan egin zuten azoka. Baina han haize korronteak daude eta hotz handiagoa ere bai, eta aurten Seberrean bueltatuko direla erabaki du Udalak: "Aurten baserritarrekin elkartu garen esan digute eurek gurago zutela Seber Altube, Biteri oso leku hotza eta korrontetsua delako eta, gainera, euria eginez gero bustitzeko arrisku handiagoa dutelako. Izan ere, Seberren estalki bat ipintzen zaie, eta eurak eta euren produktuak babestuta daude", jakinarazi du Marga Garmendiak.

Bestalde, berritasun bat ere iragarri du aurtengo azokarako: "Jai giro ukitua eman gura dugu, eta musika, bertso edo halako zerbait antolatzen gabiltza. Oraindik lotu barik dugu".

BITTORI ERRETEGIA

Eguneko menua - Kartako menua
Especialitateak:
legatz kokotxak eta txuletak

Araba Etorbidea 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82



OBRAK > OLANDIXOKO TUNELA

Diputazioaren onespina jasota, udaberrian hasiko dira Olandixoko tunelaren obrak

Bi kilometro luze izango da; lanak egiteko 27 hilabeteko epea zehaztu dute; aurrekontua, berriz, 41,3 milioi euro da

dixoko tunelaren proiektua. Bi kilometro luze izango da saihsbidea, eta bide horretako osagai nagusiak hiru izango dira: Olandixoko tunela bera, 860 metrokoa, bi biribilgune berri eta Aramaio ibaia zeharkatzeko eraikiko duten zubia.

MUGAN HASIKO DA
2008ko udaberrian hasiko dituzte obrak eta 27 hilabeteen bukatu beharko dituzte. Hain zuzen ere, saihsbidea Mugarriko zubiaren ondoan egingo duten biribilgune berriak hasiko da, GI-627 errepi-dera sartzeko lotunearen parean,

Aretxabaleta eta Arrasate arteko mugan, hain zuzen. Hasierako zatia mendiaren erdialdean barrena joango da, industria eraikinak gainditu eta gero; punturik garaie-na ibar batzuen ondoan egongo da, eta, jarraian, beherantz egingo du, tunelean sartuta.

Tunelari dagokionez, besteak beste, 860 metro luze izango da eta %2,50eko malda izango du. Horrez gain, oinezkoek irteteko galeria ere izango du, larrialdietarako. Tunel irteeran eraikiko dute ibaia zeharkatzeko zubia, eta hala, Aramaiorako errepiarekin bat egingo du saihsbide berriak.

UBANE MADERA > ARRASATE

Alegazioak egiteko epea bukatu eta gero, Gipuzkoako Diputazioak behin betiko onartu du Arrasateko mendebaldeko saihsbidearen edo, bestela esanda, Olan-

OSASUNA > GRIPEAREN KONTRAKO TXERTOIA

Gripearren kontra txertoa hartzeko epea datorren astean bukatuko da, martitzenean

Martitzenera arteko epea (urriaren 30) zehaztu zuten txerto hori hartzeko; baina bestetan, luzatu egin izan dute epe hori

U.M. > ARRASATE
Azkeneko egunak dira gripearren kontrako txertoa hartzeko, datorren martitzenera arteko epea zehaztu zuten-eta. Dena den, azken urteotan epe hori luzatu egin izan dute; beraz, baliteke aurtien ere halaxe egitea.

Edurne Marañoan anbulatorioko arduradunak emandako datuen arabera, Arrasaten 4.300 txerto jaso zituzten eta horieta-

tik 3.930 ipinita dituzte. Beraz, 370 txerto besterik ez da geratzen. Bestelakoan artean, Aita Menni eta San Juan den Dios ospitaleetako egoiliarrek falta dira txertoa hartzeko.

Horren harira, kontatu du aurtien bestetan baino mailakatuago joan dela jendea txertoa hartzera. Eta azpimarratu du oso positiboa dela herritarrak ohitzea txertoa nork bere auzoan hartzera.

55 bikoteren arteko mus lehia Sampryn

55 bikotek parte hartu zuten joan den asteburuan Sampry tabernan jokatuak mus txapelketan. Finalera Rafa Andres eta Jose Mari Armendia eta Mikel Garzon eta Jesus Rodriguez iritsi ziren. Lehenengo bikotea gailendu zen; argazkian ageri dira, sariak eskuetan eta txapelketaren antolatzaileek lagunduta.



GOIENKARIA



Oskar Elizburu, Erdu-AEK-ko arduraduna eta euskalgintzako kidea.

U.M.

Oskar Elizburu > Euskalgintzako kidea

"Ilusioa Euskaraz epe luzerako kanpaina da"

U.M. > ARRASATE

Ilusioa Euskaraz izenburuarekin Gabonetako loteria euskaraz plazaratzeko kanpaina abiarazi du Arrasateko Euskalgintzak. Epe luzerako egitasmoa dela aditzera eman dute:

Horrek ez du esan gura loteria aterako duzuenik, ezta?

Ez. Gure lana da euskaren erabilera sustatzea eta Euskalgintzaren plan estrategikaren barruan landu genuen ildoetako bat izan zen dauden aukerak jendeak baliatzea euskara erabiltzeko. Eta errenta aitortpenarekin egin genuen moduan, orain pentsatu dugu hainbat eta hainbatek Gabonetan loteria partizipazioak banatzen dituela lagun eta familiaren artean eta hainbat establezimendu, enpresa txiki eta abarrek egiten dutela loteriaren partizipazioak oparitu edo eman... Hor ere bada hizkuntzaren erabilera, eta nagikeriagatik edo ahaztu egiten zaigulako-edo, gehienak gaztelaniaz egiten dira. Leku askotan, gainera, loteria takoak erostera zoaz eta euskaraz eskatzerakoan harrিতuta galdetzen dizute: "Baina badaude, ala?" Hori ikusita erabaki genuen kanpaina hau abiaraztea.

Kanpainak, baina, bi zati ditu, ezta?

Bai. 700 establezimendu ingururekin jarri gara harremanetan. Mota guztietako denda, enpresa txiki, taberna, elkarteri... bidali diegu postala esanez ilusioa euren bezeroei euskaraz bidaltzeko, eta horretarako loteria txartelak euskaraz enkargatu besterik ez dutela. Loteria saltzen duten betiko saltokietan euskaraz eska dezatela esan diegu.

Eta gero etorriko litzateke bigarren zatia...

Bai. Loteriako saltokiei emango diegu karteltxo bat esaten duena saltoki horretan aukera dagoela loteria txartelak euskaraz lortzeko, eta, bide batez, ematen diegu informazioa jakinarazten euskarazko takoak non lor ditzaketan.

Beraz, laster ikusi ahal izango dugu loteria euskaraz?

Gure kanpaina epe luzerakoa da. Baina baditugu aurreikuspen batzuk eta pentsatzen dugu denda batzuetan-eta leku batzuetan egingo dutela aurtien. Horrez gainera, ea gu, euskaldunok, hasten garen loteria familiari eta lagunei euskaraz bidaltzen.

RECYCLING
ekobai



Kartutxoan berrerabilpena eta birziklapena.

Aurrezteko aukera bikaina!

Zatoz eta informa zaitez!

Arimazubi 1, behea • Arrasate • Tel/fax: 943 53 25 59



MUSIKA > ROCK-AND-ROLLA NAGUSI BIHAR 3.60 ARETOAN

Roy Loney rockzale aitzindaria Arrasaten

Bloody Hotsak jaialdian, Petti&Band, On Benito taldea eta disko jartzaileak ere izango dira

A. ARANBURUZABALA > ARRASATE

Roy Loney, San Frantziskoko (AEB) Flaming Groovies talde mitikoaren sortzailea eta hastapenetako konposatzaile nagusia, Donostiako Señor No taldearekin arituko da bihar 3.60 aretoan.

Irungo Bloody Mary disko dendak eta Soralezeko Gaztelupe Hotsak diskoetxeak sortu duten Bloody Hotsak zigiluaren aurkezpen jaian izango da hori. Ray Loneyrekin batera, Petti, On Benito eta disko jartzaileak ere izango dira. 22:30etik aurrera.

HARREMAN BITXIA

Iaz elkar ezagutu zuten Roy Loney eta Señor No taldeko Xabik; donostiarra izan zen *road-managerra* Loneyk Longshots taldearekin Espainian egin zuen biran. Zoritxarrez, bira ez zen nahi bezala amaitu, lapurreta izan zuten-eta.

Elkarren artean sortu zen harremanaren ondorioz, Señor No taldekoek *galdutako* dirua berreskuratzeko beste bira bat egitea proposatu zioten amerikarrari. Disko laburra grabatu zuten orduan. Taldea egonkortu



ROY LONEY Loney rockzale aitzindaria (bigarrena eskumatik) Señor No taldearekin.

JOXE ARETA GOÑI 'JUXE'.

egin zen eta aurrerantzean elkarrekin proiektu gehiago egitea adostu zuten.

Espainian hainbat kontzertu emanda, asteburuan Euskal Herrian borobilduko dute bira. Jarraian, Garate estudioan disko luzea grabatuko dute. Iaz *Bottle of Wine* single arrakastatsua

grabatu zuten elkarrekin; ale guztiak agortuta, berrargitaratu egin dute.

BLOODY HOTSAK JAIA

Biharko jaian, Berako Petti abeslari eta haren banda berriarekin gozatzeko aukera ere izango da. Astean kaleratu duen *On* diskoa

aurkeztuko du. Beratarren bosgarrena da. Horrez gain, Joseba Irazokiren *On Benito* taldearen emanaldia ere izango da; eta, Aitor Mansilla eta Juxe disko jartzaileek jardungo dute. Izango da, baina, beste sorpresarik: *Loney&Señor No* izena daraman ardo botila eskuratzeko bidea, hain zuzen ere.

Ricardo Arregi > Poeta eta literatura solasaldietako gidaria

"Solaldiek ikuspuntua zabaltzen laguntzen dute"

A. ARANBURUZABALA > ARRASATE

Aurten, hirugarren aldiz gidatuko ditu Arrasateko bibliotekako gaztelaniazko solasaldiak Ricardo Arregi poetak.

Ze harrera izan dute aurten?

Urtetik urtera hobia izaten dute. Aurten, gaztelaniazkoetarako 40 lagunek eman dute izena, eta bi talde izango dira.

Asteon egin duzue lehena.

Bai, Philippe Claudel idazle gazte frantziarraren *Almas gri-ses* liburua aztertu genuen. Liburu

ruan oinarritutako filmaren pasarte batzuk ere ikusi genituen liburua aztertzeko orduan.

Zeren arabera aukeratzen dituzte liburuak?

Kalitatezko bermea duten liburuak hartzen ditut. Faktore asko hartzen ditut kontuan: idatzi den garaia, jatorria, generoa...

Zein da, orokorrean, parte-hartzaileen profila?


Emakumezkoak dira gehienak eta lanbideari dagokionez, berriz, denetik dago.

Parte hartzera animatzen dira?

Bai, hori da helburua gainera. Hamar bat minutuko aurkezpena egiten duk nik lehenengo eta ondoren, eurak hasten dira irakurri dutenaren gaineko hausnarketa egiten.

Zertarako balio dute era horretako eztabaidek?

Lehenik eta behin, irakurri duzunari buruz duzun iritzia konpartitzeko. Era berean, jakinduria eta ikuspuntua zabaltzen dutela ere esango nuke. Horrez gain, jakin-mina pizteko ere bai.



Ricardo Arregi.

GOIENKARIA

Zein da jatorria?

Ingalaterran sortu ziren eta azken hamar urteotan Euskal Herrian hedatu dira. Arrasate aitzindaria izan zen.

Zuk ere bi liburu dituzu.

Bai, *Hari hauskorak* eta *Kartografia* poema liburuak. Azken hori iaz aztertu zuten. Egun, hirugarrena idazten nabil. Itzulpen-gintzan ere jarduten dut.

> KONTZERTUA

Foxy Boxxi talde arrasatearra bihar herriko gaztetxean

Urtebete da Arrasateko lau gaztek Foxy Boxxi taldea sortu zutela: Oier Arregi, gitarra; Aitor Etxagibel, bateria; Maria Fagan, ahotsa eta gitarrarekin; eta Aitor Moreno, baxuan.


Rock-and-roll doinuak egiten dituzte eta ingelesez kantatzen dute. Bihar, zapatua, Arrasateko gaztetxean bosgarren kontzertua emango dute, 22:30ean. Talde gonbidatua ere izango da. Sarrera doan izango da. Eurek sortutako kantuekin batera, hainbat talderen bertsioak ere abestuko dituzte, besteak beste The Dictators eta The Rolling Stones taldeenak.

MADINA ZURAK

Aroztegia

- Olak
- Aglomeratuak
- Kontraxapatuak
- Tablexa
- Ateak
- Egurrezko leihoak
- Oin-inguruak
- Zangoak
- Aroztegiako osagarriak

Uribarri auzoa B-2 B S3 sektorea • Tel.:
943 79 13 78 ARRASATE
e-posta: mz@madinazurak.com



KONTRATAK
IRVROK S.L.
ERAIKUNTZAK

Meatzerreka 5 bis - 246 posta-kutxa
Tel.: 943 77 09 92 Faxa: 943 79 78 14
ARRASATE

MULTIARREGLOS

Mikel 699609708

Etxeetan, komertzioetan eta ostalaritzan mantentze-lanak orokorrean.

Instalazioak:
Edozein gelatan antenak,
telefonen kableak...

Honponketak:
Altzariak, zoruak, zokaloak,
sabal zuloak, entxufeak,
zizternak, baldorak...

Jartzeak:
Hoadroak, gortinak,
lanparak, apalak,
dekorazio objektuak...

Ahokadurak:
Telebistak, bideoak,
musika ekipoa, galdarak...

Amaia Iriarte Arenaza

Medikuntzako Lizentziaduna ZK.7541

HOMEOPATIA

- * Pertsona bakoitzari egokitutako tratamendua baita jaioberri, ume, haurdunentzat...
- * Beste tratamendu askorekin osatzen den mediku terapia da.
 - Alergiak
 - Arnas aparatua: alergiak, asma, katarro kronikoa..
 - Arazo digestiboak
 - Zirkulazio arazoak
 - Dermatologia: Dermatitis, garatxoak, ekzemak, psoriasisak...
 - Emozioak: Antsietatea, depresioa...


RPS 13/07

PHOTON TERAPIA



- Min akutu-artikular, neuro-muskular eta kronikoak txikitzen ditu.
- Fibromialgiaren bizi kalitatea hobetzen du.
- Azido laktikoaren agerpena atzeratzen du eta eliminazioa azkartzen du (*kirolariak azkarrago errekuperatzeko erabiltzen da*).
- Estresak eta antsietateak sortutako nekea hobetzen du.
- Loaren kalitatea hobetzen du.

www.amaiairiarte.com • info@amaiairiarte.com • Nafarroa etorbidea 11, ARRASATE • Tel.: 943 08 11 00 / 695 78 19 21



ITZIAR UGARTE

Optika

Audiometria

Betaurrekoetan
azken joerak

Azken teknologia ikusmen eta entzumen aparatuetan



Ikusmen aparatua

- Proba-kutxa eta foropteroa
- Errefraktometroa eta keratometroa
- Optotipoa
- Frontofokometroa
- Tonometroa (begien tentsioaren neurraketa)
- Oftalmoskopioa eta erretinoskopioa
- Zirriztu-lanpara



Entzumen kabina intsonorizatua

- Entzumen probak
- **amplifon** audifonoak
- belarritarako tapoiak

FREMAP aseguruarekin hitzarmenak

+VISION
GRUPO OPTICO

Arrasate pasealekua 35
ARRASATE
943 08 26 87

Eskola Politeknikoaren ondoan



Kirol betaurrekoak graduatzen dira

PALA > IKASTAROA

Emakumezkoei zuzendutako pala ikastaroa antolatu dute

Azaroaren bigarren astean hasiko dute 25 urtetik gorako emakumezkoei zuzendutako ikastaroa; Musakolan eta Iturripen jokatuko dute

PALAN JOKATZEKO GAUZA IZATEA
Hori da Epeldek azpimarratutako kontuetako bat, iaz animatu ziren emakume askok ziotela eurak ez zirela palan jokatzeke gauza izango: "Euretako batzuek gaztetan palan jokatu zuten eta beste batzuek ez zuten kirol hori ezagutzen. Horrela, hasi eta bere-

hala konturatu ziren palan jokatzeke gauza zirela. Kontuan hartu behar da gazteenak 25 urte zituela eta nagusienak, 70".

Ikastaroak ikasturtea iraungo du, doanekoa da eta entrena-tzaileek jarriko dute behar duten materiala. Izena emateko deitu Musakolako kiroldegira.

XABIER URTZELAI > ARRASATE

Emakumea Pilotari proiektuaren barruan, Gipuzkoako Euskal Pilota Federazioak palaren gaineko ikastaroa antolatu du Arrasaten. Hain zuzen, 25 urtetik gorako emakumeek eman ahal izango dute izena ikastaro horretan, eta Musakolan eta Iturripen egingo dituzte ikastaroak, eguaztentean, goiz eta arratsalde.

Ikastaroko antolatzaile Naroa Epeldek azaldu ditu egitasmo horren helburuak: "Asmoetako bat da emakumezkoek kirola egitea. Neurri berean, baina, kirol jarduera horrek pilotarekin harremana izan dezan gura dugu. Arrasaten iaz egin genuen lehenengo ikastaro hori, eta jendea animatzeko zailtasunak izango genituela pentsatzen bagenuen ere, azkenean 20-25 laguneko taldea sortu genuen".



PARTAIDETZA SUSTATU Kirola egitera animatzea da helburuetako bat. NAROA EPELDE



BERGARAKO PEÑA ATHLETIC CLUB

Athletic animatzera Valladolidera

Joan den asteburuan Ibarreko hainbat Athleticzale joan ziren Valladolidera, talde zuri-gorria gertutik animatzera. Bergarako Peña Athletic Club eta Arrasateko Imanol Etxeberria taldekoak batera joan ziren, eta Burgosen hamarretakoa egin eta gero, Valladoliden bertan bazkaldu zuten. Zaleak pozik itzuli ziren partidutik, Athleticcek 1-2 irabazi zion-eta Mendilibarren taldeari. Gainera, Valladoliden jokatutako aurreko bi partiduetan, zuri-gorriak esku hutsik itzuli ziren. Erretratuan daudenak Arrasateko taldeko zaleak dira.

> ERRUGBIA

Arrasateko taldeek etxean jokatuko dute asteburuan

Joan den astean Getxoren zelaian denboraldia hasi zuen senior mailako taldeak (22-14) Mojategin egingo du debuta asteburuan. Hain zuzen, Arkaitz Ibargueneren taldeak Zarautz hartuko du zapatu arratsaldean (17:30).

Emakumezkoen taldeari dagokionez, Arrasateko neskek seniorrek baino lehenago jokatuko dute. Etxean jarraian jokatuko duten bigarren partidua izango da; Atletico San Sebastian talde donostiarrak izango dute aurrean (16:00).

> ARETO FUTBOLA

Bihar goizean hasiko dute Zaldibarko Txapelketa

Zaldibarko Txapelketako antolatzaileak joan den astelehenean izan ziren Kulturaten taldean izenak hartzen, eta pozik daude, 20 taldek hasiko dute eta bihar txapelketa -iaz baino bi talde gehiago-.

Antolatzaileek esan duteenez, hiru talde berri daude, beste bik izena aldatu dute eta talde bakarrak utzi du txapelketa, Billy & The Cowboys taldeak. Bihar, 10:00etan hasiko dituzte partidua, goiz eta arratsalde; domeka goizean ere jokatuko dute.

MAYTE



Urriak 19tik 27ra
Domu Santu
egunerako enkarguak
hartzen ditugu.

Otalora kalea, 18 20500 Arrasate. Tfno-Fax: 943 771465 www.goiena.net/blogak/mayte

Pelukak eta ilea berreskuratzeko sistema berri eta pertsonalizatua



Gubi

ILE APAINDEGIA
Otalora Lizentziaduna 5
Tel.: 943 79 12 74

ERRASTI KRISTALDEGIA

Plastiko eta burdinazko hodiak
beirina eta kristalak
osagaiak


San Andres Auzoa 10. pabilioia
Tel.: 943 79 22 55 / 943 79 14 25



Berezitasunak
Kazuelatxoak
Ogitarteko
hotz eta beroak

Arrasate pasealekua 33
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76

Garagardo ona, giro hobea



TXIRRITA

Taberna

Gesalibar auzoa. Tel.: 943 79 10 35

Kanpotarrak Arrasaten

Wilson Carvajal > Kolonbiarra
Arrasaten bizi da

"Hemen paisaiak Amazonas berdearen itxura dauka"

JASONE ZABALA > ARRASATE

Bi urte eta erdi baino ez daramatza Wilson Carvajal kolonbiarrak Arrasaten bizi izaten. Hura bakarrik etorri zen Arrasatera hemen bizi zen arreba baten bitartez, baina dagoeneko bertan ditu emaztea eta semea ere, eta lasai bizi dela esan digu.

Kolonbiako Buenaventura Valle herrian jaioa, 2005eko maiatzean etorri zen Arrasatera, hemen bost urte lehenago bizi izatera etorri zen arreba baten bitartez. Lanean hasi eta nahiko diru bildu zuenean, joan den otsailean emazte Miriam Fuentes eta seme

Bayron ekarri zituen Arrasatera berarekin bizi izatera.

Arrasateko jendea nolakoa den galdetuta, Wilsonen erantzuna borobila izan da: "Jatorrasun handiegia erakusten duzue euskaldunok, eta abegitsuak zarete". Janari aldetik ere diferentzia batzuk badaude: "Kolonbian

"Gehien harritu nauena hemengo paisaia izan da; oso berdea da, eta gure Kolonbia maitearen antza du"



Argazkian, Wilson eta Miriam.

arroz asko jaten da, hemen ogia jaten duzuen bezalaxe, eta ohitu egin gara arroz pixka bat gutxiago jaten eta arrain gehiago", adierazi digu Carvajalek.

PAISAIA ZORAGARRIA

Paisaiari dagokionez, honek Amazonas txiki bat dirudiela esan digu Wilsonek: "Cali, esaterako, 25-30 gradu izaten dira normalean, baina ederki moldatu naiz hemengo hotzera eta baita elurrera ere, eta orain esan dezaket gustuko dudala; izan ere, Cali inguruan Nevado del Ruiz dago eta hantxe ikusi dugu elurra Arrasatera etorri aurretik".

Euskal Herrian gelditzearen ideia argi dauka Wilsonen, nahiz eta gurasoak Kolonbian bizi diren: "Haien falta igartzen dut, baina dirua bidaltzen diet, eta ahal den neurrian pixka bat hobeto bizi izaten lagundu".

Euskarari dagokionez: "Hitz solte batzuk badakizkit esaten, baina esan behar da nahiko hizkuntza zaila dela euskara".

bere ustez



Aitor Eizagirre

Viana ez da Bergara

Hiru aste badira Bergarako KMK jaiak gozatu genuenetik. Aurreko domekan, aldiz, Vianak hartu zuen lekukoa. Lagunartean, pentsarazi zidan gaia atera zen berba-gai; beharrezkoak al dira egun honelako jaiak egitea? Zentzurik al daukate?

1991. urtean, Gipuzkoako ikastolen jaia Aranzadik antolatatu zuen, baina argi dago azken urteotan euskararen egoerak hobera egin duela herrian; kartel ofizialak euskaraz daude, herriko haur guztiek euskaraz ikasten dute,

"Beharrezkoak al dira egun honelako jaiak egitea? Zentzurik al daukate?"

ekimen kulturalak euskaraz dira, herriko komunikabideak euskaldunak dira, herri euskalduna da Bergara.

1992. urteko Nafarroa Oinez ere Vianan izan zen, hamabost urte luze igaro dira, baina euskararen ikuspuntutik zer aldatu da? Ikastolako ikasleak euskararen murgiltzeko aukera dauka ikasgelan, baina gero kalera irtetean datozkio komeriak; herria zeharo erdalduna da, ikastolan ez dauden neska-mutilekin euskaraz mintzatzea ezinezkoa zaio, kartel ofizial guztiak gaztelera hutsean daude, etab.

Agian Gipuzkoan zentzua galdu dute honelako festek, baina argi dago beste hainbat lekutan, Nafarroa kasu, inoiz baino beharrezkoagoak direla.

txutxu-mutxua



INAZIO ISASMENDI

Urriaren 19an elkartu ziren Arrasaten 1949an jaiotakoak, kintoen bazkarian

Arrasateko udaletxeko plazan bildu ziren 1949. urtean jaiotakoak. Duela zortzi urtetik hona urtero ospatu izan dute, kinto bazkaria eginez, eta beti urri aldera egiten dute ospakizuna. Guztira 38 pertsona bildu ziren, 11 gizon eta 27 emakume. Lehendabizi meza izan zuten San Frantzisko elizan, 12:30ean, gero txikiteoa herriko tabernetan zehar eta amaitzeko bazkari ederra batzokian, dantza eta guzti. Eguna ederki pasatu zuten, urtebetean gertatutakoak elkarri kontatuta. Bazkaldu aurretik Herriko Plazan aterata zuten argazki bat bidali digute kintoek.



HOTEL JATETXEA SANTA ANA ***

Jangela • 12 logela • Suite logela bat • Bileragela
Haur parkea • Aparkaleku pribatua • Taberna
Etixerako aurrez prestatutako jakiak prestatzen dira



Zabaldu berria!

Uribarri 37 (Udala bidean) • Tel: 943 79 49 39 • Arrasate

HEZKUNTZA > KM 07

Kilometroen gaineko balorazio oso positiboa egin du Aranzadi ikastolak

"Herriak eta herriarentzat garatutako proiektua izan da eta bete-beteen lortu dugu helburua", esan zuen Unai Azkaratek

EDU MENDIBIL > BERGARA

Begoña Lasagabaster Aranzadi ikastolako Artezkaritza Kontseiluko presidenteordeak, Dorleta Mendibil zuzendari pedagogikoa eta Unai Azkarate Kilometroak 07ko koordinatzaileak urriaren 7ko jaiaren balorazioa egin zuten eguaztenean, komunikabideen aurrean.

Unai Azkaratek hauxe azpimarratu zuen: "Jai antolatzeke bagenituen arrazoia edo helburu batzuk eta horien betetze maila izango da balorazioaren adierazlea. Herriak eta herriarentzat garatutako proiektua izan da eta



POZIK Begoña Lasagabasterrek, Unai Azkaratek eta Dorleta Mendibilek herriari eskerrak eman zizkioten.

ENEKO AZKARATE

bete-beteen lortu dugu helburua, urtean zehar 200 bergarar baino gehiagok eta urriaren 7an 1.700 boluntariok egin duelako lan,

Aranzadirekin batera, proiektu hau aurrera eramateko. Gainera, dozena bat ekintza baino gehiago antolatu ditugu urtean zehar herria girotze aldera. Jasotako erantzunaren arabera esan dezakegu herritartasun aitortza eman zaiola berriz ere Aranzadi ikastolari". Kopuru batzuk ere eman zituen Azkaratek: "200 autobus, 10.000 auto inguru gertura-

tu ziren, 70.000 edalontzi berrebilgarri erabili ziren, 1.000 bazkari eman ziren... Dena den, lortu dugun gauzarik ederrena zera izan da: gauzak aurrera ateratzeko kolektiboaren indarra eta gizatalde moduan gure burua ezagutzera. Ordainean, Aranzadik bere konpromisoa berresten du Bergarako herriarekin eta, oro har, Euskal Herri osoarekin".

INSTALAZIOETAN INBERTITU

Administrazioaren aldetik jasotako finantzaketaz gain, elkartzasun ekimenak eta atxikimendu soziala adierazteko ekimenak beharrezkoak direla nabarmendu zuen Dorleta Mendibilek: "Balantze ekonomikoa egiterik ez dago oraingoz, diru irteerak zenbatzeke direlako. Ekaineko asanbladan emango dugu horren berri. Hasiera baten, gure asmoa dirua erabiltzen ditugun instalazioetan egingo ziren obrak ordaintzeko bideratzea zen. Urtebete pasa eta diru hau Errege Seminarioan egin ditugun obra eta hobekuntza fisiko eta pedagogikoei laguntzeko erabiliko dugu".

Instalazioen kontua gaur zertan den argitu nahi izan zuen Begoña Lasagabasterrek: "Irailaren 26an, Jauralaritza, Bergarako ikastetxeek dituzten espazio arazoak konpontzeko irtenbideak topatzeko konpromisoa hartu genuen. Martinez Iralatik ateratzeko gure premiei erantzuneko dien irtenbidea topatu behar dugu". Dorleta Mendibilek zera gaineratu zuen: "Hasieran alde guztiak azaldu ginen akordioaren alde eta bide horri mamitzen laga behar zaio. Ez ditugu tentsionamendu estrategiak elikatuko, hezkuntza sistemaren eta herriaren kaltetan doalako".

ISTILUAK > JOAN DEN ASTEKO ISTILUEN ONDORIOZ

Ertzaintzaren jarrera salatu du herritar talde batek

Urriaren 13an Ertzaintzaren jarrera desegokia eta neurritz kanpokoak izan zela esan zuten

MIREN ARREGI/E.M. > BERGARA

Hainbat herritarrek prentsaurrekoak egin zuten martitzenean, urriaren 13ko gauean Ertzaintzaren jarrera salatzen: "Ehunka herritar batu ginen bazkari herrikoia ospatzeko. Bazkaria amaituta, kalejirari hasiera eman genion eta gaurdi aldera Ertzaintza agertu zen. Une horretan kalean zebiltzan herritarren artean harridura, nahasmena eta tentsioa sortu zuten. Ondorioz, jai giroa zapuz-

teaz gain, inguruan ziren hamaika herritar jipoitu, bi lagun atxilotu eta hirugarren bat salatu zuten. Guztiei gure elkartzasuna eta babesa adierazi nahi diegu".

Ertzaintzaren jarrera neurritz kanpokoak izan zela salatu zuten: "Ez dute jai herrikoia bat zapuzteko eskubiderik eta ez dugu beste ekintza polizialik onartuko". Mozio baten bitartez udalbatzaren babesa lortzen ahaleginduko dira.



KULTUR ETXEAN Irudian, martitzeneko prentsaurrekoak une bat. MIREN ARREGI



SAN MARTIN IKASTETXEA

San Martin ikastetxeak, Lakuan

San Martin ikastetxeko ordezkariak elkarretaratzea egin zuten eguaztenean Lakuan. 70 lagun inguru izan ziren Gasteizen. Ikastetxean duten espazio falta dela eta, behin betiko soluzioa eskatzen dute. Horretarako, Aranzadik Martinez Irala eraikina utz dezan epeak zehaztea aldarrikatzen dute eta negoziazio mahaian egotea. Haur hezkuntzako gelak etorkizunean Martinez Iralan kokatzea da beraien asmoa. Ostiralero kontzentrazioak egiten jarraituko dute San Martin Plazan eta asteleheneko osoko bilkurara joateko asmoa azaldu dute.

ARTXIBOA > HISTORIA

Herriko historia lanak bultzatuko ditu Artxiboak

Artxiboko fondoak jendeari gerturatzea eta herritarrek eurek parte hartzea da helburua

EDU MENDIBIL > BERGARA

Bergarari buruzko historiako lanak bultzatuko ditu Udaleko Artxiboak. Helburua bikoitza da: Artxiboko fondoak herritarrei gerturatzea, batetik, eta herritarrek eurek landutako gaiari irtenbidea ematea, bestetik.

Historia ikerketaren bat egin nahi dutenei lankidetzak eskainiko dio Artxiboak; fondoaren erabilera eta hedapena egiteko interesa dute arduradunek. Besteak beste, Udalak sortutako dokumentazioa (1268. urteko Herri

Hiribildutik honakoa), Erret Mintegiko artxiboa edo Union Cerrajerako Bergarako lantegiko gordetzen dira bertan, 20.000 argazki ingururekin batera.

LANEI IRTENBIDEA EMAN

Behin Artxiboko arduradunekin harremanetan jarri ondoren, Udaleko Ondare, Turismo eta Informatika batzordeak baloratuko ditu jasotako proposamenak, hainbat teknikairekin laguntzarekin. Ondoren, aipatutako lanei zer-nolako irtenbidea



UDAL ARTXIBOA Bertan dauden fondoak herritarren eskura jarriko dituzte historiako lanak egin ahal izateko.

E.M.

eman aztertuko dute. Bergarako udal webgunean jarriko dituzte lanik interesgarrienak eta kasu bakoitzaren arabera bestelako irtenbideak ere aztertuko dituzte.

Arantzazu Oregi Udal Artxiboko arduradunak eta Mikel

Elkoroberezibar Ondare eta Turismo batzordeburuak azpimarratzen dutenez, "Eibarko Artxiboan egiten duten lana hartuko dugu oinarri asmo hau plazaratzeko. Eibarren arrakasta dezente izan du, eta herritarrengandik proposamenak jasotzea da

gure asmoa". Interesatuak Udaleko Artxibora jo dezakete argibide eske azaroaren 20a baino lehen. Aste barruan 08:30etik 13:30era eta 14:30etik 17:30era dago Artxiboa zabalik. 943 77 91 32 telefonoan edo artxiboa@bergara.net helbidera ere jo dezakezue.

ERRETIRATUAK > KULTURA HAMABOSTALDIA

Erretiratuen Kultura Hamabostaldia bihar amaituko da bazkari batekin

E.M. > BERGARA

Adiskidetzak lelopean ospatutako Kultura Hamabostaldiari agur esateko, herri bazkaria izango da bihar, zapatua, Zabala jatetxean, 14:30ean.

Asteazken zehar hainbat ekitaldi izan dituzte: txapelketak astelehenean, Bergarako baserri inguruetan ibilaldia martitzenean eta ikasleen artean antolatutako lehiaketaren sari banaketa eguaztenean: Ainhoa Molpeceresi eskola materiala erosteko 150 euroko erosketa bonoa tokatu zitzaion zozketan; Jone Urrari 100 eurokoa eta Jone Olabarriari 75 eurokoa. San Joxepekoek 20 euroko beste 21g txartel zozketatu zituzten gaztetxoaren artean. 237 ikaslek erantzun zioten erretiratuek planteatutako galdetegiari.



SARIDUNAK Irudian, Jone Urra, Jone Olabarria eta Ainhoa Molpeceres.

E.M.

San Joxepeko zuzendaritza batzordeko kideak pozik azaldu dira Kultura Hamabostaldiaren 11. ekitaldiak izandako erantzunarekin.

INTERNET GELA EGOITZAN

Bestalde, erretiratuen elkarteak informatika ikastaroak antolatu ditu aurten ere. Argibideak 943 76 30 09 telefonoan.

> HEZKUNTZA

Zeinu hizkuntza ikastaroa iragarri du Aransgi elkarteak datorren urtarrilerako, Bergaran

Gorrek komunikazio ahalmenak hobetu nahi dituzten pertsonen zuzenduta, zeinu hizkuntza ikastaroa antolatu du Aransgik, Udaleko Gizarte Ongizate Sailaren laguntzarekin. Ikastaroa urtarriean hasiko da eta debagoiendar guztiei zabalik dago. Matrikulak 85 euro balio du. Argibideak 943 76 27 03 telefonoan.

> IKASTAROAK

Langabeei zuzendutako informatika ikastaroa eta KZGunearen ohiko eskaintza Irizar jauregian

Udaleko Enplegu Sailak langabeei zuzendutako informatika ikastaroa antolatu du. Windows eta Microsoft Word (hasiera maila) jorratuko dituzte azaroaren 7tik abenduaren 14ra bitartean. Ikastaroa 50 ordukoa da. Argibideak eta izenematea: 943 77 91 65.

Bestalde, KZGuneak ere informatika ikastaroak eskaintzen ditu Irizar jauregian. Argibide eske 943 76 73 24 telefonora jo dezakezue.

Herran

BERGARA

Sukaldeko altzariak: Matxiategi 4
943 76 12 22 • 943 76 37 53 • 607 76 37 53



vegasa

Zure sukalderako behar duzun gutzia.

**JAUJA
KIROLAK**
Irizar 2. BERGARA
943 76 14 95

IRURAK MARGOAK
DISEINUA, S.L.

Era guztietako lanak	Paper pintatuak
Moketa eta sintasola	Harea zorrotada
Iztuku esponjatua	Iztuku faltsua

Aitziturri 6 • 95 posta kutxa • 20570 Bergara
Telefonoak: 943 76 09 32 / 610 259 983 / 984
Faxa: 943 76 09 32

HEZKUNTZA > LIBURUAK

Harrera ona izan du Bergaran antolatutako Irakurri kanpainak

Asteazkena ezker martxan da Irakurri 2007 kanpaina, Euskal Autonomi Elkarteko herri liburutegiak adin guztietako herritarrei hurbiltzeko asmoz

JASONE ZABALA > BERGARA

Urriaren 24an eman zitzaion hasiera 2007ko Irakurri kanpainari. Orain arte egindako lehen kanpaina da. Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailak jarri du abian ekimen hori; herri liburutegiak adin guztietako herritarrei hurbiltzea da asmoa.

Bergarako Udal liburutegia ere ekimen horren barruan sartuta dago, eta Mila Agirrezabal liburutegiko arduradunaren arabera, "gure herrian dugun ezagutza, kultura eta informazioa herritarrengana zabaltzea da kanpainaren asmoa". Horretarako,



HAINBAT LIBURU AUKERAN Gaztetoak ere joan ziren plazara udal liburutegien egunean.

JASONE ZABALA

rako, hainbat ekintza antolatu ditu Bergarako Udal Liburutegiak. Joan den asteazkenean eman zitzaion hasiera ekintza

horiei, udal liburutegien eguna ospatuta. Plazara atera zituzten liburuak eta ohiko zerbitzua eskaini zuten, eta mailegu zein

bazkide txartela egin zuten guztiei opariak eman zizkieten. Bigarren ekintza lehiaketa bat izango da, eta erkidego osoan DBH

egiten ari diren 12 eta 16 urte bitarteko ikasleei zuzendutako argazki digitalen lehiaketa da. Gaia *Liburua ageri duen erretratu* izango da, eta parte hartu nahi dutenek egindako argazkiak Udal Liburutegian aurkeztu beharko dituzte azaroaren 15a baino lehen. Lanak, derrigorrez, CD batean aurkeztu behar dira. Irabazleek erakusketa birtual batean erakutsi ahal izango dituzte argazkiak.

FAMILIARENTZAKO GIDA

Hirugarren ekintza 3 eta 5 urte bitarteko haurrengana hurbiltzeko gida da, guraso eta hezitzaileei zuzendua. Irakurketa gogoia pizteko 12 urrats azaltzen ditu, eta urriaren 25a ezker dago ikusgai liburutegian.

Azkenik egingo den ekintza nagusiei zuzendutakoa da eta *Liburutegiko menua* deitzen da.

Lau ekintza horiez gain, erakusmahaiak ere jarriko dituzte herriko hainbat tokitan eta bertan, liburuak ikusgai eta erabilgarri egingo dira azarotik aurrera.

Ehungintzaren historiaren gaineko erakusketa

Bihar amaituko da joan den hilaren 22a ezker Nafarroako Aurrezki Kutxan dagoen ehungintzari buruzko erakusketa. Aranzadiko lehen eta bigarren batxilergoko ikasleek antolatutakoa da. Bertan, lihoz, artilez, zetaz eta kotoiz egindako hainbat produktu daude ikusgai, eta baita Bergaran egon ziren ehungintza enpresen argazkiak ere.



JASONE ZABALA

> MUSIKA

DJ gaua izango da asteburuan Ziripot tabernan

Gaur gauean hasita, DJ saio luze batez gozatzeko aukera izango dute Ziripot tabernara joaten diren guztiek asteburuan. Gaur, urriak 26, egubakoitza, gaueko hamaiketan DJ Balza Kogollo eta DJ Papi izango dira bertara joaten diren guztien gorputzak martxan jarriko dituztenak, euren musika nahasketekin; beraz, saio bikoitza gaur gauerako. Biharko, berriz, DJ Alkate Klorofilak ekarriko du bere musika Ziripot tabernara; hura ere gaueko hamaiketan hasiko da. Aukeraz ezin hobea, bada, Ziripotera joan eta DJ gauaz gozatzeko bi egunetan zehar.

> IRRATIA

Txapa Irratiak gazteei zuzenduko dizkie asteburu goizak

Joan den asteburuan hasi zen Txapa Irratia umeentzako irratisaioa eskaintzen zapatuetan eta bertsolaritzarekin lotutako saioak domeka goizetan. Zapatu goizetan 10:00etan hasi eta 11:30era arte *Ziripot eta Kaka-mokordoa* saioak eskainiko dituzte; bi irratisaio horiek irrati sarearen bitartez lortutakoak izan dira. Domekarako, berriz, bertsolaritzarekin lotutako saioak eskainiko dituzte, euskal kulturari eskainitako goizean, eta horretarako, Bergarako bertso eskolakoekin jarri behar dute ados; bitartean, *Punttuka eta Bertxoko*, goizetik eguerdira arte.

Jose M. Martin

pinturak - paper pintatuak
sintasola - moketak - gotilea
pintura industrialia

Errekalde auzoa 5, 1.a
ANTZUOLA
Tel.: 943 76 62 02 /
666 517 295

JOXAN
ARRAINDEGIA



Ibargarai 24. Bergara. Tel.: 943 76 70 29

AZPEITXI

Jatetxea

Aranerreka 13 behea. Bergara
943 76 55 00



Harrituta utzi nahi dituzu zure txikiak?
Har ezazu une bat...
Arkautz etxearekin, amets zoragarriak
izango dituzte.

Arkautz zure etxea da.

Zatoz Hallo  een
jaira!
Urriaren 31n



IRISH PUB
GALWAYS



Komikoen gauak

Zapatuan, urriaren 27an,
23:00etan **KIKE BIGURI**

Egubakoitzean, azaroaren 9an,
23:00etan **RAMON GUAMA**

Zapatuan, azaroaren 17an,
23:00etan **ALEX RABANAL**

Egubakoitzean, azaroaren 23an,
23:00etan **TOÑIN**

Etorri eta dibertitu

San Martin plaza z/g BERGARA Tel.: 943 76 30 86

> ATLETISMOA

Astelehenean Soraluze-Bergara krosa aurkeztuko dute

Datorren zapatuan, hilaren 3an egingo dute Soraluze-Bergara krosa. Eta, antolatzaile lanetan dabiren Antxintxika taldeak astelehenean bertan egingo du lasterketaren aurkezpena, Agorrosinen 17:00etan. Krosak hamar kilometro izango ditu, eta Behobia-Donostia prestatzen dabilten lasterkariendako oso proba aproposa da.

> ZIKLO-KROSA

Antolatzaileak azken lanetan dabilta buru-belarri

Lokatzako kideak jo eta su dabilta datorren egunean, azaroaren 1ean, Osintxun egingo duten ziklo-kroseko lasterketa prestatzen.

10:00etan hasiko dituzte lasterketak, eta proba erakargarriagoa izateko senior mailako kategorian esku hartzeko ziklista ezagunak gonbidatuko dituzte.

> SASKIBALOA

Zarautzen kantxan jokatu du Candyk bihar (18:00)

Bergarako saskibaloitako taldeko seniorrek laugarren postuan dagoen Leihoak Zarautz taldearen kontra jokatu du zapatu arratsaldean (18:00).

Juniorretan, gizonezkoen taldea lan ona egiten dabil, bigarren daude eta sailkatuta. Emakumezkoak, berriz, bosgarren daude. Bi talde horiek Internacional izeneko taldeen kontra jokatu dute asteburuan.



HIRU JARRAIAN Mahoneroek kategoriari neurria hartu, eta hiru partidu irabazi dituzte jarraian.

GOIENKARIA

FUTBOLA > GIZONEZKOAK ETA EMAKUMEZKOAK

Bergara geroago eta hobeto, eta BTLS lider

Lehenengo erregionalean, Bergara seigarren da dagoeneko, liderrak baino 3 puntu gutxiagorekin

Kategoria bat beherago, BTLS taldea lider da jokatuak sei partiduetatik bost irabazita

XABIER URTZELAI > BERGARA

Erregional mailako Bergara geroago eta aurrerago dago, eta azken hiru jardunaldietako boladari eusteko egingo dute asteburuan lan, Deban, Amaiak Bat taldearen kontra –laugarren daude sailkapenean–. Manu Diazen mutilek denboraldi hasiera aldre-

besa izan zuten, baina Mutrikeren kontra lortutako 3-0eko inflexio-puntu modura erabilia, ordutik hona errepaso onak eman dituzte, bai Martuteneri (1-3) eta baita Lazkaori ere (5-0).

Bigarren erregionalean, BTLS taldea da hirugarren multzoko jaun eta jabea. Norgehia-

goka bakarria galdu dute, eta asteburuan aurrean izango duten kontrarioa ezagututa –azkenurreko postuan dagoen Urki–, badi-rudi, beste aste batez, lidergoari eusteko moduan izango direla.

NESKEK EZ DUTE GALDU

Gizonezkotan, BTLS aurrean badabil, emakumezkoen ligan ere beste horrenbeste. BTLS taldeko neskek oraindik ez dute partidurik galdu, bi berdindu dituzte eta bost irabazi. Asteburuko kontrarioei dagokienez, BTLSko neskek Elgoibar hartuko dute, eta Bergara taldeko neskek, berriz, Mutriku.

Labegarieta

PARTIDUAK

Urriak 28 domeka, San Martinen Epailak
10:00 Irish Pub-Komando Piperrak Irubide
11:00 Irubide-El Maped Azeffaxa

Urriak 28, domeka, Labegariet. Epailak
16:00 Carboneros-Tiki-Taka Hamaika Jint.
17:00 Errotagain-Hamaika Jintxi Los Blus
18:00 Niu Tim-Los Blus Errota-Gai.
19:00 Belengua-Depor. Oriente Niu Tim

SAILKAPENA

	P	J
1. Tiki-Taka.....	3	1
2. Errota-Gain.....	3	1
3. Komando Piperrak.....	3	1
4. Los Blus.....	3	1
5. Belengua.....	3	1
6. Irubide.....	3	1
7. El Maped.....	0	1
8. Hamaika Jintxi.....	0	1
9. Irish Pub.....	0	1
10. Carboneros.....	0	1
11. Deportivo Oriente.....	0	1
12. Niu Tim.....	0	1

Futbolean jokatzeko atea falta da Labegarietan

Labegarietako areto futbol txapelketako bigarren jardunaldia jokatu dute asteburuan. Edonola jokatu dute bigarren jardunaldia, domeka goizeko partidua San Martineko kantxan jokatu dituzte-eta. Alde horretatik, txapelketako antolatzaileak haserre daude, Labegarietako kanpoko kantxa ate (porteria) barik dagoelako. Arazoa lehenbailehen konpontzea eskatu dute.

Horrez gain, badi-rudi taldeek kontu korronteko zenbakiarekin arazoak izan dituztela. Honakoa da Euskadiko Kutxako zenbakia: 00900339222. Eta, oraindik ordaindu ez duten taldeek bi aste izango dituzte kontu korrante horretan 200 euro sartzeko.

Domekan egingo dute urteko azken irteera

Bergarako Txirrindulari Elkartekoek domekan (09:00) esango diote agur denboraldiari. Eta azken irteera horretan, ohiturari jarraituta Arlabaneraino joango dira, Dorletako Amari lore eskaintza egitera, eta urtean zehar txirrindulariei errepidean emandako babesa eskertzeraz –hamarretakoa egingo dute gero–.

Irudian, Bergarako taldeko ziklistak, uztailean Kantabria aldera egindako egun bateko irteeran. Portillo de la Lunadako tontorrean egin zuten ondoko erretratua.



JUAN MARI SASIGAIN

Osasuna

Egubakoitza / 2007ko urriaren 26a / **Arduraduna:** Monika Belastegi / **Maketazioa:** Oxel Arrieta / **Publizitatea:** Mireia Larrañaga



BEGIETAKO OPERAZIOA
•
HEZUR-DENTSITOMETRIA
•
BOTIKINA
•
GIZENTASUNA
•
FIBROMIALGIA

ARGAZKIA GOIENKARIA

Zure ongizate eta edertasunagatik
egin dezakegun guztia jakin nahi?

LILURAM
EDERTZE INSTITUTUA



Bidekurutzeta 7, 1a
Tel.: 943 76 31 71
BERGARA

Debagoieneko OSASUN ZERBITZUAK



AKUPUNTURA

INTEGU

Arrasate / Uarkape 18, behe, ez / 943 77 13 34

ETXEBERRIA ANA

Antzuola / Errekalde 6, behe / 943 76 60 13

LORENZO M. JOOSTEN

Arrasate / Arrasate Pasealekua 29, Ezk behe / 943 79 29 13

ALBAITARIAK

ARATZ KLINIKA (LAZPIUR ROMAN)

Bergara / Zurradero 6, behe / 943 76 70 67 / 607 48 71 19

ETXEBERRIA JULIO (DEBAGOIENENKO ALBAITARI OFIZIALA)

Bergara / 609 54 16 13

ANALISI KLINIKOAK

LABORRA ISABEL

Bergara / Oxirondo 4-1B / 943 76 32 06

BARNE MEDIKUNTZA

IRIGOIEN VICTOR

Bergara / Oxirondo 4-1B / 943 76 32 06

DENTISTAK

AGIRRE HORTZ KLINIKA

Bergara / Ibargarai 9-1B / 943 76 00 23

ARANBURU HORTZ KLINIKA

Bergara / Telesforo Aranzadi 1 / 943 76 02 46

ARRASATE HORTZ KLINIKA

Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

ARREGI HORTZ KLINIKA

Arrasate / Zerkaosteta 19, behe / 943 79 71 90

ASTIAZARAN SOLOZABAL

Bergara / Iparragirre 1, behe / 943 76 27 95

BENGOA SAN MIGUEL ANGEL

Aretxabaleta / Durana 14, 1. / 943 79 05 57

BERGARA HORTZ KLINIKA

Bergara / Bidekurutzeta 36, behe / 943 76 05 77

CAVIGLIA SILVANA

Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

GOROSABEL J. ALBERTO

Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

IRIARTE IRURETA ANE MAITE

Arrasate / Iturriotz 7 - 1 / 943 79 69 45

IRIARTE IDOIA

Bergara / Artekale 1-1C / 943 76 01 65

LOPEZ DE GOIKOETXEA

Arrasate / Alfontso X. Jakintsua 5 / 943 79 17 74

MAZMELA BOLINAGA ENRIKE

Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

SAINZ MALKORRA ANA

Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 78 71 69

DERMATOLOGIA

TAMAYO CONCEPCION

OÑATI / ATZEKO KALEA 6, BEHEA / 620 124 843 / 943 71 61 82

ENTZUMEN ZENTROAK

GAES

Arrasate / Otalora Lizentziaduna 18 / 943 71 27 93

INSTITUTO OPTICO - BIOACUSTICA

Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68

ITZIAR UGARTE OPTIKA - AMPLIFON

Arrasate / Arrasate Pasealekua 35-37 / 943 08 26 87

FISIOTERAPEUTAK

ANDONI ETA MARIA BASTERRETXE

Arrasate / Garibai etorbidea 6B / 943 77 03 96

ARZAK MIREN

Bergara / Artekalea 1-1H / 943 76 43 71

BASTERRETXE MARIA

Bergara / Artekalea 1-1H / 943 76 43 71

EKIN FISIOTERAPIA ZENTROA

Aretxabaleta / Belorrieta 6 - 7 / 943 79 95 64

IONE MOÑUX FISIOTERAPIA ZENTROA

Bergara / Burdiñate 2 / 943 76 21 31

IRATZARRI FISIOTERAPIA LOGOPEDIA ZENTROA

Arrasate / Uribarri etorbidea 7 / 943 53 39 90

UNZUETA IRENE. SAN MARTIN OSASUNDEGIA.

Bergara / Ramon Maria Lili 2 / 943 76 59 39

HOMEOPATIA

AMAIA IRIARTE (MEDIKU HOMEOPATA)

Arrasate / Nafarroa etorbidea 11 / 943 08 11 00 / 695 78 19 21

KIROPRAKTIKA ZENTROA

LARRAÑAGA ANDREA

Arrasate / Erdiko kalea 22, 3. eskuma / 943 79 92 83

LOGOPEDIA

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

IRATZARRI LOGOPEDIA FISIOTERAPIA ZENTROA

Arrasate / Uribarri Etorbidea 7 / 943 53 39 90

MASAJISTAK

ABUIN JOSE LUIS

Arrasate / San Josepe 10, behe D - Kiroldegian

943 77 01 33 / 943 77 16 77

ARANTZABAL SAIOA

Elgeta / Domingo Iturbe 10 / 646 50 00 29

ARANTZETA JUAN MARI

Elgeta / Salbador 28 / 943 76 80 54

AZPEITIA IRUNE

Bergara / Ibargarai 44, behe / 943 76 73 43

CASANELLAS JABIER

Bergara / Boni Laskurain 5-2E / 943 76 03 78

ELORTONDO FLOREN

Aretxabaleta / Basabe industrialdea D, z/g / 629 77 85 84

ETXEBERRIA ANA

Antzuola / Errekalde 6, behe / 943 76 60 13

OPTIKAK

ARRASATE OPTIKA

Arrasate / Kontzezino 6 / 943 79 25 98

BEGIONDO OPTIKA

Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

INSTITUTO OPTICO

Arrasate / Kale Barria 32 / 943 79 71 68

ITZIAR OPTIKA

Oñati / Kale Barria 32 / 943 71 82 88

ITZIAR UGARTE OPTIKA

Arrasate / Arrasate Pasealekua 35-37 / 943 08 26 87

MULTIOPTICAS LARRAÑAGA

Arrasate / J. Carlos Guerra 1 / 943 79 29 95

PORTALOI OPTIKA

Arrasate / Erdiko kalea 10 / 943 79 65 56

ORTOPEDIA

ORTO LAGUN

Arrasate / Kontzezino 2 / 943 79 89 34

OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA (ERRESONANTZIA MAGNETIKOA)

Arrasate / Nafarroa Etorbidea, 3 / 943 79 44 22

OSTEOPATIA

BENGOA NEREA

Arrasate / Azoka kalea 4 / 659 58 66 89

ETXEBERRIA ANA

Antzuola / Errekalde 6, behe / 943 76 60 13

PODOLOGOAK

AZPIAZU ARANTZAZU

Bergara / Herri Lagunak z/g / 943 76 41 32

ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA

Arrasate / Erdiko kalea 54, behe esk. / 943 79 97 46

IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA

Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g / 943 76 07 84

OINEZ PODOLOGIA KLINIKA

Aretxabaleta / Belorrieta 10 / 943 79 16 45

PSIKIATRA

GALLASTEGI PABLO

Bergara / San Martin plaza 2-1. esk. / 943 76 26 64

PSIKOLOGOAK

AGIRRE ENARA - PSIKOTERAPEUTA

Antzuola / Olanan etxea 3, MA10 / 670 45 19 62

GARMENDIA LANDER

Arrasate / Obenerreka 2, 7H / 943 79 35 86

NUÑEZ TXOMIN

Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

PSIKOLOGIA - LOGOPEDIA ZENTROA

Bergara / Herri lagunak z/g / 943 76 14 80 / 610 05 99 55

UROLOGOAK

LLUCH ALBERTO (UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA)

Arrasate / Ferrerías 56 / 943 79 44 22

YOGA

AREDHANA YOGA ETA GESTALT PSIKOTERAPIA ZENTROA

Aretxabaleta / Santa Kurtz 24 / 616 96 57 95.

SAMADHI YOGA

Bergara / Masterreka 13, behe / 943 76 11 38 / 639 235 753

■ BEGIETAKO OPERAZIOA

Ikusmen arazoendako, laser bidezko operazioak

MIREIA BIKUÑA

Ikusmeneko arazoak konpontze-ko laser bidezko erabuntzak egiteko erabakia geroago eta lagun gehiagok hartzen dute. Ebakuntza erraza da, eta emaitzak, orokorrean, ezin hobekak.

Laser bidezko operazioa egiteko erabakia hartzen den unetik ebakuntza egin arte, hilabete igarotzen da. Oftalmologoari bisita egin eta hurrengo egunetik hasita, hamabost egunean lentilla barik ibiltzea aholkatzen da. Era berean, medikuek azterketa zorrotza egiten dute: alde batetik, begiaren ikerketa osoa; eta bestetik, ikerketa zehatzagoa. Azken horretan, kornearen loditasuna neurtzen dute (pakimetria), eta kornearen mapa egiten da (topografia). Hala, bi ikerketa horiek ematen duten emaitzen arabera erabakitzen da nork egin dezakeen ebakuntza. "Ikerketa berezia egin eta gero, ebakuntza egin nahi dutenen ehuneko bost baztertu egiten dugu", azaldu zigun Koldo Atxotegi oftalmologoak.

Protokolo zorrotz hori egin ondoren operazioa egiten da. Gai-koak begietan duen dioptria bate-

gatik hamaika segundo laser aplikatzen da eta 12 dioptriagatik, 66 segundo. Ebakuntza egin ondorengo egunetan kirolak ez egitea eta, batez ere, begia ez igurtzea gomendatzen da. "Ebakuntzaren ondoren begia oso siku egoten da eta ez da komeni begia igurtzea", azpimarratu digu Atxotegik. Laser bidezko ebakuntzaren emaitzak bigarren egunerako antzematen diren arren, hiru aste pasa arte ez dira ontzat ematen. Normalean, ebakuntza gehienak ondo irtetzen dira, baina ehuneko hamarrak berririo egin behar du ebakuntza.

NORTZUEK EGIN DEZAKETE?

Hiru baldintza bete behar dira laser bidezko ebakuntzaren prozesua hasteko: 20 urtetik 55 urte artekoa izatea, azken urtean dioptria kopurua mantentzea eta miopia, hipermetropia edo astigmatismoa izatea. Hain zuzen, gaitz bakoitzean dioptria kopuru bat dago zehaztuta: miopian, dioptria batetik bederatzita dioptriara, gehienez, eta hipermetropiaren eta astigmatismoaren kasuan, bost dioptria baino gutxiago.

Edozelan ere, dioptria gehi-ago dutenek beste operazio ezberdin bat egiteko aukera dute.




Operazioa egin aurretik, oftalmologoak hainbat azterketa egiten ditu.

GOIENKARIA

PREZIOAK ASKOTARIKOAK DIRA ERABILTZEN DEN LASERRAREN ARABERA


Halako ebakuntza bat egiteagatik ordaindu beharrekoa, erabiltzen den laserraren eta ebakuntza egiten duten klinikaren arabera da. Izan ere, laser bidezko ebakuntzak klinika pribatuetan egiten dira. "Osakidetzaren eta aseguru etxeen iritiz, ebakuntza hauek edertasunagatik egiten dira. Hala, nork bere poltsikotik ordaindu behar ditu",

diosku Koldo Atxotegik. Horrenbestez, begi bakoitzagatik 1.200 euro inguru ordaindu behar dira. Azkeneko urteotan asko igo da ikusmen arazoak konpontze-ko laser bidezko ebakuntza egiten dutenen portzentajea. "Gure taldeak azken hamar urteotan 14.000 ebakuntza egin ditu; urtean 1.000 inguru egiten ditugu", esan zigun Koldo Atxotegi oftalmologoak.



centro médico UDALAITZ

<ul style="list-style-type: none"> • Erradiologia • Scanner-TAC 	<ul style="list-style-type: none"> • Ekografia • Análisi klinikoak 	<ul style="list-style-type: none"> • Mamografía • Hortz-TAC 	<ul style="list-style-type: none"> • Azterketa medikoak • Erizaintza 	<ul style="list-style-type: none"> • Erresonantzia magnetikoa • Hezurren densitometria
---	--	---	--	--

ERRESONANTZIA MAGNETIKOA	MEDIKUAK	ORDUTEGIA
<p>IREKIA</p> 	<ul style="list-style-type: none"> ■ JUAN TORRES ■ TXEMA ALUSTIZA Erradiologia ■ FATHY EIYANA Barne Medikuntza Azterketa medikoak ■ ALBERTO LLUCH Urologia <ul style="list-style-type: none"> ■ JOSE RAMON GALARZA, ■ ARSENIO DIEGO ■ EMILIO PERNAUT Traumatologia ■ JULIO URUEÑA, ■ JULIO GONZALEZ Ginekologia ■ CARMEN JACA Neumologia <ul style="list-style-type: none"> ■ ANGEL LAFUENTE, ■ ALBERTO LEGORBURU Gorputzeko minaren balorazioa ■ JULIAN IGARTUA Otorrinolaringologia ■ GONZALO SERRANO Dermatologia 	<p>Astelehenetik ostiralera. 7:30etik 12:30era. 14:30etik 19:30era.</p> <p>Ferrerias Kalea 56 • ARRASATE Nafarroako etorbidea 3 •ARRASATE Tel.: 943 79 44 22 Tel. eta faxa: 943 79 44 56 inform@cmudalaitz.com</p>
<p>Irudi bidezko proba diagnostiko guztiak digitalizatuak daude.</p>		

■ HEZUR-DENTSITOMETRIA

Ariketarekin eta ondo janda dentsitometria ekidin daiteke

GOIENKARIA

Hezur-dentsitometria oso kontuan hartu behar den gaixotasuna da. Batik bat emakumezkoiei eragiten die; menopausia igaro eta gero, eta adinean gora egin ahala gaiztotu egin daiteke. Kirola egitea eta elikadura egokia dira gaitz horri aurre egiteko neurririk egokienak.

Hezur-dentsitometria da hezurrek duten dentsitatea aztertzen duen metodo erradiologikoa. Hezurrek duten kaltzio kopurua eta ahulak diren hezurrek hausteko duten arriskua aztertzen du, hain zuzen. Bizkarrezurrean mikrohausturak izateko edo bestelako hezurrak apurtzeko arrisku handia sortzen du gaixotasun horrek. Bizkarrezurreko mikrohaustura horien ondorioz, pertsona nagusiak zentimetro batzuk txikitzen dira denborarekin.

OSO KONTUAN HARTZEKO

Hezur-deskaltifikazioak ez du inolako sintomaririk; hortaz, oso kontuan hartzekoa da. Arazoak agertzen dira, normalean, menopausia igaro eta gero; bost bat urte geroago, gutxi gorabehera. Horre-



Ondo elikatuta egotea eta ariketa fisikoa egitea garrantzitsuak dira.

GOIENKARIA

Hezur-dentsitometriak neurtzen du hezurren kaltzio kopurua

Dentsitometriak emakumezkoiei eragiten die, batez ere menopausia igaro eta gero

Elikadura eta kirola garrantzitsuak dira hezur-masa aberatsa izateko

xegatik, menopausiarekin batera oso garrantzitsua da kontrolak egiten hastea.

Adina ere kontuan hartzeko faktorea da, adinaren arabera ere eragiten baitu. Hala, adinean aurrera egin ahala, gaixotasuna dutenen kopurua gora doa. 65 urtetik gorako emakumeetan, esaterako, portzentajea %25 da.

Sexuaz eta adinaz gain, mugikortasunik ezak eta kaltzio eta D bitamina gutxiko elikadurak ere arrisku faktoreak dira.

HEMENGO OHITURAK, ONAK

Euskal Herrian ditugun ohiturak onak dira gaixotasun horren kontra. Mendia eta ibiltzea gustuko dugu, eta gainera, ondo elikatuta gaude. Faktore horiek positiboak dira hezur-masa aberatsa izateko. Kontrakoak dira eguzki ordu gutxi ditugula eta adinaren batez bestekoa handia dela.

Hezur-dentsitometria ekiditeko jarduera fisikoa egitea eta elikadura zaintzea garrantzitsua da. 60 urtetik gorako emakumeendako, esaterako, dantza egitea, igeri egitea edo paseatzea primerakoa da. Janariari dagokionez, barazkiak, fruitak eta kontserbazko arraina-kaltzio handia du- eta esneki deskrematuak dira onak.

 **Ana Etxeberria**

- Akupuntura
- Masajea
- Osteopatia

Errekalde 6 behea ANTZUOLA
Tel.: 943 76 60 13



PODOLOGOIA
ERDIKO
KLINIKA PODOLOGIKOA

- Gogortasunak, azazkalak.
- Plantillak eta silikona.
- Haur podologia.
- Kirol podologia.
- Azal arazoak:
papilomak, mikosiak...

Erdiko kale 54 behea-esk. 20500 Arrasate Tel.: 943 79 97 46

■ ETXEAN IZAN BEHAR DEN GUTXIENeko BOTIKINA

Oinarrizko botikak etxean eskura izateko

IRATI AGIRREAZALDEGI

Ez dira ohikoak izaten istripu larriak eguneroko bizitzan. Hortaz, daukagun arazoarekiko gutxieneko ezagutza eta ondo hornituriko botikina nahikoa izan daitezke etxeko istripu txikiak konpontzeko. Barruan sendabide errazetarako materiala izan behar du. Botikinean ezinbesteko sartu behar duguna zer den jakiteko farmazia batera jo dugu.

Antiseptikoa, alkohola eta ur oxigenatua

Merkromina, Betadine edo antzerako likidoa erabiliko dugu zauriak garbitzeko eta desinfektatzeko. Alkohola eta ur oxigenatua ere izan daitezke.

Gazak eta kotoia

Aurrez aipatutako likidoekin busti eta zauriak modu txukunean garbitzeko egokiak.

Tiritak, aposituak, bendak eta esparatrapua

Zauriak estaltzeko eta babesteko erabiltzen dira. Badira aposituak bereziak direnak eta esterilak, gainera.

Erredurendako krema

Erre eta segituan emanez gero azkurea kentzen du eta erredu-raren markarik ez geratzea ahalbidetzen du.

Kolpe eta bihurrituendako pomada

Kolpeengatik ateratzen diren beltzuneetan emateko zein bihurrituak egin eta mina zein hantura txikitzeko.

Zauriendako pomada

Badira pomadak lagun dezaketenak zauriak errazago eta azkarrago orbaintzen.

Analgesikoa edo paracetamola

Aspirina edo Termalgina; minak arintzeko eskura izan beharrekoa. Buruko minarendako eta sukarrarendako.

Punta borobildun guraizeak eta pintzak

Guraizeekin gazak, espadatrapua... moztu ahal izango ditu-



Hornitutako botikina nahikoa izan daitezke etxeko istripu txikiak konpontzeko.

gu. Pintzak, berriz, zaurietan sartutako zikinkeria zati txikiak edo arantzak ateratzeko erabilgarriak dira.

Suero fisiologikoa

Antiseptikoa ez bada ere, garbitzeko egokia da, arazutako uraren modukoa delako. Zaurietarako; begietan mina, trabaren bat edo betxindorra izanez gero; sudurreko kongestioa arintzeko...

Bihotzerrearendako botika edo bikarbonatoa

Urdaileko mina dugunean Almax edo azidoen kontrako botikaren bat hartuta baretuko dugu bihotzerrea.

Termometroa

Sukarra dugun ala ez jakiteko gorputzeko hotz-bero sententzia sarritan ez da nahikoa, eta termometroak esango digu.



Botikina garrantzitsua da. GOIENKARIA



Olaran Etxea 3, A10
ANTZUOLA
670 45 19 62
enaraagirre@hotmail.com

ENARA AGIRRE



CLINICA DENTAL BERGARA

12 hilabete arteko finantzaketa eta 5 urtekoa ere bai.

Hirugarren adinakoentzat deskontuak

Odontologia orokorra

Inplanteak
Protesiak
Hortz-estetika

Mutuak
Sanitas
DKV/Previasa
Asisa
Azkaran
Previsora Bilbaina
Aegón
Adeslas
Allianz
Mapfre

PADI



Bidekurutzeta 36, behea BERGARA 943 76 05 77

■ GIZENTASUNA

Janaren garrantzia gure gizartean



HAURRAK GIZEN EGOTEKO FAKTOREAK

Mireia Alberdiren ustez, faktore askok eragiten dute haurren loditasunean; jatorriak bakarrik egitea da faktore horietako bat. "Bakarrik daudenez, gura dutena besterik ez dute jaten; gero, gose direnez, orduz kanpo jaten dute", esan du Alberdik. Bizimodu sedentarioa da beste faktore bat; gaur egun, haurrak herri barruan ere autobusean ibiltzen dira, eskolara joateko, adibidez. Azkenik, etxeko erosketak egongo lirateke.

ARANTZAZU EZKIBEL

Kaloria asko hartu eta ariketa fisiko gutxi egitea dira lodi egoteko arrazoiak. Gaur egungo bizimodu sedentarioaren ondorioa da gure gizarteak bizi duen egoera; gero eta lodi gehiago dago, eta loditasuna XXI. mendeko gaitza dela esan duenik ere badago. Osasun erakundeak kezkatuta daude loditasun arazoarekin.

Azken urteotan gehitzen ari dira loditasun arazoak; hala, osasun erakundeei buruhauste gehien sortzen dizkien arazoetako bat bilakatu da. Loditasuna XXI. mendeko gaitza dela diote.


Baina loditasuna gaixotasuna da? Osasunerako Mundu Erakundeak (OMEK) aspaldi esan zuen loditasuna gaixotasuna dela.

Baina elikaduran aditua den Mireia Alberdi ez dago guztiz ados horrekin: "Lodi egoteko faktore asko daude; horietako bat genetika da", azaldu du Alberdik. Bestalde, loditasunak beste hainbat gaitz ere eragin ditzake.

LODI EGOTEKO ARRAZOIAK

Lodi egoteko arrazoi nagusiak kaloria asko hartu, elikadura eta ariketa fisiko gutxi egitea da. Ingurumenak eta bizimodu sedentarioak ere eragin zuzena dute horretan; baina horiei, faktore psikologikoa eta genetikoa ere gehitu behar zaizkie.

Lodi dagoen edozein pertsonak arazoari aurre egiteko espezialistarengana joan behar du. Elikadura eta ariketa fisikoa dira tratamendu garrantzitsuenak. Baina botikak eta laguntza psikologikoa ere izan daitezke.



NAGUSIEK ERE, FAKTORE BERAK

Nagusien arrisku faktoreak eta haurrenak oso antzerakoak dira. Batetik, bizitza sedentarioaren eragina dago; bestetik, faktore emozionala egongo litzateke. "Antsietatea dugunean jan egiten dugu, atsegina bilatzeko. Baina, oinarrian, argitu gabeko arazoak daude. Janarekin gozamina bilatu gura dugu, baina janaren betebeharrak nagusia elikatzea da", azaldu du Alberdik. Publizitateak ere eragin zuzena du elikaduran.



Arregui
HORTZ KLINIKA
CLINICA DENTAL

Bixente Ferrer 3 20500 Arrasate (Gipuzkoa)
Tel.: 943 79 71 90
ardent@infomed.es

ortodontzia • odontologia • implantatologia
protesia • hagin-zuritza laserrarekin

Estetika zentroa



Igaro

Barrenkale 35
BERGARA

Orain IGAROn

kirolarien prestakuntzan espezializatutako profesionalak

Gorputz hezkuntzan titulatuak • Kirol kiromasajista eta terapeutikoa • Oinen erreflexologia


Mendi lasterketetan Euskadiko selekzioaren masajista

Elite zein 23 urtez azpiko mailetan hainbat txirrindulari taldetako masajista.

Kirol masajea eta terapeutikoa

Muskulu-gainkarga • Bizkarreko mina • Muskuluetan mina • Kontrakturak • Kontusioak • Tendinitisa
Tortikolisa • Lunbagoa • Lunboziatika • Artikulazioetan mina • Meniskoan mina • Bihurrituetan mina • Eta abar

Informaziorako: 943 76 17 27



■ ELKARRIZKETA: PILAR PASCUAL / EMAN ESKUA TALDEKO LEHENDAKARIA

"Ez gara depresiboak, baina informazio falta tristea da"

MAIER URANGA

Fibromialgia gaitz erreumatiko kronikoa da. Sufritzen dutenen %95 emakumeak dira. Gehienontzat ezezaguna den XX. mendeko gaixotasun horren sintoma nagusia giharretako mina da, eta nekealdia sentituko da esnatu bazain laster. Ez dago sendabiderik, eta jatorria ere ez da ezagutzen. Erantzunak bilatu nahian sortu zuten Eman Eskua, Bizkaian.

Nola jakin zenuen gaitza zenuela?

Sintoma ezberdinak nituen; lehenengo belauneko minekin hasi nintzen, sendagileak traumatologoarengana bidali ninduen eta hark era guztietako probak egin zizkidan: eskaneerrak, erresonantziak... Eta ezer ez nuela esan zidan. Medikatu batetik bestera ibili nintzen, botika ezberdinak eman zizkidaten sendatuko nintzelakoan, baina nik berdin jarraitzen nuen. Kizkurguneak alde guztietan izaten nituen, inongo esfortzurik egin gabe.

Medikuarengana joan izan zarenean, nahikoa laguntza eta informazio eskaini dizute Gizarte Segurantzatik?

Nik neuk zorte handia izan dut neure sendagilearekin, baina gaur egun oraindik badago medikurik gaitz hau existitzen denik sinisten ez duenik ere. Izan ere, gaixotasun gaztea da, 1995ean onartu zuen Osaunerako Mundu Erakundeak gaixotasun gisa.

Bai; ordu arte *etxeoandre menopausikoaren sindromea* izenez ezagutu izan dugu. Bere kaltea inon ageri ez denez, emakumeak atentzioa emateko erabiltzen zuen sinismena ere izan da; seme-alabak etxetik joatean sentitzen zuen faltaren erantzun edo protesta moduan ere ulertzen zuten batzuek.

"Nekatuta esnatzen gara beti, lo egiteko ere arazoak izaten ditugu"

"Analisi eta frogatu guztiak ondo ematen ditugu; hala, askok ez du egoera ulertzen"

Sendabiderik oraindik ez diote aurkitu, baina hobeto eramateko bada zer eginik?

Komeni da giharrak ez atrofiatzeko ariketa fisikoa neurrian egitea. Ohean egonda giharrek indarra galtzen dute, eta hori ez da komenigarria.

Minarentzat analgesikoren bat, eta mina handia bada, zerbait gogorragoa. Lasaigarri muskularrak eta antidepressiboak, horiek ere muskuluak lasaitzen laguntzen dute.

Depresioa ere izaten duzue?

Ez. Zaila da informazio faltaz bizi izatea; ezin zarenean lanera joan, etxean lehen moduan erantzun ezin duzunean, bai, triste jartzen gara. Ez da erraza gaitz hau jendeari azaltzea. Baina depresiboak ez gara.

Erantzun falta horren aurrean elkarte mordo dagoela ikusi dut. Zu Eman Eskua elkarteko lehendakari zaitugu; zertan datza?

190 bazkide inguru gara jadanik. Bilboko Printzipe kalean dugu egoitza, eta astean zehar goizero egoten gara bertan, 11:00etatik 13:00ak bitartean, datorrenari informazioa eskain-



Pilar Pascual.

GOIENKARIA

tzeko. Tarteka hitzaldiak antolatzen ditugu, eta Eusko Jaurlaritzara ere joan gara: etxeko medikuak gaixotasun honen inguruan informatuta egon daitezela eskatu dugu. Gure helburua, Valentzia eta Bartzelonan bezala, diziplina askotako taldea

sortzea da. Terapia ere badaukagu, laguntza psikologikoa nahitaezkoa baita. Bizitza goitik behera aldatzen zaizu, oso gogorra da. Jadanik ezinezko gertatzen zaigu nahi beste gauza egitea, indarrak antolatzen ikasten dugu azkenean.





IKERLEKU
PODOLOGIA ZENTROA

Oinetako gaixotasunak

Azterketa biomekanikoa

Kirol podologia

Neurrira egindako plantillak

Ikerleku zeharbidea BERGARA 943 76 07 84

GINEONATE

Javier Rodriguez Santos doktorea
Elkargokide-zenbakia 5685

Kontsulta orduak:
ostiraletan 9:00-18:00

Dei ezazu ordua eskatzeko
Tel.: 943 78 24 89

- Azterketa ginekologikoak
- Haurdunaldiaren kontrola
- Laguntza bidezko ugalketa

URIARTE LABORATEGIA

Fernando Uriarte Santos doktorea
Elkargokide-zenbakia 6246

ANALISI KLINIKOAK

Kontsulta orduak:
asteazkenetan 9:00-10:00
Tel.: 943 46 34 41



Atzeko kale 6 – behea (Makalenako haur parkearen ondoan) Oñati

“eSTYLE; Estetikan kontzeptu berri bat”



M. Carmen Pardo Abad
Lirain Zentroko arduraduna

Lirain Estetika Zentroko arduraduna da Mari Carmen Pardo. Lirainek betidanik izan du bezeroaren beharrak betetzeko grina. Eguneroko beharrei erantzuteko ezinbestekoa da puntako tresneria erabiltzea emaitza hobeak eta iraunkorragoak lortzeko.

Duela hilabete batzuk, gorputz tratamenduetan azken iraultza aurkeztu zigun, VELASMOOTH. Orain, eSTYLE teknikarekin aurpegi tratamenduetan aurrerapauso garrantzitsua eman nahi da.

Lehenago VELASMOOTH eta orain eSTYLE, zertan bereizten dira?

ELOS teknologia bietan erabiltzen da. VELASMOOTH teknika gorputz tratamenduetarako erabiltzen dugu; eSTYLE, ordea, aurpegi tratamenduetarako.

- Zertan datza ELOS teknologia?

Argiaren energia eta tratamendu mediku-estetikoetan erabiltzen den irrati-frekuentzia konbinatzen ditu, eta orain arte izan ez diren emaitzak lortuz.

- Ze kasutan erabiliko genuke VELASMOOTH teknika?

VELASMOOTH teknikak, irrati-frekuentzia eta argiaren energiak gain, bakunaterapia eta masajea konbinatzen ditu; horregatik, gaur egun, zelulitisaren aurkako eta gorputza modelatzeko tratamendurik onena da, eta LPGrekin lortzen ez genituen emaitzak lortzen ditugu.

- Eta eSTYLE teknika?

Argiaren eta irrati-frekuentziaren konbinazioari esker kapa sakonagoetan lan egitea

lortzen dugu, eta emaitza hobeak lortuz. Teknika hori zimaur, akne, bigundura, orban eta lesio baskularretan aplikatzen da.



" eSTYLE teknika zimaur, akne, bigundura, orban eta lesio baskularretan aplikatzen da ".



- Noiz hasten dira ikusten emaitzak?

VELASMOOTHen kasuan, saio batzuekin taila edo neurri jaitsiera igartzen da eta azal laranja desagertzen da. Bost astean, orain arte lortu ez diren emaitzak lortzen dira. eSTYLEren kasuan, azalaren kalitatean hobekuntza hasieratik nabarmentzen da, zimaurrak leuntzen ditu eta aknean ere azkar igartzen dira emaitzak.

Gutxienez hamar saio gomendatzen dira, astean bi saio. Tratamendua amaitu ondoren eta hurrengo hilabeteetan emaitzak hobetuz doaz, irrati-frekuentziaren ondorioz sortutako kolagenoa dela-eta. Gero, hilean behin mantentze saio bat egitea gomendatzen da.


- Zenbat denbora irauten dute emaitzek?

ELOS teknologiak ekartzen duen irrati-frekuentziarekin, azal azpian kolagenoaren sorrera suspertzen du. Horrela, emaitzen iraupena norberaren zahartze prozesu naturalaren eta egindako mantentze saioen arababerakoa izango da.


GALILIO: FITNESS ETA ONGIZATEAREN ETORKIZUNA

Bost minutu Galileorekin korrikan 30 minutu edo oinez 5 kilometro ibiltzearen parekoa da.

Plataforma bibrakor bat da, eta muskuluen biguntasunari eragiten dio tonifikazioaren bitartez, **zirkulazioa aktibatuz** eta **potentzia muskularra** areagotuz. Honen ondorioz, **odol-zirkulazioa aktibatzen** da eta **gantzak erretzea** errazten da.




Kirol prestakuntza hobetzen du.



Zelulitisa hobetzen du.



Ongizatea lortzen da.



Rehabilitazioa suspertzen du.

GALILEO TXARTELAREN ESKAINTZA

12 saio = 55 €

Informa zaitez



LIRAIN
ESTETIKA ZENTROA

Bixente Ferrer, 1 ARRASATE Tel.: 943 79 52 17 Faxe: 943 77 08 15

mima zaitez!

Nire bidaia hura

Agurtzane Crespo
Kroazian egon zen oporretan > 2007ko uztailan

"Egindako 7.000 kilometroak astunak baina aldi berean zoragarriak izan dira"

JASONE ZABALA > BERGARA

Agurtzane Crespo eta haren mutil-lagun Igor Lizarazu Kroazian egon dira aurtengo udako oporretan. Tourreko etapa bat, Venezia, Eslovenia eta Bosnia-Herzegovinako Mostar ere ikusi zituzten.

Uztailaren 21ean atera ziren Agurtzane eta Igor Bergaratik. Inoiz egon gabeko lurraldea zen Kroazia, eta bertako ingurua bisitatzeko gogoia zuten.

Gutzira 25 eguneko bidaia izan zen. Lehenengo egonaldia Plateau de Beillen izan zen, Pirinioetan, Tourreko etapa amaiera bat ikusteko, eta ederki ibili ziren txirrindulariak animatzen.

Handik Veneziaara joan ziren; han, gondolak ikusi zituzten, baita urak ia estaltzen dituen etxeak ere: "Ezagunek esan ziguten bertako kaleetan usain txarra egongo zela, dena ur artean baitago, baina ez zen hala izan", azaldu digu Agurtzanek. Ondoren Esloveniara joan ziren: "Bertan, makinatxo bat gauza ikusi genuen, besteak beste: Postojna kobazulo famatuak, Ljubljana hiriburua eta Bled laku zoragarria".

KROAZIA, OSO POBREA

Handik Kroaziara abiatu ziren, eta lehenengo geldialdia Zagreb hiriburuan egin zuten: "Kroazia barrualdeko herriak eta inguruak oso pobreak dira, eta zenbat eta kostalderago joan, orduan eta atzeritar eta turismo gehiago ikusten da", aipatu du Agurtzanek; gero, Istriako penintsulara joan ziren: "Kroaziako kostan, iparralderen dagoen penintsula da Istriakoa"; kostan barrena, Mostar pasatu eta Dubrovnikeraino jaitsi ziren. Bidean, Plitviceko lakuetan eta Paklenica parke naturalean ere egon ziren. "Dubrovnikera heldu ginen egunean, gainera, aurreko gauean izan zuten sute handi bat itzali berri zuten", esan digu bikoteak. Etxerako bidean, ferrya har-

tu zuten Italiaraino eta handik etxera etorri ziren autoz; tartean, Genoan eta Modenan ere gelditu ziren. Gehien gustatu zaizkien lekuen artean, hauek nabarmendu zituzten: "Esloveniako Bled lakua ikusgarria iruditu zitzaigun eta Kroazia barruan, Rovinj, Plitvice eta Dubrovnik gustatu zaizkigu gehien".

Jana ere, ez etxean bezala baina janari goxoak dastatu dituzte: "Batez ere Eslovenian eta Kroazian, eta hango gazta eta eztikiak oso onak zeuden".

Gutxien gustatu zaiena, aldiz, Kroazian dauden errepideak izan dira, eta, Agurtzanek dioen moduan, "nahiz eta berritze lane-



Agurtzane Crespo.

"Diferentzia izugarria dago: Kroaziako kosta turismoz beteta dago eta barrualdeko herrietan pobretasuna da nagusi"

"Orokorrean paisaia izugarriak daude, baina batez ere Esloveniako Bled lakua ikusgarria iruditu zitzaigun"

tan dabilzan, oraindik ere asko falta zaie errepide sare egokia edukitzeko".

Hizkuntzari dagokionez, hango jende askok ez daki ingelesez, ezta frantsesez ere, baina turistaren bat ikusiz gero, beti daude laguntzeko prest, eta Bergarako bikote horrek dioenez, "bertako jendearekin izandako harremana oso positiboa izan da, leku batzuetan ikusi baitugu jatekorik ere ez duten arren emateko dena daukatela".

Agurtzanek eta Igorrek zalan-tzarik gabe errepikatuko lukete bidaia, eta ikusi gabe utzi dituzten herriak eta leku zoragarriak bisitatuko lituzkete, nahiz eta, Agurtzanek dioen moduan, bidaia oso luzea izan den: "Ia 7.000 kilometro izan dira, eta azkenean nahiko astuna egiten da, baina ikusitakoaz asko disfrutatu dugu". Bidaia eder hori gomendatzekotan argi daukate: "Bidaiaztea eta leku berriak ezagutzea gustatzen zaion edonori".



MOSTAR Agurtzane, gerra ondoren famatua egin zen Mostarreko zubi zaharretik begira.

bere ustez



Aitziber Azkondo

Pobrezia uste duguna baino gertuago...

Pobreziaren nazioarteko eguna izan zen pasa den astean. Munduan mila milioi pertsona baino gehiago dago pobrezia egoeran. Pobrezia egoeran daudela diot eta ez mila milioi pobre daudela, Zero Pobrezia plataformako kideak GOIENKARIAN idatzitako azalpenarekin bat eginik. Jendea ez baita pobre, baizik eta pobrezia egoeran bizi da.

Hala ere, urrutian bizi den egoera dela pentsatzen dugu. Horren susmoa daukat, behintzat. Jakin badakigu dagoela, larria dela, baina ez dugu gure

"Urrutian bizi den egoera dela pentsatzen dugu, eta gure ondoan dagoen arazoa da"

inguruarekin lotzen. Ezezagunei gertatzen zaien zerbait da. Herritik kanpo dagoen zorigaitza. Euskal Herrian, 50.000 familia bizi dira egoera honetan. Atzeritarrak asko, baina bertakoak ere bai. Behin telebistan, erreportaje batean supermerkatuek utzitako zaborrak nola arakatzen eta jasotzen zituzten ikusi nuen. Nola orduak ematen zituzten supermerkatukoek edukiontzia noiz aterako zain.

Pasa den astean bertan, gure herrian egoera bera ikusi nuen zuzen-zuzenean, aste-ko erosketak egitera joan eta kontainerrak miatzen zebiltzan. Telebistan txunditu ninduten irudi berak ziren. Oraingoan Bergaran. Honen aurrean, agintariek badakite zer egin behar den, baina noizko?

Kabutzia

ARRAINDEGIA

Fraiskozuri 6
BERGARA
Tel.: 943 76 56 62

BERGARA MARMOLERIA
PEDRO SALEGI OSA

Sukalde eta bainu enzimarak

Urarte 8 BERGARA
Tel.: 943 76 11 99 / 14 47
Faxa: 943 76 04 77

SANTOS
RENOVE PLANA

TIEN 21

%10eko DESKONTUA eta ordain ezazu 10 hilabeteetan interes gabe!

Masterreka 2. BERGARA
Tel.: 943 76 26 10

ZABALA
JATETXEA • OSTATUA

Labegarieta, Ibarra 14
BERGARA.
Tel.: 943 76 20 07 - 76 42 57

1929az geroztik zure zerbitzura

Aretxabaleta eta Eskoriatzako taberna eta jatetxeen gida



ARLUTZ
TABERNA

Gustuko musika

Mitarte 16. ARETXABALETA Tel.: 943 79 32 34

hemen bada
giro!



EZKUTU
TABERNA

Zatoz gure musikoz gozatzera

Mitarte 9 ARETXABALETA Tel.: 943 79 92 01

VALDEZATE



Bokatak eta plater konbinatuak

Araba ibilbidea 5, behea - Tel.: 943 25 07 40

IOSU

taberna
harategia

Urdaitegia-gozotegia
Kroasantegia
Gertatutako janariak

Mitarte 1
Tel.: 943 77 03 08




EXPRESS TABERNA

Santa kurtz 16 Aretxabaleta
Tel.: 943 79 23 43

Dorleta



Loteria primitiboak
eta kinielak

DORLETA TABERNA
Loramendi, 8 Tel.943 79 94 15 ARETXABALETA

OTZETA JATETXEA



Aranburuzabala 9 ESKORIATZA Tel.: 943 71 31 67

BASABE

Menuak eta afariak



Basabe poligonoa ARETXABALETA 943 77 07 94

Gurea
TABERNA



Durana 32 Aretxabaleta Tel.: 943 79 20 64

HIRUSTA JATETXEA



Ilargi plaza 4. Tel.: 943 79 06 57



Herriko plaza Aretxabaleta Tel.: 943 79 09 33

ZARAIA
taberna

Goizeko 06:00etik irekita

Araba Ibilbidea 20 • ARETXABALETA
Tel.: 943 79 88 95



hemen bada
giro!



Matikua jatetxea

Azatza auzoa ARETXABALETA 943 79 16 68

DATUA

515.114

3.700.000 euro inguruko aurrekontua izan du kulturarako eraikinak, eta hortik, 515.114 euro ekipamenduetarako erabiliko dituzte: altzariak, argiteria, soinua, proiektzioarako materiala eta beste hainbat tresna erosteko.

ko dituzte lanok, eta urriaren 17an argitaratu zituzten oinarriak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean. Hala, azaroko lehen egunak arte izango dute epea interesatuek proposamenak aurkezteko. Kultura etxea, gaztelekua, musika eskola eta liburutegia altzariz hornitze-ko 252.169 euroko aurrekontua aurreikusi du Udalak. Behin lanak esleitura bi hilabeteko epea izango dute altzariz erabat hornitze-ko eraikina. Eta hori egindakoan lekualdatzeak hasiko dituzte. Hirigintzako arduradunek uste dute nahiko samur egingo dituztela lekualdatzeok, materiala baka-rrik eroan beharko dutelako eraikin berrira. Liburutegiak eman-ko ditu lanik handienak, liburu guztiak mugitzea eskatzen duela-ko. Bide batez, ordenagailu berriak jarriko dituzte, uztailean lapurtu zituztenen orde.

ERABILERA ASKOTARIKO ARETOA

100 bat lagunendako izango den aretoak hainbat erabilera izango ditu: film proiektzioak, antzerkiak... Horrek guztiak ekipamendu egokia eskatzen du, eta hiru lehiaketa deialdi egin ditu Udalak: soinu, bideo proiektzio eta interkomunikazioarako ekipamendua eskatu du, batetik, eta 95.350 euro aurreikusi ditu horretarako; 35 mm zinema proiektzio-ekipamendua gura du, bestetik, eta 79.046 euro bideratu ditu; eta azkenik, makineria, argiteria eta oihalak erosteko deialdia egin du, 88.549 euroko aurrekontuarekin. Hiru ekipamenduok zazpi astean jarri beharko dituzte.

Aurkeztutako proposamen guztiak epaimahaiak aztertuko ditu. Alkatea izango da epaimahai-ko presidente eta honakoak mahai-kideak: alderdietako ordezkariak, kultura eta obra eta zerbitzuen teknikariak eta kontu-hartzailea. Gela eta aretoak altzariz hornitzen ibiliko dira abendu inguruan.



KULTURARAKO ERAIKINA Eraikitze lanak bukatzen dabilta Santa Kurtz kalea eta Herriko Plaza artean dagoen eraikinean.

M.A.

KULTURA > SANTA KURTZ KALEKO ERAIKINA

Kulturarako eraikina 2008ko lehen hiruhilabeteterako zabalik

Ekipamendua erosteko lehiaketa deialdiak joan den astean argitaratu zituzten

Bi hilabeteko epea dute altzariak jartzeko, eta gero lekualdatzeak hasiko dituzte

MIRARI ALTUBE > ARETXABALETAKO

Aurrera doaz kulturarako eraikinaren lanak. Ia urte bi pasatu dira -2005eko azaroa- eraikin zaharra bota eta lanak hasi zituztenetik, eta txikikeriak geratzen dira eraikitze lanak bukatzeko.

Santa Kurtz kalea eta Herriko Plaza artean dagoen eraikinak bost gune nagusi ditu: gaztelekua, musika eskola, liburutegia, kultura etxea eta erabilera askotariko gela. Lehenengo lau guneak abuztuan bukatu zituzten, halaxe hitzartuta zutelako Bruesa enpresa eraikitzailearekin; eta 100 lagun ingururendako lekua izango duen aretoa abendurako bukatzea daukate aurreikusita.

Hala, urte berriarekin batera zabalduko dute eraikina; lehen hiruhilabetean izango delakoan daude Udaleko Hirigintza Saileko arduradunak.

ALTZARIZ HORNITZEA

Behin eraikitze lanak bukatuta beharrezko ekipamenduz hornitu behar dute eraikineko gune bakoitza. Lehiaketa bidez esleitu-

KONTUAN HARTZEKO

Zelan dinamizatu erabaki behar

Kultura etxeko lanak bukatzen dabilta, eta, atzeratuta ere, datorren urte erdialderako zabalik izango ditu gune guztiak. Eta orduan zer? Erabilera askotariko aretoak hainbat aukera eskainiko ditu, eta zer antolatu, zeinendako, noiz..., hau da, zelan dinamizatu pentsatu behar dute orain udal agintariek. Herritarrek azken urteotan egindako kultura eskaerei erantzuten asmatu beharko dute. Kultura zingotzi Lore Martinezek argitu digu hainbat bilera egin dituztela kultura etxearen kudeaketa zelan bideratu erabakitze, baina oraindik ez dutela erabakirik hartu.

**BENGOA
URDAITEGIA**

Bertako okelak eta odolosteak

Durana 9. Aretxabaleta - Tel.: 943 79 19 79

GARBITU KOOP. ELK.

Garbiketa orokorrak eta mantentze-lanak

Obra bukaerako garbiketak

Auzotarren komunitateen eta garajeen garbiketak

Kristalen garbiketak

Errekabarren 3- Behea ARETXABALETAKO

Tel: 943 79 01 28 / Mugikorra: 606 665 448

PSE-EE > UDALA OSATU ETA 100 EGUNERA EGINDAKO BALORAZIOA

Herriko PSE-EEk dio EA Eren morroi direla Aralar eta EA

Salatu du indarkeriaz egindako ekintzak ez dituela gaitzetsi udal gobernuak

PSE-EEk dio erabakirik hartzeko gai ez delako geldi daudela proiektu garrantzitsuak

MIRARI ALTUBE > ARETXABALETA

Udala eratu zenetik 100 egun pasatu ostean, udal gobernuaren balorazioa egin du Aretxabaleako PSE-EEk prentsa ohar baten bidez.

GAITZESPENIK EZ

Aralar, EA eta Eusko Abertzale Ekintzak sinatutako gobernu onerako hitzarmena" ez dela ezertan geratu" dio, eta gaineratu: "EAE atzeko atetik gobernura sartzeko izan da, eta Aralar eta EA bahituta ditu Udaleko beste kide batzuk jasaten duten indarkeria eta jazarpena gaitzesteko orduan".

Alkatea salatu dute, gainera, emandako berba ez duelako bete: "Konpromisoa hartu zuen eta bermatu sinatutako hitzarmenak indarkeriaz egindako ekin-



PSE-EE-KO ZINEGOTZIAK Udala eratu zen egunean egindako osoko bilkuran Ainhoa eta Angel Sagarribai zinegotziak. M.A.

tza guztiak gaitzetsiko zituela, baina momentuz isilik daude". Eta salatu du udal gobernuak oraindik ez duela gaitzetsi PSE-EEko zinegotziek etxean izandako eraso, pintada eta pankarta mehatxagarriak jarrita. "Aretxabaleako alkateari eskatzen diogu jazarpena jasaten dabiltzanen alboan egoteko", gaineratu dute.

Udala eratu zenetik 100 egun pasatu dira, eta balorazioa ezin txarragoa dela esan dute: "Ez dakigu zein politika diseinatuko dituzten herriak dituen arazoak konpontzeko. Programa bako gobernua da, eta proiektu garrantzitsuak geldi daude, erabakirik hartzeko gai ez direlako". Eta bukatu du esanaz gutxiengoan

dagoen gobernua dela, oposizioarekin parekatuta dagoena, bost zinegotzi bakarrik dituztelako.

ASTELEHENEAN, MOZIOA

Udal gobernuko kideek ez dute adierazpenik egin gura izan, baina astelehenean ezohiko osoko bilkura egingo dute mozio bat aurkezteko.

ELKARTRUKEA > KURTZEBARRI BHI INSTITUTUA

Herbehereetako ikasleak hartuko dituzte bihar Kurtzebarri BHI institutuko ikasleek

Irteerak, elkarren arteko jarduerak eta ospakizunak egingo dituzte Merlet College ikastetxeko ikasleekin, azaroaren 2a bitartean

M.A. > ARETXABALETA

Cuijk (Ipar Brabante) herriko Merlet College ikastetxeko taldeari ongietorria egiteko gertu daude Kurtzebarri BHI institutuan. DBHko 4. mailako ikasleek eta familiek harrera egingo diete etxeetan Herbehereetatik datozten gazteei. Bihar, urriak 27, iritsi eta azaroaren 2a bitartean izango dira gure artean.

Hainbat ekintza dituzte antolatuta antolatzaileek Holandako ikasleendako: irteerak -Oñati, Leintz Gatzaga, Donostia eta Bilbo-, elkarren arteko jarduerak, ospakizunak... Eta guztia



ELKARTRUKEA Aretxabalearrak eta holandarrak elkarrekin iaz. KURTZEBARRI ESKOLA

euskal kultura eta Kurtzebarri BHIk duen lan egiteko modu erakargarria ezagutzeko, ingelesa erabiliz.

HOLANDARA MARTXOAN

Oinak lurtean, begirada izarretan leloa duen ekitaldia nazioarteko elkartruke programaren

lehen urratsa da. Bigarrena aretxabalearrak Cuijk herrira joatea izango da, datorren urteko martxoaren 8tik 14ra. Iaz jarri ziren lehenengoz harremanetan bi ikastetxeak, eta egokia izan zela iruditu zitzaizen ikasle, irakasle zein gurasoei; hala, bigarren elkartrukea antolatu dute.

LEHIAKETA

Argazki lehiaketa antolatu du Murruxok

M.A. > ARETXABALETA

Datorren urteko egutegiko argazkia aukeratzeko argazki lehiaketa deitu du Murruxok Mendizale Elkarteak.

Lau argazki aurkez ditzake bakoitzak; paperean edo digitalarekin aterata. Argazkiaren deskribapena egin beharko du egileak; hau da, non ateratakoa den eta agertzen dena azaldu. Eta gutun-azal baten egilearen datuak zehaztu behar dira: izen-abizenak, helbidea eta telefono zenbakia. Lan guztiak itzuli egingo dituzte. Sariak izango dira 150 euro eta bazkideei banatuko dieten egutegiko azalean agertzea.

Lanak aurkezteko azken eguna azaroaren 13a da. Murruxokeroan behar dira martitzenetan, 19:00etatik 20:00etara edo Aretxabaleako 34. posta-kutxara bidali.

> IRTEERA

Areantzara egingo dute irteera, ludotekak antolatuta

Bihar, zapatua, mendi buelta egingo dute herriko ume eta gaztetxoek. Bainuetxe industriale alboko bidegorrian gora Areantza auzora antolatu du irteera Algara ludotekak. 4 eta 12 urte arteko herriar guztiendako izango da, ez bakarrik ludotekako bazkideendako, eta 6 urte artekoek gurasoen edo nagusi baten ardurapean joan beharko dute. 10:30ean aterako dira, Gernika plazatik, hau da, ludoteka aurretik, eta 13:00ak ingururako aurreikusitako itzulera antolatzaileek.

> PARROKIA

Otoitzaldia egingo dute martitzenean, ikasturtea hasteko

Pastoral ikasturteari hasiera emateko otoitzaldia egingo dute martitzenean, hilak 30, 19:30ean, Agustindar mojen monasterioan. Pastoral barrutiko eliztar guztiak dute otoitzaldirako gonbidapena, eta parrokiako Bizian Gora taldekoek gertatu dute; *Otoitzean ebanjelioaren entzule, munduan ebanjelioaren lekuko* leloa izango du.

Urriaren 31, bestalde, Domu Santu bezpera da eta meza 19:30ean esango dute parrokiaren.

> IKASTAROA

Masaje txinatarraren gaineko ikastarorako izenematea bukatzean

Astelehenean, urriaren 29an, bukatuko da masaje txinatarraren gaineko ikastarorako izena emateko epea. Loramendi Euskara Elkarteak antolatu du, eta azaroaren 5etik 26ra bitartean izango da, astelehenean, 18:00etatik 20:00etara. Maitena Arana arrasatearrak egingo ditu gidari lanak. Izena emateko Loramendira deitu edo bertatik pasatu behar da; bazkideek 20 euro ordaindu behar dituzte eta bazkide ez direnek, berriz, 25 euro.

Jon Díaz

Harakina

Loramendi 1
Tel.: 943 79 71 69
20550 ARETXABALETA



GANBARA TXIKI Abesbatzak hainbat irteera egin ditu hiru urtetan zehar. Irudian, kantariak Guggenheimen.

GOIENKARIA

MUSIKA > GANBARA TXIKI ETA TXIKITXOAK ABESBATZAK

Ganbara Txikik emanaldi ugari ditu

Ganbara Txiki, Txikitxoak eta kantu tailerretako ikasleek ahots teknikako eskolak hartuko dituzte

MIREN ARREGI > OÑATI

Adinaren arabera lau taldetan banatuta daude Ganbara Txiki abesbatzako haurrak: 4 eta 5 urte bitartekoak Kantu Tailerrak I taldean daude; Kantu Tailerrak II, berriz, 6, 7 eta 8 urteko umeek osatzen dute; adin hori gainditzen dutenean, Txikitxoak abesbatzara egiten dute salto; eta azkenik, 12 urte betetzen dutenetik 18 urte betetzen duten arte, Ganbara Txiki abesbatzaren sar-

tzen dira neska-mutikoak. Talde horiek guztiek hasita dute dagoeneko ikasturtea. Kantu tailerretako bi taldeek, Alaitz Urkiaren gidaritzapean, ordu bete entseatzeko dute astean. Txikitxoak abesbatzak bi ordu egiten ditu Aitor Biain zuzendari lanetan dela, eta Ganbara Txikik hiru ordu; hura ere Aitor Biainek zuzentzen du. Talde bakoitzari, astean beste ordu erdi gehitu behar zaio entsegutan; izan ere,

aurten, berrikuntza moduan, ahots teknikako eskolak hartuko dituzte haur abeslariek, Marta Velasco kantu irakaslearen eskutik.

Hainbat dira Ganbara Txiki, Txikitxoak eta tailerretako ikasleekin irakasleek lortu nahi dituzten helburuak: nagusia da musikaz gozatzea eta musikaz gozatzen ikastea. Haurrek modu egokian abesten eta hitz egiten ikastea ere lortu nahi dute; horretarako, ahots teknika lantzen dute: arnasketa egokiaren garrantziaz oharrarazten dituzte haur eta gaztetxoak, abesteko orduan posturak duen garrantzia

erakusten zaie, eta, azken finean, eta laburbilduz, egoki hitz egiten eta abesten ikasteko teknikak lantzen dituzte. Beste helburuetariko bat "kultura transmisioa" da: "Batez ere, euskal folklorea lantzen dugu, baina horretaz gain beste estilo batzuk ere jorratzen ditugu: besteak beste, musika afrikarra, ingelesa, erlijiosoa, gospela eta jazza. Haurrek munduko txoko desberdinetako musika ezagutzeko ere garrantzitsua da", dio zuzendariak, Aitor Biainek. Gainera, beste toki batzuetako kulturak ezagutzeko jardunean, ahotza eta dantza, biak uztartzen dituzte Ganbara Txikikoek. Izan ere, gorputzaren mugimendua lantzea ere abesbatzaren helburuetariko bat da.

Lan handia egin du Ganbara Txikik duela lau urte lehen notak abestu zituenetik. Bada, urte hauetan zehar egindako lanak fruituak eman ditu eta fruitu horiek aurrerantzean egingo dituzten kantaldien bidez erakutsiko dituzte.

EMANALDIAK

Azaroaren 4an, Bartzelonako abesbatza batekin, Oñatiko Santa Ana aretoan emango dute kontzertua. Ganbara Txikiko neska-mutikoak Aste Santuan izan ziren Bartzelonan, eta orain, hango abesbatza etorriko da Oñatira kontzertua eskaintzera. Azaroaren 21ean, aldiz, Gipuzkoako abesbatzen federazioak antolatuta, *Gabon kantuz* izeneko musika zikloan hartuko dute parte, eta kontzertua eskainiko dute Eibarren. Azaroaren 24an ere hitzordua dago oñatiko Santa Anan, bertan izango dira eta Goikobalu Txiki eta Ganbara Txikiko haurrak emanaldia egiten.

Gabon garaian, abenduaren 27an hain zuzen ere, *Jolasean* izeneko musikala estreinatuko dute. Jolasean, Josu Elberdin konposatzaile errenteriarrak espresuki Ganbara Txiki abesbatzari eginko obra da.

Informazio gehiago 638 72 43 35 telefonoan edota ganbaratxiki@ganbara.org helbidean.

> HEZKUNTZA

Elkar Heziko elkartruke programa abian dago

Herbehereetatik 19 ikasle eta bi irakasle iritsiko dira urriaren 28an Oñatira. Azaroaren 3ra arte egongo dira gurean. Askotariko ekintzak egingo dituzte gaztetxoek eta Elkar Heziko eskoletan parte hartuko dute.

Proiektu horren muina Europako herrialde txikietan hizkuntzen irakaskuntza-ikaskuntza da. Elkartrukea Holandako Mill-Hill College ikastetxearekin egingo dute. Izan ere, Euskal Herrian moduan, hizkuntza gutxitua dute. Helkar Heziko ikasleak martxoaren 9an joango dira.

> GAZTE ASANBLADA

Domekan izango da batzarra, 17:30ean San Martinen

Urriaren 28an, domeka, 17:30ean egingo dute San Martinen ikasturteko lehen batzarra.

Gazteen kezka eta beharrei konponbidea gazteek eman behar dietelako lelopean egingo dute. Gazte Asanbladak gonbita egin die iritzia eman nahi duten guztiei.

> TXOSNAK

Txosnako zozketako zenbaki sarituak honakoak dira

Hauetako txosnako zozketako zenbaki sarituak, lehenengotik laugarrenera: 2.667, 0039, 6.218, eta 0438. Txartelak azaroaren 5a baino lehen eraman behar dira Antton tabernara. Sariak: nekazaritza turismo baten egonaldia, DVD bat eta bi pertsonarendako bi afari Antton tabernan.

HEZKUNTZA > HAUR ETORKINEN INTEGRAZIOA

Haur etorkinendako programa abian

Udaleko Euskara eta Hezkuntza Departamentuak antolatu du bosgarrenez integrazio programa

MAIDER ARREGI > OÑATI

Haur etorkinek euskara barnerratu eta haien integrazioa lortzea du helburu programak. Horretarako, jolasak, eskola lanak eta abestiak lantzen dituzte, euskaraz. Ume bakoitzaren adin eta erraztasunaren arabera egiten dituzte jarduerak. Txikienek, esaterako, errazago ikasten eta barnerraten dutela euskara adiera-

zi digu Lierni Axpe irakasleak. Izan ere, prozesua naturalagoa da. Gaztetxo bakoitzak integratzen diren gaitasun ezberdinak ditu. Hala ere, emaitzak oso positiboak eta eraginkorrak direla azaldu digu Lierni Axpe hezitzaile oñatiarrak.

Haur etorkinen artean, jatorri hegoamerikarra dutenak dira nagusi. Baita Maroko, Portugal

eta Pakistango haurrak ere. Guztira, 33 bat ume etorkinek hartzen dute parte programan.

TALDEAK ADINAREN ARABERA

Adinaren arabera daude taldeak antolatuta. Gaztetxoek, 4tik 7ra eta 8tik 11ra urte bitartekoak, astelehenetik egunera elkartzen dira Olakuako dorretxean. Lierni Axpe irakaslearen ardurapean ordu eta erdiko eskolak izaten dituzte. 12 eta 16 urte bitartekoak, berriz, Nagore Ojanguren ardurapean gaztelekuan elkartzen dira. Gazte horietako batzuk aurten iritsi dira Oñatira eta euskaraz daukaten gabeziari aurre egiteko egunero euskaltegira joaten dira ordubeteko eskolak jasotzera. Gainera, egunetan, Oñatiko lagunak gonbidatzeko aukera ere badute, harreman sare berriak egiteko.



HAUR ETORKINEN TALDEA Argazkian Lierni Axpe irakaslearekin.

MAIDER ARREGI



HERRI SARRERAN Autobiderako egiten dabilzan biribilgunearen lanek arazoak sorrarazten dizkiete herritarrei. IKER BARANDIARAN

AZPIEGITURAK > EIBAR-GASTEIZ AUTOBIDEA

Udalak eta Bidegik batzarrekin segituko dute

Udalak Azpiegitura batzordea lanean jarriko du autobidearen gaineko ardurak aztertzeko

Bidegiko eta Udaleko ordezkariak, biek, elkarrizketak hutsetik hasia adostu dute

IKER BARANDIARAN > ESKORIATZA
Dagoeneko bi bider batzartu dira Bidegiko eta Eskoriatzako Udala. Lehenengoa irailean izan zen; eta bigarrena, joan den egubakoitzean. Batzar horietan honako ordezkariak esku hartu dute: Bidegiko zuzendari Borja Jauregi eta Aldundiko Errepideetako arduradun Eneko Goia, alde batek; eta Pedro Lasagabaster alkatea, Udaleko Azpiegitura batzordeko buru Leire Okarantza, Maringo auzo alkate Unai Salaberria eta Mazmelako auzo alkate Juan Carlos Beloki, bestetik.

HUTSETIK HASTEAK

Bidegiko eta Udaleko ordezkariak adostu zuten bien arteko elkarrizketak hutsetik hasia. Izan ere, aurreko legealdian, orduko udalbatzarrek eta Bidegiko orduko buruek egindako elkarrizketak apurto egin zituzten, eta, gainera, dagoeneko erakunde bakoitzeko ordezkariak zeharo aldatu dituzte.

Horrez gain, azpimarratu zuten autobidearen gaineko zalantza eta kontu guztiak zuzenean Bidegiko eta Udalak landuko dituztela, eta ez dela beste bitartekaririk egongo.

Adostu zuten beste puntu bat da ez Bidegiko eta ezta Udalak ezingo dutela beste erakundeetako ordezkariak aukeratu ezta kentzeko eskatu.

JARRERA IREKIAK BIEN ALDETIK
Hala, lehenengo harremana egin eta gutxiengo batzuk adostu ostean, funtzionatzeko arauak erabaki zituzten.

Bien aldetik jarrerak oso irekiak izan direla azaldu digu Pedro Lasagabaster alkateak. Are gehiago, mahai gainean jarriko dituzten gai guztiak aztertzeko konpromisoa hartu zuten Bidegiko zuzendari Borja Jauregik.

HAMABOSTEAN BEHIN BATZARRAK
Hamabostean behin batzartuko dira bi erakundeetako ordezkariak, eta horretarako Eskoriatzako udaletxea eta Bidegiko Zarautzen duen egoitza, biak, tartekatuko dituzte. Are gehiago, batzar bakoitza bukatu ahala hurrengorako data zehaztuko dute.

Horiek guztiak finkatu ostean Udalak azaldu zizkien herri barruko eta elizateen egoera zehatzak. Hain zuzen ere, Pedro Lasagabaster alkatearen esanetan horiek dira premia nagusiak: "Lanak egiten dabilzan bitartean elizateetan bizi duten egoerari irtenbidea ematea; eta udalerriko sarreran, Intxaurtxuetan, egiten dabilzan lanen eragina txikitzea, alegia".

Hala ere, alkateak onartu zuen oraindik ez direla hasi garrik gai arazoak zehazten eta horiei benetako konponbidea adosten. Hori laster egingo dutela aurreratu zuen.

AZPIEGITURA BATZORDE MISTOA

Horretarako, Eskoriatzako udalbatzak asmoa du datozen egunetan Azpiegitura batzordea abian jartzeko.

Hala, batzorde horrek izango du autobidearen lanen gainean sortuko diren kezka eta eskaerak jaso eta lantzeko ardura. Horren ostean, Bidegikerekin egin beharreko batzarretara eramango dituzte landutako gaiak.

EAE-ANV eta Elizateetako ordezkariak jakinarazi dutenez, Azpiegitura batzordea osatuko dute, zinegotzietatik gainera, udal teknikari, auzo alkate eta beste-lako herritarrek; hau da, mistoa eta irekia izango da, eta ez dira politikariak bakarrik arituko; zabalik egongo da.

KIROLA > SASKIBALOIA ETA ARETO FUTBOLA

Denboraldiko kirol taldeen aurkezpena

Zapatuan areto futbol eta saskibaloia taldeen denboraldiko aurkezpena egingo dute, jantzi eta babesleak erakusteko

I.B. > ESKORIATZA

Bihar, zapatua, Eskoriatzako Kirol Elkartek denboraldi honetako areto futbol eta saskibaloia taldeen aurkezpena egingo du kiroldegian. 09:45ean izango da hori, zaleen eta komunikabideen aurrean. Hala ere, 10:30ean bukatutzat eman beharko dute aurkezpena, ordu horretan saskibaloiko kadeteek norgehiagoka izango dutelako bertan.

Aurkezpenaren helburua da jokalariek ezagutzera ematea eta denboraldi honetako babesleak eta jantzi berriak erakustea, hain zuzen ere. Hala ere, kirol elkartearen arduradunek nabarmendu dute zelaiko ordezkariak ere jantzi berriak estreinatuko dituztela.

SEI TALDE ARITUKO DIRA

Denboraldi honetan ere sei talde arituko dira aipatutako bi kiroldegietan jokatzeko: hiru talde saskibaloian eta beste horrenbeste areto futbolean.

Talde horiek orain dela aste hasi zituzten norgehiagokak. Eskoriatzako Kirol Elkarteko presidentea Manolo Muñozek nabarmendu du saskibaloiko taldeak oso ondo hasi direla: "Kadete eta junior mailetan jokatzeko duten taldeak, batez ere, ikaragarri ondo dabilta", azpimarratu zuen Muñozek. "Hala jarraitzen badute, aurkari gutxi izango dituzte".

ARETO FUTBOLA INDARTZEAN

Areto futboleko taldeek, berriz, makaltxoago hasi dute denboraldia. Kirol elkartearen arduradunen esanetan, horretan eragina izan du hainbat jokalarik goiko mailako taldeetara jauzi egin izana.

"Zoritxarrez edo zorionez, bi aldeak ditu-eta, tarteka hainbat jokalarik mailaz igo beharrean izaten dira; eta hori igarri egiten da gazteagoen taldeetan. Denbora apur bat behar dute".

> AISIALDIA

Zapatuan eta domekan Debagoienean Kantari karaoke ikuskizuna HUHEZIKO aretoan

Heldu dira Aretxabaletako eta Eskoriatzako ume eta gaztetxo asko zain zeuden egunak. Bihar, zapatua, eta etzi, domeka, Debagoienean Kantari karaoke ikuskizuna egingo dute HUHEZIKO aretoan. Zapatuan eta domekan, bietan, 17:00etan hasiko dira ikuskizunak. 8 eta 12 urte bitarteko ume eta gaztetxoek euskal kantuak abesteko eta agertoki gainean dantza egiteko aukera izango dute. Irailaren hasieran koreografia entseguak egin zituzten. Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartek antolatuta du.

> ANTZERKIA

Txirene taldeak gaur, egubakoitza, egin behar zuten antzezlanaren bertan behera utzi dute

Gaurko, egubakoitza, Txirene antzerki taldearen *Ogirik gabe etorri zen semea* ikuskizuna iragarrita zegoen. Udalak antolatuta du, bere ohiko kultura programazioaren barruan.

Kontua da asteon, antzerki talde horretako aktoreetako batek entsegu baten min hartu duela, eta ezingo dela agertoki gainera igo. Arrazoi horregatik bertan behera utzi behar izan dute ikuskizuna. Bai Txirene taldekoek eta baita Udaleko Kultura batzordeak jakinarazi digute beste data bat hitzartuko dutela.

> AISIALDIA

Herriko erretiratuek eta pentsiodunek bidaiak egiteko aukera, Imersoren bitartez

Udaleko Gizarte Zerbitzuetako arduradunek jakinarazi digute Imersok erretiratu eta pentsiodunendako prestatzen duen bidaiak eskaintzaren izenematea aldatu egin dutela. Hain zuzen ere, orain arte ezinbestekoa zen maiatz aurretik izena ematea. Orain, berriz, urte osoan dago aukera apuntatzeko. Interesatuak Udaleko Gizarte Zerbitzuetara jo dezakete inprimakia betetzera edo gura badute Internet bidez egin dezakete www.seg-social.es/imerso webgunean, *Vacaciones mayores 2007-2008* aukera klikatuta.

Lanak 1.897.000 euroko aurrekontua izan dute

Kostuaren %30 Jaurlaritzaren Izartuk ordaindu du

Fonortek eraman du lanen zuzendaritza eta Injelanek egin ditu

IKER BARANDIARAN > ESKORIATZA

Askotxo iraun dute, baina azkenean esan dezakegu Dorleta auzoa eraberritzeko lanak bukatu direla. 2006ko urtarrilean hasi ziren lanean, eta orain arte iraun dute. Fonorte enpresak zuzendu ditu lanok, eta Injelan enpresak eraman ditu aurrera.

IZARTU PROGRAMAREN LAGUNTZA

Auzoa eraberritzeko lanek 1.897.000 euroko aurrekontua izan dute, eta hortik %30, hau da, 639.000 euro, Eusko Jaurlaritzak ordaindu du.

Hain zuzen ere, astelehenean egin zuten ezohiko osoko bilkuran azkeneko ordainketa egitea onartu zuten.

AUZOA ERALDATUTA

Auzoa zelan gelditu den ikusi besterik ez dago esateko auzoa eraldatuta edo txukunduta dagoela. Hala uste dute ere Udaleko Obra eta Zerbitzuen Saileko arduradunek: merezi izan duela den-

HIRIGINTZA > DORLETA AUZOA ERABERRITUTA

Bukatu dituzte Dorleta auzoa eraberritzeko lan guztiak



ERALDATUTA Dorleta auzoa eraldatuta eta oso txukun utzi dute luzaroan lanak egin ostean.

IKER BARANDIARAN

bora luzean hartutako lanak eta hango bizilagunek lanen ondorioz izan dituzten eragozpenak zerbaitetarako izan direla.

Hain zuzen ere, lan ugari egin dituzte auzoan: saneamendu guztiak aldatu dituzte; erreka ondo-ko paseoa egin dute; jolasgunea

zeharo eraberritu dute; aparkaleku berriak egin dituzte; espaloiak txukundu; kale-argiak eta pibotak jarri dituzte eta abar.

Bestalde, laster bukatuko dituzte auzotarrek euren kabuz fatxadak berritzeko egindako lanak ere.

IKUSKIZUNAK > MUSIKA ETA ANTZERKIA INKERNU TABERNAN

Rock-and-rolla eta umorea

Los Cretinos eta Jim Dinamita y los Seductores taldeen rocka eta Virginia Imazen ipuin kontaketa asteburuan

I.B. > ESKORIATZA

Asteburua ekintzaz beteta egongo da Inkernu tabernan. Hain zuzen ere, Aitzorrotz kultura elkarteak rock-and-roll kontzertua antolatu du egubakoitzerako; eta zapatuan, berriz, ipuin kontaketa izango da Virginia Imazen eskutik.

Egubakoitzean Los Cretinos talde arrasatearra izango da Inkernuko agertoki gainean. 22:30erako jarri dute hitzordua.

Los Cretinos taldeak rock-and-rolla egiten du, klasikoa eta bizia; eta bigarren diskoa prestatzen dabilza. Horien ostean, Jim Dinamita y los Seductores taldeak Burningen kantua joko ditu. Talde hori Arrasateko eta Eskoriatzako musikariek osatzen dute.

'LA MUJER SALVAJE'

Zapatuan, berriz, Virginia Imazek *La mujer salvaje* izeneko kontaketa egingo du, 22:30ean.



ROCK-AND-ROLL TALDEA Argazkian, Los Cretinos talde arrasatearra.

GOIENKARIA

LENIZ
ESKORIATZA



- Konponketak: Txapa, Margoa, Mekanika
- Bigarren eskuko autoen salerosketa, inyektoreen konponketa eta I.A.T aurreko azterketa

Aingeru ibiltokia 31 • ESKORIATZA • Tel.: 943 71 50 61 • Faxe: 943 71 31 45

> UMEAK

Ipuin kontaketa saioa bihar, zapatua, Udal Liburutegian

Maite Franco ipuin kontalaria saioa izango da bihar, zapatua, 18:00etan, Udal Liburutegian. Saio hori zuzenduta dago 4 eta 10 urte bitarteko neska-mutikoei. Kontuan hartu behar dute gurasoek saioa ez dela egokia ume txikiendako; hortaz, txikiak ez eramatea gomendatu dute arduradunek. Sarrera doan izango da.

Maite Franco ipuin kontalaria izateaz gain pedagogoa ere bada eta ipuinak kontatzen ikasteko hainbat ikastaro eskaini izan ditu.

> KIROLA

Karate ikastaroa antolatu du Pausoka gurasoen elkarteak

5 eta 12 urte bitarteko neska-mutikoendako karate ikastaroa antolatu du Pausoka gurasoen elkarteak. Eskolak izango dira martitzen eta eguenetan, eskolako gimnasioan, 17:00etatik 18:00etara edo 18:00etatik 19:00etara. Ikastaroaren prezioa izango da 18 euro hileroko.

Azaroan hasiko da ikastaroa eta interesa dutenek edo informazio gehiago behar dutenek eskolako kirol arduradun Jose Angel Amosarraiengana jo behar dute.

> ARGAZKI LEHIAKETA

Lanak aurkezteko epea hilaren 31n bukatzen da

Udalak antolatutako argazki lehiaketarako lanak aurkezteko epea eguaztenean bukatzen da, urriaren 31n. Argazki digitalak honako helbide elektronikora bidali behar dira: kultura@antzuola.net. Gainerakoak udaletxean bertan aurkeztu behar dira.

Azaroaren 9tik 11ra erakusketa egingo dute Olaranen, aurkeztutako argazki guztiekin. Azaroaren 11n banatuko dituzte sariak.

UDALA > TASAK ETA ZERGAK

Udalak 2008rako onartutako zergek eta tasek %2,6eko igoera izango dute

Eguaztenean ezohiko osoko bilkura egin zuten, bereziki tasak eta zergak onartzeko

AINTZANE IRIZAR > ANTZUOLA

Udalbatzak onartu ditu 2008. urterako zergak eta tasak. Batez beste, %2,6ko igoera izango dute. Igoerak ezartzen dira, orokorrean, Kontsumo Prezioen Indizearen (IPC) arabera. Eta, hain

zuzen ere, 2006ko irailetik 2007ko irailera bitartean, %2,7ko igoera izan du indize horrek.

ZABORRA

Onartu dituzten igoeren artean, zaborraren tasaren igoera da aipagarriena; Debagoieneko Mankomunitateak proposatzen ditu tasak. 2008an tasa horrek izango du %13,9ko igoera. Herri-tarrek ordaindu beharko dute 18 bat euro hiru hilabeteetan behin. Horixe izan zen, gainera, eztabaida piztu zuen gaietako bat. EAJ-

ko kideek desadostasuna adierazi zuten; igoeraren arrazoi nagusia da San Markoseko (Donostialdea) zaborrak eramango direla Sasietara (Goierrri).

Ika-mikak sortu zituen, bestalde, beste tasa batek: berritze lanetan lurzoru publikoa okupatzeagatik kobratzen dituzten tasen gaiak. Izan ere, EAJk eskatu zuen babestutako eraikinek, Elizak kasu, ez ordaindu behar izatea tasa hori. Ez zuten onartu proposamena, eztabaida luzen baten ondoren.

AIPAGARRIENAK

> ZABORRA

Igoera handiena zaborraren tasak izango du: %13,9, hain zuzen ere.

> IBILGAILUEN GAINEKO ZERGA

Turismoen zergek %2,6ko igoera izango dute.

> LURPERATZEA

Harresbil enpresaren zerbitzuarrengatik, 647,43 euro.

> OBREN GAINEKO ZERGA

Gehienezko portzentajea mantendu egiten da: %5, hain zuzen ere.

KULTURA > EUSKAL DANTZAK

Ume dantzarien eguna etzi, domekan

Ibarreko lau talde etorriko dira Antzuolara, bi urtean behin ospatzen duten jaialdira

A.I. > ANTZUOLA

Ume dantzarien eguna ospatuko dute etzi, domekan, Antzuolan, Oinarin dantza taldeak antolatuta. Ibarreko lau dantza taldeetako dantzariak etorriko dira jaialdi horretara: Arrasateko Lore Gazteak eta Txikitxu taldeetakoak, Aretxabaletako Loramen-dikoak eta Oñatikoko Oñatz dantza

taldekoak. Guztira, ehunetik gora ume dantzari elkartuko dira Antzuolan.

Goizean, 11:15ean hasita, kalejira egingo dute; 12:30ean, dantza saioa egingo dute Herriko Plazan. Arratsaldean, 17:30ean hasita, beste dantza saio bat egingo dute plazan. Talde bakoitzak dantza berezi bat eskainiko du.



PLAZAKO SAIOA Orain dela bi urte, plazako dantza saioa.

GOIENKARIA

EGAÑA
Era guztietako arotz lanak

Tarima eta parketa jartzea
Zoruen kutxilatua eta barnizatuak

Kalegoi 21, ANTZUOLA Tel.: 943 76 64 23

DEKORAZIOA
ABAD
PINTURAK
ANTZUOLA
PAPER PINTATUAK

Jose Gomez Abad

Errekalde 6, 4-B.
Antzuola
943 76 60 19
943 76 60 43
Faxa:
943 76 60 19

INDUSTRI MANTENIMENDUA

MUJIKA HARATEGIA

Berezitasunak:
Etxean hazitako zekorrek eta oilaskoak

Kalebarren, 1.
ANTZUOLA
Tf. 943 76 64 34

LARREA**TABERNA**

Kalebarren 17
ANTZUOLA

SUKALDEKO ALTZARIAK
Harizki

MUEBLES IGEA

Sukalderako eta bainurako altzariak
Altzari rustikoetan
espezializatuak

Zurrategi plaza 4, behea. ANTZUOLA. Tel. eta faxa 943 78 71 80



INTXORTARA laz bezala, aurten ere irteera egingo du Egokik Intxortara.

ARTXIBOA

KIROLA > EGOKIK ASTELEHENEAN EGIN ZUEN BALORAZIO BATZORDEA

Abendura bitartean lau ekintza Egokiren eskutik

Elgetako lau handiak, umeendako esku-pilota txapelketa, boleta txapelketa eta mendi irteera Intxortara dira Egokik prestatu dituen ekintzak

LARRAITZ ZEBERIO > ELGETA

Astelehenean, hilaren 22an, egin zuen Egokik ikasturteko lehenengo batzarra. Bertan, aurreko ekitaldiko balorazioa egin zuten. Gainera, azaroa eta abendua bitartean burutuko dituzten ekintzak zehaztu zituzten.

"Otsailetik uztaileira bitartean egindakoarekin pozik gara", azaldu du kiroletako udal teknikariak, Oskar Carrascalek. "Zazpi ekintza kaleratu genituen. Izene-

mate faltagatik, bi bertan behera gelditu ziren. Gainerako bostek oso harrera ona izan zuten".

Egiteke gelditu zirenak bizikleta irteera Bardeetara eta mendi buelta Udalatxera izan ziren. "Arrakastatsuen patinaje ikastaroa izan zen", gogoratzen du Carrascalek. "Bi talde osatu ziren, hastapeneko bata eta trebetasun mailakoa bestea. Guztira, 40 lagun aritu ziren ikastaro hartan, 20 bakoitzean".

BI HILABETEOTAN, LAU EKINTZA

Datozen bi hilabeteotan lau ekintza kaleratuko ditu Egokik. Azaroaren 18an Elgetako lau handiak egiteko aukera emango du. Abenduan umeendako esku-pilota txapelketa egingo dute, Eskola Kirola programan txertatua. Boleta txapelketa ere jokatuko dute.

Urteko azken ekintza hilaren 23an egingo du Egokik, Olentzero egunean. Mendi irteera antolatuko du Egokik egun horretarako, Intxortara. Olentzero Intxorta menditik jaisten da Elgetara, eta Olentzeroren arrastoaren bila irtengo dira plazatik herriko umeak. Ekintza horien berri garaiz emango du Egokik.

Asteon amaitu dute lore sikuen ikastaroa

Eguenean egin zuen Pili Arinek Elgetan lore sikuen gaineko ikastaroaren laugarren eta azken saioa. "Esperientzia polita izan da", esan du Arinek. "Jendea konturatu da gure inguruan ditugun lore eta hostoekin gauza asko egin daitezkeela, gauza asko berrerabili daitezkeela". Helduekin lau saio egin ditu Arinek. Koadroak eta lore-zentroak egin dituzte, besteak beste. Umeendako saioa ere egin zuen aurreko zapatuan eta 25ek hartu zuten parte. "Orain, ikasitakoa etxean lantzeko aukera dute".



L.Z.

BEATIFIKAZIOA > ZENONA ARANTZABAL ELGETARRA

Domekan beatifikatuko dute Zenona Arantzabal, Erroman

1936an fusilatu zuten, Madrilen, Arantzeta auzoko Itturri baserriko moja

1936AN FUSILATUA

1878ko uztailearen 9an jaio zen Zenona Arantzabal. 28 urterekin sartu zen nobizia Adoratzailleen eta Guztiz Santuaren eta Kari-dadearen Mirabeen erlijio-ordenan, Madrilen. Zortzi urteren buruan, 1914an sartu zen moja Borja de Jesusen Ama izenpean.

Beste 22 mojak ere batera errepublikanoek 1936ko azaroaren 9an fusilatu zuten Arantzabal Madrilgo Almudenako hilerrian. Gaur egun ordenaren Madrilgo kaperan dago lurperatua Zenona Arantzabal Barrutia elgetarraren gorpua.

L.Z. > ELGETA

Etzi, domeka, beatifikatuko dute Zenona Arantzabal Barrutia elgetarra. Erromako San Pablo Extramuros basilikan beatifikatuko dute, 10:00etan. Egun berean, mojarren gaineko informazio-panelak jarriko dituzte Elgetako eliza inguruan.

HEZKUNTZA > HAURRESKOLA BERRIAREKIN LANEAN

Ziburu-guneak egokitzen joateko plangintza abiatzear

Hamabostean behin batzen da haurreskola berria diseinatzeko sortu den taldea

"Gaiaren inguruan hausnarketa egiteko monografiko bat zabaldu nahi dugu herrian", esan du Rebeka Ubera zinegotziak. "Bilera bat deituko dugu laster".

HAURRESKOLA BERRIA

Udalak, bestetik, balorazio oso positiboa egiten du haurreskola berria diseinatzeko sortu den taldea dela-eta: "Zortzi bat lagun elkartzeko gara bi astean behin", esan du Uberak. "Asko eskertzen ditugu egindako ekarpenak. Neurriak hartuta daude eta espazio banaketa ere erabakita".

L.Z. > ELGETA

Herrian dauden ziburuak oso antzerakoak direla uste du Udalak. Hala, aurrerantzean, adin tarte askotariko umeak eta euren garapena kontuan hartuko dituen ziburuak aukeratzeko plangintza egitea da asmoa.

> ANTZERKIA GAUR, BARIKUA, 22:30EAN

'Bota Patsa' antzezlanaren egindako gaur Espaloian Iker Galartzak eta Joseba Usabiagak

Udalak antolatuta *Bota Patsa* izeneko antzezlanaren taularatuko dute gaur, hilak 26, Iker Galartzak eta Joseba Usabiagak Espaloia Kafe Antzokian. Izerdialdiak izango dituzte hizpide bi aktoreek antzezlanean. Opariak ez dira debalde. Patsa da bidea. Esfortzuaren patsa, sakrifizioaren patsa, nekearen patsa... Sarreran doan da.

> HITZALDIA MARTITZENEAN

Guraso elkarten eta eskola kontseiluaren funtzioak izango dituzte aztergai hilaren 30ean

Udalak antolatuta hitzaldia egingo du hilaren 30ean, martitzena, Euskal Herriko Guraso Elkartearen presidentea Imanol Zubizarretak. Guraso elkarten eta eskola kontseiluaren funtzioak izango ditu berba-gai Zubizarretak. Bi organo horien zereginak eta ardurak zeintzuk diren azalduko du, kultura etxean, 19:00etan hasita.

> FUTBOLA ETA PILOTA

Futbol taldeak Unben jokatuko du zapatuan eta pilota partiduak izango dira frontoian gaur eta etzi

Elgetako futbol taldeak Eibartarrak taldearen aurka jokatuko du zapatuan, 17:30ean, Unben. Nahikoa berdinduta dauden taldeak dira, eta jarraitzaileen animuak eskertuko dituzte elgetarrek. Pilota partiduei dagokienez, gaur (20:30) eta bihar (11:00) jokatuko dira lau partiduak. Alex Arantzabalen ordezkoa Angel Ibarluzea izango da.



ERRETIRATUEN EGUNA Zapatuan meza berezia, barazki eta animalia azoka eta herri bazkaria egingo dituzte erretiratuen eguna ospatzeko.

GOIENKARIA

GIZARTEA > ERRETIRATUEN EGUNA

Zapatuan herriko erretiratuak izango dira protagonistak

Aramaioko Udalak egitarau zabala antolatu du zapatuan ospatuko den erretiratuen egunerako

ARRITXU BARRUSO > ARAMAIO

Goizean goiz hasi eta iluntzera arte egongo da zer eginik bihar Aramaion. Hori bai, oraingo honetan herriko erretiratuak izango dira protagonistak; izan ere, egun horretarako denetari-ko ekintzak antolatu ditu Udalak. Aurten, gainera, izango da

nobedaderik eta sorpresarik. Egurdiko hamabietan egingo den meza bereziarekin hasiko dute erretiratuek eguna. Meza ostean herriko dantzarien txanda etorriko da, giroa berotu eta festari hasiera emateko. Urtero moduan, aurten ere azoka egingo dute Aramaion eta bertako

produktuei protagonismo berezia eman nahi izan die herriko Udalak. Dena dela, kanpotik iritsitako postuak ere egongo dira. Horrenbestez, barazkiak, eztiak, sagardoa... denetarik dastatzeko aukera izango da. Horrez gainera, larrua lantzen duen artisaubatu ere izango da azokan ogibide horren xehetasun guztiak erakusteko. Aurten, nobedade moduan, animaliak ekarriko dituzte azokara. Eta hamarretakoa egiteko aukera ere izango

dute erretiratuek. Herriko hainbat elkartek salda eta txorizoa eskainiko dute goiz osoan. Egurdian, baina urteroko herri bazkaria egingo dute herriko kiroldegian.

Herri bazkariaren ostean, festa giroarekin jarraitzeko erromeria egingo dute trikiti doinuekin, erretiratuak dantza egitera anima daitezten. Bien bitartean, gainera, opariak zozketatuko dituzte bazkarian parte hartutako guztien artean.

OSOKO BILKURA > AHT-REN AURKAKO UDALEN SAREA

AHTri aurre egiteko udalen sare bat osatuko dute

ARRITXU BARRUSO > ARAMAIO

Udal gobernua mozio proposamena egin zuen eguazteneko osoko bilkuran. Abiadura Handiko Trenaren proiektuari aurre egiteko sortzen ari den udalen arteko sarean parte hartzea proposatu zuen, hain zuzen ere. Elorrioko Udala dagoeneko sartu da sare horretan. Mozioari lotuta, EAJ eta EA alderdiak abstenitu egin ziren, baina EAEn aldeko bost botoekin onartu egin zuten.

ZINEGOTZIEN PARTE-HARTZEA

Udalbatzak, bestetik, talde politiko eta zinegotziek Udaletik jasotzen duten ordain ekonomiko aztertu gura duela adierazi zuen osoko bilkuran. Udalak uste du jasotzen duten diruak parte-hartze minimo bat eskatzen duela, eta minimo hori askotan ez dela betetzen. Hori horrela, parte-hartzea areagotzen ez bada Udalak neurriak hartuko dituela iragarri zuten.

> KULTURA

'Geroago' antzezlanaren bertan behera gelditu zelako, barkamena

Txirritola Euskara Elkartek antolatuta, Ikuskizuna taldeak dantza eta musika emanaldia egin behar zuen joan den zapatuan Aramaioko kultura etxean. Tamalez, emanaldia bertan behar utzi behar izan zuten bertako protagonista bat gaixotu eta ospitalera eraman behar izan zutelako. Hori horrela, Txirritola Euskara Elkartek barkamenak eskatu nahi dizkie bertaratutako guztiei. Jakinarazi dute protagonista osatu bezain laster emango dutela emanaldi horren berri.

> KULTURA

Turroiak eta gozokiak egiteko ikastaroa azaroaren 19tik aurrera

Turroiak eta gozokiak egiteko ikastaroan izena emateko epea zabalik dago. Azaroaren 19an hasiko dute ikastaroa eta 20 ordu iraungo du. Eskolak arratsaldeko bostetan hasi eta zortzietan amaituko dira eta lau ordukoak dira, 25 pertsonarendako egongo da tokia. Horrenbestez, interesa dutenek ahal bezain laster deitu beharko dute 945 44 50 16 telefonora. Hain zuzen, Daniel Quintana gozokigile gasteiztarrek emango du ikastaroa.

> UDALA

Olio eta pilak birziklatzeko gune berria ipini du Udalak

Olio eta pilak birziklatzeko behien-behineko tokia udaletxeko harategi zaharrean ipiniko du Udalak. Barikuan irekiko dute birziklatzeko puntu berria. Orduetgia honakoa izango da: astelehenean eguaztena 08:30etik 17:30era eta eguen eta barikuetan 08:30etik 15:30era. Birziklatzeko puntua herriko gazteek okupatuta zeukaten Diputazioaren etxolan zegoen lehen, baina higiene arazoak direla eta, oraingoz, behintzat, birziklatzeko gune berria harategi zaharrean kokatzea erabaki du Udalak.

KIROLDEGIA

Hilaren 30ean bilera egingo dute kiroldegian

Erabiltzaileen iritzia jaso nahi dute kiroldegiaren zerbitzua hobetzeko

A.B > ARAMAIO

Joan den barikuan ireki zituen berriro ateak Aramaioko kiroldegiak. Horrek esan nahi du kiroldegiaren kudeaketa lanak egiten hasita daudela.

Udalak, dena dela, kiroldegiaren zerbitzua hobetu nahi du eta horretarako bilera egingo du herriarrek urriaren 30ean kiroldegian bertan, arratsaldeko zazpitan. Bilera horren helburua da kirol zerbitzuak ahalik eta ondoen funtzionatzeko herriarrek iritzia jasotzea. Bileran parte hartuko dute Udaleko ordezkariak eta kiroldegiaren ardura izango duen enpresako kideak.

ORDUTEGI BERA

Udaletik jakinarazi dute ordutegia ez dela aldatuko eta abuztu aurretik zegoen berberarekin jarraituko dutela lanean. Hau da, astegunetan zabalik egongo da arratsaldeko bostetatik bederatzietara; zapatuetan, egun guztian zehar; eta domekan goizeko bederatzietatik eguerdiko ordu batera.

ABUZTUA EZKERO ITXITA

Aramaioko Udalak abuztuaren itxi zuen kiroldegia, hango zerbitzuak kudeatzen zituen enpresarekin desadostasunak zituelako. Kiroldegia oso egoera txarrean zegoela ikusita, hura itxi eta ardura beste enpresa bati ematea erabaki zuen udalbatza berriak.

Azaroaren 11n,
domeka, ospatuko
dituzte San Milixanak

Autoen aparkalekuak
Gatzagainen eta Gure
Ametsan egongo dira

Txotxongilo erakusketa
egongo da azaroaren
9tik 11ra bitartean

MIRARI ALTUBE > LEINTZ GATZAGA

Azaroaren 11n ospatuko dituzte San Milixan jaiak gatzagarrek. Kultura Saila ekitaldiak lotzen dabil egunotan, eta hainbat berrikuntza izango dira jaiari eta antolakuntzari dagokienez.

APARKALEKUAK, GATZAGAINEN

Autobusa jarri izan du Udalak azken urteotan, kanpotik datozen automobilak Dorleta santutegian aparkatzeko helburuarekin. Hala ere, autoak bide bazterretan pilatu izan dira, eta arazo handiak sortu. Hori dela eta, automobilendako aparkalekuak urrunago jartzea erabaki dute, eta Gatzagainen eta Gure Ametsa jatetxeetakoak aprobetxatuko

OSPAKIZUNA > SAN MILIXAN EGUNA

Lotuta ditu Kultura Sailak San Milixan eguneko ekitaldiak



ARTISAUAK Euskal zeramikazko ontziak ikusgai iazko San Milixan egunean.

M.A.

dituzte, baita Venta-Friakoa ere. Eta autobusa joan-etorrian ibiliko da 10:00etan hasi eta 14:00ak bitartean.

60 METROKO SOKA

San Milixan eguna baino lehen, hilaren 9tik 11ra bitartean, txotxongilo erakusketa egingo dute.

Txotxongilo ugari jarriko dituzte ikusgai Hondarribiko Menina tailerreko kideek, kultura etxe-ko lehen solairuan.

Eta domekan, azaroak 11, artisauak izango dira protagonista, urtero legez. 14 artisau inguru etorriko dira Gatzagara lanik onenak erakutsi eta saltzeko asmoarekin, eta hainbat lanbide ezagutzeko aukera izango dute herritar zein bisitariak: bitxigintza, otarregintza, beira lantzea, zeramika, jostailuak egitea, egur eta harri lanketak, pilotak egitea eta beste batzuk. Zeramika tailerrekoek, gainera, buztina zela landu erakutsiko diete hurreratzenei. Eta erakustaldia ere egongo da: 60 metroko soka egingo dute hainbat artisauk. Pilotalekuko sarreran hasi, Labidea denda eta KZgunea arteko bidetxotik pasatu eta atzeko kale-raino doan soka egiteko asmoa daukate, 10:00etan hasita.

Ohiturari jarraituz, Gatz Museoa zabalik egongo da, eta sasoi baten Gatzagan gatzela lortzen zuten ezagutzeko aukera izango dute bisitariak.

KIROLAK > PILOTA TXAPELKETAK

Txapelketa bi dituzte pilotariak

Bihar Oñatira joango dira zortzi mutiko eskola kirolari dagokion txapelketa jokatzera; domekan, herrian bertan dute txapelketa

M.A. > LEINTZ GATZAGA

Txapelketa bi jokatzeko hasiko dira herriko pilotari gazteak aste bukaeran. Bihar, zapatua, Oñatin hasiko dute eskola kirolari dagokion txapelketa eta etzi, domeka, Gatzagan bertan jokatuko dute. Jose Inazio Beloki entrenatzailearen esanetan, Gatzagako 14 bat mutiko txapelketok noiz hasiko zain daude.

Hain zuzen, 8 eta 13 urte arteko mutikoez jardungo dute txapelketetan. Talde bik hartuko dute parte Oñatin hasiko duten txapelketan, eta talde bakoitza lau pilotarik osatuko dute.

Gatzagako txapelketa, osteraz, azkoitiarren aurka jokatuta hasiko dute, domeka goizean. Eskoriatzako pilotariarekin osatuko dituzte bikoteak gatzagarrek.



PILOTARIAK Entrenamendu saioa hasi aurretik Beloki entrenatzailearekin.

M.A.



URONDO

Elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak
- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa 26. Kataide Industrialdea 5. pabilioia. 214 posta-kutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxa: 943 77 14 76



KIA MOTORS

ESKAINTZA BEREZIAK

Km 0 ibilgailuetan

7 URTEKO
BERMEA


KIA PICANTO: 7.485 €tik aurrera.

KIA RIO: 8.755 €tik aurrera.

KIA CEE'D: 11.985 €tik aurrera.

KIA CARENS: 16.160 €tik aurrera.

KIA SPORTAGE: 17.240 €tik aurrera.

KIA MAGENTIS: 16.635 €tik aurrera.

KIA CARNIVAL: 24.000 €tik aurrera.

KIA SORENTO: 21.990 €tik aurrera.



Tecnocar

Honda eta Kia banatzaile ofiziala

Erakusketa eta tailerra

TECNOCAR GIPUZKOA

Araba etorbidea z/g - Arrasate - 943 79 22 67 - Faxe: 943 71 27 38

Adi!

- 3 urteko garantia
- 0 km aukera bereziak



HONDA LEGEND:
61.500 €tik aurrera.




HONDA ACCORD (4 ate):
24.000 €tik aurrera.



HONDA ACCORD TOURE:
30.900 €tik aurrera.



HONDA JAZZ:
14.600 €tik aurrera.



HONDA CIVIC HYBRID:
25.900 €tik aurrera.



HONDA FR-V:
23.000 €tik aurrera.



HONDA CIVIC TYPE-S:
22.900 €tik aurrera.



HONDA CIVIC (5 ate):
19.500 €tik aurrera.

HONDA
The Power of Dreams

ESKAINTZA BEREZIAK

Km 0 ibilgailuetan



HONDA CIVIC TYPE-R:



HONDA CR-V:
29.000 €tik aurrera.



HONDA S2000:
44.900 €tik aurrera.

Km. 0ko unitate mugatuak. AUKERA BEREZIA • Teknologia hibridoan puntako aukera.

SASKIBALOIA > TAU BASKONIA

Ander Gartziak Tau Baskoniarekin hasi du Euroliga, Grezian

Bergararra Tau Baskoniarekin dabil entrenatzen, eta Grezian egon da Euroligako partiduan

Gartziak Baskoniaren filialean du fitxa, baina goian egin du denboraldi-aurre osoa


XABIER URTZELAI > BERGARA

Ander Gartzia (Bergara, 1989) ametsetan da, eta ez du gura amets horretatik esnatu. Kadete mailaraino Bergarako saskibaloitza taldeetan jardun eta gero, urteak daramatza Gasteizen jokatzeko bizi da egun. Hain zuzen ere, Arrasateko Mondragon Unibertsitatea taldearen kategorian lehiatu izan da orain arte, Fundacion Baskonia taldean. Abuztuaren 20a ezker, baina, Baskoniako talde nagusiarekin entrenatu da.

SEKULAKO ESPERIENTZIA

Maila gorenean, legeak dio taldeek bertako jokalarikopuru zehatz bat izan behar dutela, eta kopuru hori betetzeko igo zuten Gartzia lehenengo taldera. Orduetik hona Bergarakoak egunero izaten ditu entrenamenduak; izan ere, hori da gaur egun Tau Baskonian duen eginbeharra, taldeari entrenamenduak egiten laguntzea, alegia.

Pausoak, baina, poliki-poliki ematen dira, eta Gartziak dagoeneko badaki zer den partiduak Tau Baskoniaren aulkitik jarraitzea, eta baita aukian dagoela atzealdean esertzen diren zaleen presioa jasatea ere. Hori horrela, talde nagusiarekin bidaia-tzen ez duenean, filialarekin jokatzeko du Bergarakoak.



BESARKADA Gartzia eta Racocovic.

GREZIATIK MALLORKARA

Atzo iluntzean egin zuen TAU Baskoniak Euroligan estreinaldia, Grezian, Olympiacos taldearen kontra [lerro hauek partidua jokatu baino lehenago idatzi ditugu]. Eta, Baskoniako entrenatzaile Spahijak Gartzia Greziara eramatea erabaki du, arazoak ditu-eta taldea osatzeko. Esaterako, aste barruko entrenamendu saioetan zortzi jokalaribaino ez ditu izan eskura: Prigioni, Rakocovic, Planinic, Sergi Vidal, Lucho Fernandez, Teletovic, Splitter eta Gartzia gaztea.

Simas Jasaitis infekzio bategatik ospitalean ingresatu behar izan dute, eta min hartuta daude, baita ere, Linton Johnson eta James Singleton. Hori gutxi balitz, arazo pertsonalak tarteko Will Mc Donaldek urgentziako bidaia egin behar izan zuen domekan AEBetara, eta Igor Racocovic ere ez dago bere onean, beste arazo pertsonal bategatik errekerperatzen dabil-eta.

Zailtasun horiek guztiak izanda ere, Gartziak ondo daki oso gaitza dela debuta egitea, eskolta postuak baduelako beste ordezkari bat: Lucho Fernandez. Hala ere, egunero ez da Atenasko estadioan jokatzeko, aulkitik bada ere.



DENBORALDI-AURREAN Irudian Ander Gartzia eta James Singleton.

GOIENKARIA

FUTBOLA > PREFERENTEA

Trintxerperen kontura gura du UDAk bigarren postuan jarraitu

Asteburuan, Igor Arenazaren mutilak izango dira etxean jokatu duten bakarrak, Trintxerperen kontra

X.U. > BERGARA

Bigarren postuan, eta leku horretan gustura. Horrela daude Aretxabaletako jokalariek. Hernani ahalegindu zen joan den astean bigarren postu horri heltzen, baina Arenazaren mutilek ezetz, Hernanitik puntu bat ekarrita ondo eutsi zioten sailkapenean aurrean egotearen erronkari. Badirudi, momentuz, lider dagoen Ordiziarekin ez dagoela ezer egiterik, gozakaitez dira eta ez

dute kale egiteko asmorik. Atzetik datozen taldeak, baina, saien moduan daude zain -eta asko dira gertu daudenak-, indartsuak ere une makalak izaten dituelako, eta ligak luzeak direnean hasi bezain indartsu amaitzea gutxiren eskuetan dagoelako.

Eta horretan dago Aretxabaleta, Ordizia bakarrik aurrean duela. Ibarran jokatzeko duen taldeak, baina, ezin ditu sailkapenari begiratu taldeak dituen gabeziak ezkutatu: emaitzak aldeko izan dituzte, baina jokoa ez. Ez dute euren jokoa zein den finkatu -aurreko urteotan egin duten moduan-. Zailtasunak dituzte zelai erdian agindu eta jokoa sortzeko. Noski, hori egin bitartean taldea irabazteko gauza bada, ondo, garaipenak berdindu balio du-eta. Hala, bederatzigarren postuan dagoen Trin-

txerpe izango da domeka arratsaldean Ibarran (16:30). Ez nahastu, bi puntuko aldea baino ez dago.

MONDRAK ETA ALOÑAK KANPOAN

Dagoen parekotasunarekin, bi jardunalditan neurria ematen ez duenak salto handia egiten du sailkapenean, atzerako saltoa.

Neurri berean, kanpoko partiduetan puntuak eskuratzea sari handia da, eta horretan ahaleginduko dira asteburuan Mondra eta Aloña Mendi. Mondrak Ondarroako Aurrera taldearen kontra jokatu du (zapatua, 17:00); ikusitakoak ikusita, Gordobilen mutilek ez dute lehenengo ordu erdian aparteko ezusterik gura. Aloña Mendik, berriz, Real Unionen kontrako azken minutuak utzitako nahigabea gainditu gura du EHU Baskoniaren kontura (zapatua, 17:30).



ARITZ IGARTUA Aretxabaletako jokalaria, Eibartarraren kontrako partiduan.

J.A.

asteburuko hitzorduak

FUTBOLA

Bigarren maila
Racing Club Ferrol-Reala
Zapatua. 18:30. Ferrol.

Kadeteen Euskal Liga
Aretxabaleta-Antiguoko
Zapatua. 16:30. Ibarra.

Preferente maila
EHU Baskonia-Aloña Mendi
Zapatua. 17:30. Martutene.
Aretxabaleta-Trintxerpe
Domeka. 16:30. Ibarra.
Aurrera Ond.-Mondra
Zapatua. 17:00. Zaldupe.

Lehen erregionala
Amaikak Bat-Bergara
Zapatua. 16:30. Deba.
Amara Berri-Antzuola
Domeka. 12:00. Martutene.

Bigarren erregionala
Eibartarrak-Elgeta
Zapatua. 17:30. Unbe.
Gazteak-Aretxabaleta
Zapatua. 15:30. Unbe.

BTLS-Urki
Domeka. 17:45. Ipintza.
Mondra-Ikasberri
Zapatua. 16:00. Mojategi.

Ohorezko mailako gazteak.
Mondra-Ordizia
Domeka. 12:00. Mojategi.

Bergara-Urola
Zapatua. 17:30. Ipintza.
Anaitasuna-Aretxabaleta
Domeka. 16:00. Txerloia.
Aloña Mendi-Beasain
Zapatua. 15:30. Oñati.

Lehenengo mailako gazteak
Bergara-Eibartarrak
Zapatua. 15:30. Ipintza.

Kadeteen ohorezko maila
Antiguoko-Aloña Mendi
Zapatua. 12:00. Berio.
Sanse-Bergara
Zapatua. 11:30. Ipintza.

Infantilen ohorezko maila
Arrasate-Anaitasuna
Domeka. 10:00. Mojategi.
Bergara-Ondarroako Aurre.
Domeka. 10:15. Ipintza.

Aret. Arizmendi-Lagun Onak
Domeka. 11:45. Ibarra.

Emakumezkoen Liga
Arizmendi-Lazkao
Zapatua. 15:30. Eskoriatza.
Bergara-Mutriku
Domeka. 12:00. Ipintza.
Mondra-Anaitasuna
Zapatua. 18:00. Mojategi.
BTLs-Elgoibar
Domeka. 16:00. Ipintza.
Lagun Onak-Arizmendi
Zapatua. 11:30. Azpeitia.

SASKIBALOIA

Lehenengo Maila
Mondragon Unib.-P. Legarcia
Zapatua. 18:00. Iturripe.

Seniorrak gizonetako
Zarautz-Candy BKE
Zapatua. 18:00. Antonianos.
Mondragon Unib.-Kostkas
Zapatua. 16:00. Iturripe.
Aloña Mendi-Erroibide
Zapatua. 18:00. Zubikoa.

Senior emakumezkoak
Eskoriatza-Doka
Zapatua. 18:00. Intxaurtxue.

Junior gizonetako
KL CAF-Mondragon Unib.
Zapatua. 12:15. Beasain.
CD Internacional-Bergara
Zapatua. 12:15. Donostia.
Aloña Mendi-Cafes Aitona
Zapatua. 12:00. Zubikoa.

Junior emakumezkoak
Bergara-Internacional
Zapatua. 18:00. Bergara.

Eskoriatza-Oiarso
Zapatua. 16:00. Intxaurtxue.

ESKUBALOIA

Euskadiko Txapelketa
Bergara-Urola Lazti
Zapatua. 19:00. Labegara.

Lehenengo territoriala
Arrasate-Egia Servi Chap
Zapatua. 16:00. Musakola.
Urola-Arrasate Eskubaloi
Domeka. 11:00. Zumarraga.

Bigarren territoriala
Bergara-Amenabar

Domeka. 12:15. Labegaralet.
Groseko-Aloña Mendi
Domeka. 10:30. Donostia.

Gazteak gizonetako
Arrasate-BKL Haritza
Zapatua. 17:30. Musakola.
Aloña Mendi-Urola-Aspirac.
Zapatua. 17:30. Zubikoa.

ARETO FUTBOLA

Euskadiko Txapelketa
Eskoriatza-Kenci
Domeka. 16:00. Intxaurtxue.

Lehenengo maila
Aloña Mendi-Zurt Taberna
Zapatua. 16:00. Zubikoa.

Hirugarren maila
UDA Izotz-Prexkuk
Zapatua. 16:00. Aretxabal.

Gazteak
Goierri-Aloña Mendi
Domeka. 12:00. Zubikoa.

PILOTA

Gipuzkoako Txapelketa
Gaur, 19:00etan hasita,
Eskoriatzan:
Eskoriatza-Txapagain
Eskoriatza-Zazpi Iturri
Eskoriatza-Añorga2
Eskoriatza-Oiarpe

Gaur, 21:00etan hasita, Udal
pilotalekuan (Bergara):
Arrasate-Intza
Arrasate-Zazpi Iturri 2
Zapatua. 16:30ean hasita,
Udal Pilotalekuan (Bergara):
Arrasateko1-Arrasateko3
Bergara1-Bergara4
Euskal Jolas-Aretxabaleta2
Eibar-Arrasateko2
Lagunak-Aretxabaleta1.

ERRUGBIA

Euskadiko Txapelketa
Arrasate-Zarautz
Zapatua. 17:30. Mojategi

Emakumezkoak
Arrasate-Aletico
Zapatua. 16:00. Mojategi.

MENDIKO BIZIKLETA

Besaide MTBko irteera
Zapatua. 09:00. Musakolan.



GORKA QUINTANA Adoseko jokalariek presionatzen dituela, MUKO jokalaria, artxiboko irudian.

JOSETXO ARANTZABAL

SASKIBALOIA > LEHENENGO MAILA

Promociones Legarcia hartuko du MU liderrak

Aurreikusi baino gutxiago kostatu zaio Iñaki Merinoren taldeari aurreko urteotako lekua hartzea; bihar jokatuko dute Iturripen (18:00)

XABIER URTZELAI > ARRASATE
Jokatutako hiru partiduetatik irabazita, Mondragon Unibertsitatea taldea lider dago Lehenengo Mailan. Eta, postu hori defendatzeko Merinoren mutilek Promociones Legarcia hartuko dute bihar arratsaldean, Iturripen (18:00). Lehenengo postuan jar-

tzea baino garrantzitsua da, hain zuzen, joan den astean Arrasateko mutilek egin zutena: kategoriako kontrario gogorrenetako bat –Tabirako Baque– mendean hartzea; Durangon, gainera. Lantutako garaipena izan zen, durangarrek ez zutelako batera erraztasunik eman, eta azken unean

estutzeko abagunea izan eta hori aprobetxatzen jakitea izan zen garaipenaren gakoa (89-76). Uste baino lehenago erakutsi du MUK taldeak duen heldutasuna.

LIZARRAKOAK ARRASATEN
Aurreratu moduan, bosgarren lekuan dagoen Promociones Legarcia izango da bihar Iturripen. Talde nafarrak orain arte jokatutako hiru partiduetatik bi irabazi ditu –Tabirako Baqueren kontra galdu dute norgehiagoka bakarra–.



Besaidek mendiko bizikleta irteera antolatu du biharko
Bihar, zapatua, egingo dute irteera (09:00, Musakola). Ibilbidean zehar jatekoa eta edatekoa emango dute; ez da segururik izango.

> ESKUBALOIA Urolaren kontra jokatuko du Bergarak derbi gipuzkoarra

Derbi interesgarria jokatuko dute asteburuan Bergarak eta Urolak, bi talde horietako inork ez du-eta txapelketako azken sailkatua izan gura. Zoritxarreko postu hori atzean uzteko lehiatuko dira zapatuan Labegaraletan (19:00); puntuen zorroa betetzen hasteko. Bestalde, Ford Mugarrik ez du asteburuan jokatuko.

> MENDIA Euskal Mendi Federazioak batzarra egingo du bihar

Euskadiko Mendi Federazioak ohiko batzarra egingo du bihar, zapatua, 16:00etan, Elgetako Espaloia Kafe Antzokian. Eta hori da, hain zuzen ere, federazioko ordezkariak azpimarratu gura izan dutena, batzarra Espaloian egingo dutela, eta ez kiroldegian. Informazio gehiago www.emf-fvm.com webgunean.

> BESAIDE MENDI ELKARTEA Gaur aurkeztuko dute Kulturaten Besaideren gaineko liburua

Gaur, 19:30ean aurkeztuko dute Kulturaten *Besaidek mende erdia betetzen du* liburua. Jose Ramon Fernandez Urriategik idatzitako liburua Besaideko egoitzan egongo da salgai urrian eta azaroan. Aste barruan, 19:30etik 20:30era dago Besaideko egoitza zabalik: Prezioa: bazkideek 25 euro, eta besteek 28 euro.

ederitu

masterreka 9-11 Tel.: 943 76 58 79

barrenkale 23 Tel. /faksa: 943 76 29 65

BERGARA



G2a

Goienka2a > KULTURA ETA AISIALDIA



> **KANTARI**
Asteburuan Eskoriatzan izango dira karaoke ikuskizunak > 45



> **BIDEOJOKOA**
'Armix baso magikoan' aurkeztu du asteon Elhuyarrek > 51

> **IKER OROBENGOA**
Autozale amorratua da garagartzarra; rallyetan jarduten du anaiarekin, kopilotu lanetan. Musika eta snowboarda ditu beste zaletasunak > 50



A.ARBURUZABALA > ARRASATE

21 urterekin hasi zen aktore lanetan Federico Luppi argentinarra (Ramallo, 1936). Bereziki antzerkia maite duen arren, asko dira zinema zein telebistan egin dituen lanak. Etzi, Arrasateko Amaia antzokian izango da, 19:30ean, *El guía del Hermitage* antzezlanarekin.

Nola azalduko zenuke *El guía del Hermitage* antzezlana?

Oso ondo idatzita dagoen lana da. Bi lagunen arteko harremanean oinarritutako istorioa kontatzen du. Horietako bat Pavel da, Hermitage museoko gidaria eta bestea, berriz, Igor, museo bereko zaindaria. Biak ala biak museoan bizi dira. Umore fin eta oneko antzezlana da, nire ustez.

Zelakoa da zuk antzeztzen duzun pertsonaia?

Pertsonaia gozoa da; edozein aktoreri gustatuko litzaioke. Esaten dutenez, benetako bizipenetan oinarrituta dago. Oso gaxorik dagoen arren, dagoeneko margolanik eta bisitaririk ez duen museoan bisita gidatuak egiten jarraitzen du. Lagunak zoratuta dagoela dio, baina Pavlek pasio horretan aurkitzen du bizitzeko arrazoia.

Taula-gainean hiru aktore zarete. Nola moldatzen zarete?

Manuel Callaurekin aurrez Argentinako telebistan egin nuen lan, baina antzerkian, berriz, sekula ere ez. Ana Labordeta, ostera, orain ezagutu dut. Hirukote batua egin dugu. Antzerkian ezinbestekoa da kideen arteko giro ona.

Antzerkia gustuko duzu?

Asko, antzokian lan egin gabe hamar urte egin ditudan arren. Buenos Airesen bizi nintzenean, antzerkian jarduten nuen, baina *Corralito* deritzon krisiak harrapatu ninduen. Espainiara etorri nintzen orduan, bizimodu berri bat hasi eta lasaitasuna bilatzeko asmoarekin. Antzerkiaren lekua filmek hartu zuten gero.

Nola eta noiz erabaki zenuen aktore bidea hartzea?


Nire asmoa komikigilea izatea zen, eta horregatik, bada, Ciudad de Platan marrazki eta eskultura ikasketak egiten nentzen. Han, antzerkian jarduten zuten lagunak egin nituen; entseguak ikustera joaten hasi eta barruraino sartu zitzaidan zaletasuna.

Non gelditu zen komikigintza?

Uf, oroimenez kutxan. Egun ez dut marrazten, zirribororen bat edo beste bakarrik. Eginda-

Federico Luppi > Aktorea

"Antzerkia, oso gustuko dudan tirania gozoa da"



(43. orrialdetik dator)

koarekin ez naiz damutzen, baina sarritan esan dut berriro jairoz gero komikigintza aukeratuko nuela.

Baduzu komikiak irakurtzeko ohiturarik?

Bai, baina oso jarraian ez ditut irakurtzen, nostalgia sentitzen dut-eta.

Aktore izan aurretik hainbat ogibide izan zenituen.

Bai, horixe! Antzerki eskola eta entseguekin batera, lan asko izan nituen: Hezkuntza Ministerioan, bankuan, haragi lantegi erraldoi batean, aseguruetan, eta baita gizonezkoentzako arropak saltzen, igeltsero peoi... Lankide ohi batek esaten zidan moduan, lana jateko egiteko nuen eta antzerkia, berriz, bizitzeko.

Zinemaren, antzerkiaren eta telebistaren artean aukeratu behar izanez gero?

Ez, ezingo nuke. Bakoitzak berea du. Zinemaren alde on bat da filmatzen ez duzun egunetan etxean edo familiarekin egon zaitzekela; telebistan, berriz, egunean 12 bat ordu egiten dira lan, eta hori ikaragarria da! Antzerkiak, berriz, beste alde bat du: gainontzekoak deskantsatzen edo dibertitzen dauden bitartean, zu lanean zaude.

Egin dituzun lanetatik bat aukeratu behar izanez gero?

Oso zaila da, asko ditut. Sarritan esaten den moduan, paperik onenak sekula egin ez dituzunak dira. Baina amesten hasiz gero, filmak zuzentzea aukeratuko nuke. *Pasos* da zuzendu dudana bakarra. Sekulako esperientzia!

Politikazalea zara.

Bai, interes handia dut eta asko jarraitzen dut, kontziente naiz-eta politika orokorrek nigan ere eragiten duela. Ez zait batera gustatzen eguneroko albiste-

gietan ikusten dudana.

Zer diozu Euskal Herriko egoeraz?

Kanpotik aztertzea oso zaila da. Min eta frustrazio askoko prozesu luze horri irtenbide harmonikoa bilatzea kostatuko den arren, herrialdeak merezi du.

Ze beste zaletasun dituzu?

Etxean brikolaje lanak egitea gustuko dut. Ohean etzanda irakurtzea ere atsegin dut. Coetzereen liburu batekin nabil orain. Zinemara ere joaten naiz; *13 rosas*, *Promesas del Este* eta *La Señal* filmak ikusteko gogoia dut.

Nola daramazu pertsonaia ezaguna izatea?

Jendeari errespetua diot eta ez dut gaizki hartzen kalean autografoak eskatzera etortzen zaizkidanean. Nik ere gazte denboran hamaika eskatzen nituen, besteak beste Boca Juniors taldeko jokalariei.

Errioxan sarritan izaten zara.

Asteburu luzetxo bat izan orduko. Susana emaztea errioxarra da eta oso gustuko dut haren jaioterrira joatea. Sekula ez dut dastatu hangoak besteko txuleta goxoak; eta zer esanik ez ardoaz.

"Egin ez dituzun paperak dira beti onenak; egin ditudanetik ezin dut bakarra aukeratu"

"Komikigile izateko ikasketak egiten hasi eta antzerkirako bidea hartu nuen gero"

"Gaztea nintzenean nik ere eskatzen nituen autografoak; futbolarietara, besteak beste"

Umore fineko antzezlanaren sobietar museoan kokatuta

Alemanen beldurrez, sobietar gobernuak hustutako Leningradoko Hermitage museoan kokatuta istorioan oinarritzen da etzi, domekan, Amaia antzokian 19:30ean, izango den *El guía del Hermitage* antzezlanaren sarrerak 8 eurotan daude salgai.

Herber Morotek idatzitako antzezlanaren Jorge Einesek zuzendu du eta taula gainean hiru aktore daude: Federico Luppi, Manu Callau eta Ana Labordeta.

Urriaren 6an estreinatuta zuten Santanderren eta harrezkero, Jaen, Cazorla eta Burgosen izan dira; asteburuan Euskal Herrian hiru emanaldi egingo dituzte.



Amaia antzokian izango den antzerkiaren kartela.

PENTACION

El guía del Hermitage

Herbert Morote

gizarte ekintza

kultura

ANTZERKIA

Urriak 28, 19:30 ordu.

AMAIA UDAL ANTZOKIA

ARRASATE

Sarrera: 8 €

Zuzendaria:
Jorge Eines


Federico Luppi
Ana Labordeta
Manuel Callau

DONOSTIA HIRIKO
KUTXA ANTZERKIA SARIAK
2003

zer nahi duzu bihar?

www.kutxa.net

 kutxa



Federico Luppi.

PENTACION

LITERATURA > JOKIN ZAITEGI LEHIAKETA

Doris Lessing idazle ingelesaren 'The grass is singing' lana euskaratuko dute

Urtero bezala, Jokin Zaitegi lehiaketaren bitartez, aurtengo Literatura Nobel saridunaren lan bat euskaratuko dute AED elkarteak eta Elkarrek

MIRIAN BITERI > ARRASATE

Egunotan eman dute aditzera Doris Lessing idazle ingelesak aurtengo Literatura Nobel saria jasoko duela. Hortaz, urtero bezala, haren lan bat euskaratuko dute Arrasateko AED elkarteak eta Elkar argitaletxeak, Jokin Zaitegi lehiaketaren bitartez. Kutzaren laguntza du esandako beka horrek.

Elkarreko editore Xabier Mendigurenek azaldu duenez, aurtengo deialdia datozen egunetan zabalduko da. Hala, Lessing idazlearen *The grass is singing* liburua euskaratuko dela



LITERATURA NOBEL SARIA Doris Lessing idazle ingelesa da aurtengo Nobel sariduna.

GOIENKARIA

ere aurreratu du. Deialdia bi hilabete inguru egongo da zabalik, abenduaren amaierara arte. Aurtengo ediziorako aukeratu-

tako liburuaren izenburua *Belarrak kantari* moduan euskaratuko dela gaineratu du argitaletzeko editoreak.

Jokin Zaitegi itzulpen sariketaren 21. edizioa izango da aurtengoa. Euskal itzultzaile onenariakoaren omenez antolatzen

hasi zen AED esandako lehiaketa. 2002a ezker, Literatura Nobel saria irabazten duen idazlearen obra bat itzultzen da urtero. Elkar argitaletxea izan du ordutik hona ondoan, sariketa elkarlanean antolatzen dute-eta.

ORHAN PAMUKEN LANA

Bestalde, azaroaren azken astean iazko Nobel saridunaren itzulpena aurkeztuko da Arrasateko Kulturaten. Jakina denez, Orhan Pamuk idazle turkiarrak irabazi zuen saria, eta haren *Kar (Elurra)* izenburuko liburua euskaratu dute Monika Etxebarriak eta Fernando Reyk.

570 orrialde ditu itzulitako lanak. Hain zuzen ere, azken ukiuak ematen ari direla azaldu du Mendigurenek. Urtero bezala, Durangoko Liburu eta Diskoen Azokan egongo da eskuragai.

Etxebarriak eta Reyk itzultzaile moduan jarduten dute Nafarroako Gobernuan eta obra garrantzitsuak itzuli dituzte biek ere. Euskadi saria ere irabazi izan du Reyk.



Aretxabaletako eta Eskoriatzako umeei dagokie oraingo asteburuan abestea

JASONE ZABALA > ESKORIATZA

Eskoriatzara iritsiko da asteburuan Debagoiengan Kantari karaoke ikuskizuna. Hortaz, iritsi zaie Eskoriatzako eta Aretxabaletako neska-mutikoei ikasitakoa erakusteko unea. Zapatu eta domeka bitartean 35 taldek sei saio egingo dituzte. Talde bakoitzak abesti bana abestuko du, eta Amaia Txintxurretak zuzenduko ditu saioak, eta GOITB ere hantxe egongo da grabaketa egiten. Gaztetxoen

urduritasunak arintzeko gurasoak izango dira, duda barik, haien jarraitzaileak sutsuenak, eta animurik ez da faltako bi herrietako gaztetxoendako; gainera, sarrera dohainik da, ez da ezer ordaindu behar.

Aurreko asteburuan hasi ziren Debagoiengan Kantari saioak. Oñatin izan ziren lehenengo ikuskizunak, eta erantzun aparta izan zuten gaztelekuan: heldu, ume zein gaztetxoak, guztiak, ondo pasatzeko eta kantari eta

dantzari ibiltzeko gogoz elkartu ziren han.

Gurasoak adurra zeriela gaztetxoak animatzen ibili ziren denbora guztian. Umeak, berriz, urduri, aurrez prestatutako guztia gaizki irteteko beldur. Baina primeran joan zen guztia; beraz, guztiok pozik. Ea aste bukaera honetan ere berdin doazen gauzak Aretxabaletako eta Eskoriatzako neska-mutikoentzat. Hurrengo saioa Arrasaten izango da azaroaren 10ean eta 11n.

EGITARAU

- > **NON**
Huheziko aretoan.
- > **NOIZ**
Urriaren 27an eta 28an.
- > **ORDUA**
Egun bakoitzeko hiru saio egongo dira: 17:00etan, 18:15ean eta 19:30ean.
- > **TALDEAK**
Aretxabaletako eta Eskoriatzako 35 taldek hartuko dute parte bigarren saioan.

INMOBILIARIA
IBARGARAI 3 • BERGARA
 Tel. / Faxa: 943 76 97 97
 www.inmokorosti.com

ETXEBIZITZAK SALGAI

Bergara:

- Zubiaurre 67 m². Berritua.
- Simon Arrieta 80 m². Eguzkitsua.
- Martoko 92 m². Prezio ona.
- Osintxu 80 m². Berritua.
- Ibargarai 40 m². Berritua.
- Bidekuruzeta 60 m². Berritua.
- Zubieta 75 m². Txokorekin.
- Iraburu 84 m². Terrazarekin.
- Zubieta 60 m². Prezio ona.
- San Juan. Bifamiliarra.
- Zubieta 70 m². Berritua.
- Zabalotegi 70 m². Prezio oso ona.

Antzuola:

- Buzintzuri 76 m². Prezio ona.
- Aiherra 123 m². Duplexa.

Elgeta:

- San Roke 90 m². Berritua.
- Salbador 90 m². Igogailuarekin.
- San Roke. Prezio ona.

DEBA
GARAIA
 INMOBILIARIA
 Telefono Aranzadi 2
 T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37

BERGARA

- Simon Arrieta, 88 m², erdialdean.
- San Pedro, 72m², ondo
- Masterreka, 90m², ondo
- Ibargarai, 80m², ondo
- Artekale, 70m², oso ondo
- Ortuibar, 100m², ia berria
- Ibarra, 130m², aukera ona
- Zubieta, 70m², ondo
- Matxiategi, 80m², ondo
- Bidekuruzeta, 200m²
- Iparagirre, 195m²
- Aranerrika, 87m², ondo
- Bidekuruzeta, duplex, 105 m² berritua
- Masterrekan etxebizitzak, 3 logelakoak eta duplexak.

SORALUZE

- Bategieta, 83m², berria

ANTZUOLA

- Duplex berria, erdialdean.
- Eguzki auzoa, 85 m², erdi berritua.

ELGETA

- San Roke, 75 m², ia berria.

IRAGARKI SAILKATUAK

Eguazten eguerdira arte (12:00) jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

943 25 05 01

sailkatuak@goiena.com

PARTIKULARREN IRAGARKIAK DOAN JARRIKO DITUGU: GAINERAKOAK 18 EURO (+BEZ-A) ORDAINDU BEHARKO DIRA MODULUKO. PREZIO BEREZIA: EGUBAKOITZETAKO ETA ESTELEHENKO GOIENKARIA-N, BIETAN ARGITARATUZ GERO, 25 EURO (+BEZ-A).
 GOIENKARIAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunak.

LAN ESKAINTZA TXATXILIPURDI ELKARTEAN PERTSONA BAT BEHAR DA:

ADMINISTRARI lanpostua betetzeko. Lanaldi osoko kontratuarekin.

Gutxieneko eskakizunak:

- Administrazio ikasketetan diplomaduna.
- Euskara maila handia.

Kontuan izango da:

- Elkarte/Enpresen administrazioan esperientzia.
- Euskalgintzaren ezagutza.

Arrasate ingurukoa izatea lehenetsiko da.

Interesa edukiz gero bidali curriculuma:

idazkaritza@txatxilipurdi.com



1/ ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Arretxabaleta. Erdigunean teila-tupeko etxebizitza salgai. 72 metro koadro. Jantzita. 16 metro koadroko garajea. 659 64 67 38.

Arrasate. 79m². Sukaldea, komuna, 3 logela eta egongela. Eguzkitsua. 39.500.000 pta. 688 62 68 88.

Arrasate. Etxebizitza salgai erdialdean. Eraikin berria. 94,50 m². Hiru logela, bi komun, sukaldea eta egongela. Igogailuarekin. 686 24 97 48.

Arrasate. Etxebizitza salgai. San Andresen. 57 metro koadro. Guztiz berritua. Bi logela, egongela, bainugela eta sukaldea. Kanpoaldera begira. Igogailua eta sotoarekin. 620 15 12 12.

Arrasate. Ferrerriak kalean apartamentua salgai. Ganbara eta berogailuarekin. Apartakalea aukeran. 656 78 23 19.

Bergara. Elorregin 90 metro koadroko etxea, guztiz berritua. 100 metro koadroko ganbara dauka. Duplex bihurtzeko aukera. 218.000 euro, negoziagarriak. 666 70 59 90.

Bergara. Erdialdean etxebizitza salgai. Eguzkitsua. 90 metro koadro. Bizitzera sartzeko gertu. Ia guztiz jantzita. Telefonoa: 685 72 40 30.

Bergara. Etxebizitza salgai. Herri erdi-erdian. Egoera ona. 70 metro koadro. Hiru logela. Sukaldea handia, balkoi bati begira. Gasbidezko berogailua. 17 metro koadroko ganbara. 230.000 euro. 671 94 07 68.

Bergara. Ibarra kalean dagoen etxebizitza salgai, berritua eta bizitzeko gertu, berogailua eta jantzita, bikote eta pertsona bakarrendako oso egokia, 50 m². 186.000 euro. 635 71 04 55.

Bergara. Iraburu kalean 100 metro koadroko etxea salgai. Hiru logela, bi bainugela, sukaldea eta egongela-jangela, terraza handia eta dena kanpoaldera begira. 696 38 67 26.

Bergara. Martokan guztiz berritua dagoen etxebizitza salgai. Estreinatzeke. Bi gela, sala, sukalde handia guztiz jantzita, gasa, berogailua eta PVCzko leihoak. 637 55 14 04.

Elgetan etxebizitza salgai, bigarren solairuan, igogailua, 3 gela,

ganbara, aukera onean. 138.232 euro / 23.000 pezeta. Telefonoa: 645 71 76 25.

Eskoriatzan etxebizitza salgai, 80 metro koadro garajearekin. 686 92 55 71.

Getarian itsasoari begira 58 metro koadroko etxebizitza salgai. Estreinatua gabea. Telefonoa: 699 18 75 68.

Oñati. 120 m²-ko duplexa salgai. Herri erdian. Bizitzera sartzeko moduan. Argitsua eta material ederrekin egina. Hiru logela, bi komun, sukaldea, egongela eta estudioa. 420.000 euro. 676 39 36 93.

Oñati. 90 m²-ko etxebizitza salgai Moia kalean. 33.000.000 pezeta. 943 78 11 48.

Oñati. Apartamentua salgai. Arantzazu kalean. Kalegoieneko plazara begira. Bi logela, sukalde-egongela, bainugela eta trasteleku. Argitsua eta egoera onean. 605 77 46 79.

Oñati. Duplexa salgai eraikitzen diharduten etxebizitzan. Lehen eta bigarren solairuak. Garajea dauka. 670 85 85 41.

Oñati. San Lorentzen, eguzkitsua. Hiru gela, bi bainugela, egongela, sukaldea eta ganbara. 52.000.000 pezeta / 312.000 euro. Garaje itxia aukeran (20 m²). Telefonoa: 656 74 80 47 edo 656 74 80 47.

Peñiscola. Apartamentua salgai, lorategiarekin. Peñisnar II. urbanizazioan. 948 41 00 79.

Soraluze. Erdialdean dago. Hiru logela ditu, eguzkitsua da eta berrituta dago. 28 milioi pezeta. 687 08 33 00.

Zarautz. Etxebizitza salgai Itsas-mendi auzoan. Hiru logela eta bi komun. Egoera onean. Altzari eta guzti. 378.000 euro. 665 02 66 23.

103. ERRENTAN EMAN

Arrasate. Uribe auzoan, lau logelako duplex batean logela bat errentan ematen da. 150 euro hilero. Berogailua, argia eta komunitate barne. Telefonoa: 660 04 06 35.

Arrasate. Logela errentan ematen zaio bikote bati edo emakume bati. Erdigunean. Telefonoa: 650 96 23 08.

Eskoriatza. Etxebizitza alokagai daukat. Hiru logela ditu eta berogailua dauka. Ikasleenda-

BERGARA

Taberna errentan ematen da.

943 76 54 75

BERGARA

ko aukera aproposa. 18:00etatik aurrera deitu. 617 80 26 19.

Vera (Almería). Hondartza eta urbanizazio naturistan dagoen etxebizitza errentan ematen da. Guztiz jantzita. Igerilekuarekin. 657 73 94 25.

Villanua (Huesca). Apartamentua errentan ematen da. Deitu 20:00ak eta 22:00ak bitartean. 615 78 78 41.

104. ERRENTAN HARTU

Arrasate. Etxebizitza errentan hartuko genuke. 943 25 01 42.

Bergara. Familia batek etxebizitza hartuko luke errentan. 650 62 12 94 edo 943 53 30 61.

Oñati. Bikote batek etxea hartuko luke errentan. Presazkoa. 649 42 26 30.

105. ETXEAK OSATU

Bergaran edo **Arrasaten.** Telefonoa: 943 78 70 16.

Gela txiki bat hartuko nuke errentan Gabonak arte Bergaran, edo bestelari Arrasaten, Antzuolan, Soraluzen... Telefonoa: 687 08 33 00.

Oñati. Pertsona bat behar da etxebizitza osatzeko. 687 72 62 29 edo 636 42 28 23.

2/ GARAJEAK

201. SALDU

Arrasate. Otarora kalean garajea salgai edo errentan. 656 75 52 28.

Bergara. Garaje itxia salgai Zubiaurren. 37 metro koadro. 606 65 97 82.

Eskoriatza. Garajea errentan ematen da, Gaztañadui kalean. Deitu telefono honetara: 605 71 05 32 edo 943 08 11 15.

BERGARA

Langile bat behar da eraikuntzako kalitate-kontrolako lantegi baterako. Debagoienekoa izatea baloratuko da. B1 gida baimena beharrezkoa.

656 78 88 59 (Julio)

ARRASATE

Pintura eta dekorazio enpresak saltzailea behar du lanaldi erdirako.

943 77 06 96

202. EROSI

Oñati. Apaolaza kale inguruan garaje edo trasteleku erosiko genuke. 675 71 69 35 edo 605 76 63 87.

205. BESTELAKOAK

Garajea konpartitu nahiko nuke. Motorra edo quad bat gordetzeko. 680 35 25 22.

3/ LOKALAK

301. SALDU

Arretxabaleta. Lokala salgai Gorbekalean. 108 m². Telefonoa: 671 42 54 32.

303. ERRENTAN EMAN

Bergara. Pabiloi industrialak alokatzen da autokarabanak edo karabanak sartzeko. Telefonoa: 635 70 38 16.

304. ERRENTAN HARTU

Debagoiena-Zumarraga Tabernan baten bila nabil errentan hartzeko. 661 17 48 07.

4/ LANA

401. ESKAINTZAK

Arrasate. Neska gertu etxeko lanak egiteko eta atariak garbitzeko. 663 04 53 99.

Bergara. Pertsona bat behar da bi ume zaintzeko 16:30etik 20:30era. Euskaraz jakitea beharrezkoa da. 628 48 52 34.

Bergara. Pertsona bat behar da goizetan etxeko lanak egiteko. Sukaldean ondo moldatzea beharrezkoa da. 628 48 52 34.

402. ESKAERAK

Arretxabaleta. Emakume esperientziaduna gertu umeak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko. 943 77 29 58 edo 680 61 96 98.

Arretxabaleta. Ingelesko eskolak ematen ditut. 943 79 03 83.

Arretxabaleta. Neska euskalduna gertu etxeko lanak egiteko. 660 04 60 58.

BERGARA

Langile bat behar da eraikuntzako kalitate-kontrolako lantegi baterako. Debagoienekoa izatea baloratuko da. B1 gida baimena beharrezkoa.

656 78 88 59 (Julio)

ARRASATE

Sukaldaria behar da tabernan lan egiteko.

943 79 20 56

ARRASATE-BERGARA.

Emakume bat gertu haur eta nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. 628 52 34 06.

Arrasate. Emakumea edozein lanerako gertu. 671 29 57 88.

Arrasate. Emakumea gertu edozein lanerako. 943 25 01 42.

Arrasate. Neska euskalduna prest ordu bietatik aurrera haurrak zaintzeko, goizetan Haur Hezkuntzako ikasketak egiten ditudalako. 664 38 49 76.

Bergara edo Arrasate. Emakume bat gertu garbiketarako lanak egiteko eta sukaldeko laguntzaile izateko. 664 38 49 76.

Bergara edo Arrasate. Mutil bat gertu zerbitzari eta argiketari lan egiteko. 638 54 96 72.

Bergara-Arrasate. Emakume bat gertu etxeko lanak egiteko. 664 57 07 74.

Bergara. Emakume bat gertu garbiketarako lanak egiteko eta haurrak nahiz nagusiak zaintzeko. 619 65 56 75.

Bergara. Emakumea prest edozein lanerako gertu. Telfonoa: 650 67 15 92.

Bergara. Zerbitzaria behar baduzu, deitu! 30 urteko neska, esperientzia handiarekin. 656 75 50 07.

Bergaran edo **Arrasaten.** Emakumea gertu etxeko lanak egin edota adineko pertsonak edo umeak zaintzeko. 943 76 04 18 edo 676 87 64 08.

Debagoiena. 19 urteko neska edozein lan egiteko gertu. Goizetan bakarrik. 690 70 91 46.

Debagoiena. Emakumea gertu asteburu eta jaiegunetan edozein lanerako gertu. 618 93 59 29.

Debagoiena. Emakumea prest pertsona nagusiak edo haurrak zaintzeko, tabernari jarduteko edo garbiketarako lanak egiteko. 671 25 00 22.

Debagoiena. Gazte batek pape-rekin, jai egunetan eta astean zehar lana egingo luke. Marcos. 696 81 10 07.

Debagoiena. Mutila prest pertsona nagusiak zaintzeko, tabernari jarduteko edo etxeko garbiketarako egiteko. 627 65 02 71.

Debagoiena. Neska bat nagusiak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko gertu. 639 02 00 81.

Debagoiena. Neska bat nagusiak

ARAMAIO

Zerbitzaria behar da aste bukaeratarako.

690 85 52 25

siak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko gertu. 639 02 00 81.

Debagoiena. Neska gertu etxeko lanak egiteko eta edozein lanerako gertu. 618 93 59 29.

Debagoiena. Paperak erregelan dituen neska gazte bat etxeko lanak edo nagusiak zaintzeko gertu. Nahiago asteburutan bada. Teresa. 649 63 23 24.

Debagoiena. Tabernak edo elkartek garbitzeko gertu. 636 59 40 35.

Oñati. Neska euskalduna haurrak zaintzeko prest. Telefonoa: 636 07 01 16.

Oñati. Neska gertu tabernak edo elkartek garbitzeko. 635 70 07 92.

403. BESTELAKOAK

Arropa lisanzen dut. Dagokion lekuan batu, neure etxean lisatu eta entregatu egiten dit. 656 75 04 43.

5/ IRAKASKUNTZA

501. JASO

Arretxabaleta. Batxilergoko matematika eskolak jasoko nituzke. 943 53 38 19 edo 675 71 44 12.

Bergara. DBHko 1. mailako eskola partikularrak hartuko nituzke etxean. Deitu 21:00etatik aurrera. 943 76 03 75.

Bergara. DBHko 3. mailako eskola hartuko nituzke etxean. 943 76 16 42.

Debagoiena. LHko laugarren mailan dabilen neska batek eskola partikularrak jasoko nituzke, etxean. 943 77 15 58 edo 610 69 78 15.

502. EMAN

Arrasate. Ingenieritza ikaslea LH edota DBHko eskola partikularrak emateko prest. EGA eta ingeles maila ona. 625 74 91 50.

Arrasate. LHko eta DBHko eskola partikularrak emateko prest dagoen neska arduratsua naiz, gaztelaniaz edo euskaraz. Ingelesko eskolak ere ematen ditut. 679 23 25 64.

Debagoiena. Ingeles ezko eskolak ematen ditut. Deitu ezazu telefono honetara: 943 79 03 83.

Go mailako ingeniari industrialak eskola partikularrak ematen ditu Arrasaten. Maila guztiak: unibertsitatea, zikloak, batxilergoa, DBH, matematika, fisika, marrazketak, teknologia, kimika, elektrizitatea... Arreta pertsonalizatua. Deitu ezazu telefono honetara: 630 71 35 83.

6/ MOTORRA

601. SALDU

Audi A4 TDI. Bost urtekoa eta oso egoera onean. 12.000 euro. Aitziber. 605 72 41 51.

BMW F650 GS motorra salgai. 2.500 kilometro ditu, bi urte eta hainbat osagarri. Egoera onean. 6.500 euro. 636 85 74 43.

Beta 450 enduroko motorra salgai. Egoera onean. Telefonoa: 615 00 84 49.

Citroen C4 Coupe beltza salgai. 138 ZP. Diesela. 55.000 km. Estra guztiak. Oso egoera onean. 14.000 euro. 627 93 55 74.

Honda XR 400R mendiko motorra salgai. Merkea eta fidagarria, eta mantentze lan gutxi-koa. 677 98 42 94.

Hyundai Tucson. 112 zaldi. Diesela. 2 urte eta 24.000 kilometro. Oso egoera onean. 669 54 89 16.

Renault Megane Coupe salgai. 1997koa.

hildakoak

- **Pablo Aiausti Madina.** Oñatin, urriaren 21ean. 87 urte.
- **Anastasia Madinabeitia Oñate.** Oñatin, Urriaren 22an. 94 urte.
- **Vicente Ugarte Igartua.** Oñatin, urriaren 19an. 83 urte.
- **Juan Maiztegi Arabaolaza.** Oñatin, urriaren 23an. 79 urte.
- **Domingo Ibabe Txintxurreta.** Arrasaten, urriaren 12an. 93 urte.
- **Eusebio Gabilondo Azpitarte.** Arrasaten, urriaren 16an. 84 urte.
- **Mari Carmen Biain Arriaran.** Eskoriatzan, urriaren 16an. 83 urte.
- **Hipolita Guerra Naranjo.** Arrasaten, urriaren 16an. 79 urte.
- **Julio Sierra Moyano.** Arrasaten, urriaren 21ean. 82 urte.
- **Adolfo Alutiz Pecina.** Arrasaten, urriaren 22an. 83 urte.

ESKELAK

GOIENKARIAn eskela jarri nahi baduzu, deitu telefono honetara eguen eguerdia baino lehen:
943 25 05 01

Edo zatoz ordezkaritza batera, eguazten eguerdia baino lehen:

Arrasate

Goiena: Otalora lizentziaduna 31. 943 71 25 11.
Goiena: Nafarroa etorbidea 2. 943 79 21 00.

Bergara

Goiena: Barrenkalea 33. 943 25 05 01.

Oñati

Biklon publizitate agentzia: Olakua 9. 943 78 10 65.

Aretxabaleta

Goiena: Durana 11. 943 79 86 21.

Aramaio

Kintelena janaridenda: Nardeaga 11. 945 44 50 22

Elgeta

Mariasun janaridenda: Salbador 26. 943 76 81 90.

Antzuola:

Itzar liburu denda: Kalebarren 1. 943 76 60 62.

Eskelaren prezioa: 87 euro.

Prezio berezia:
egubakoitzeko eta asteleheneko GOIENKARIAn, bietan, argitaratuz gero, **100** euro.

Goienkaria: astero, 45.000 irakurle.




Arrasateko **Eguzkiñe Loiti** eta **Juanan Doiage** orain dela 25 urte ezkondu ziren. Egun hauetan zilarrezko ezteiak ospatu dituzte familia eta lagunekin. Zorionak, bikote! Ondo pasatu eta izan zorionsuak. Patxo handi bat familia guztia partetik.



Esther Altuna arrasatearra eta **Jose Ramon Lete** plaentziarra 1982ko urriaren 30ean ezkondu ziren. Familiaren partetik. "Berezia da urte osoan urriak hogeitahamarra sukaldean den egutegian egina daukagu marra. Denok biltzeko beti falta da aitzaki baten beharra egun horretan piztua baida maitasunarenugarra. Arrasatek Plaentziaraino miatuz bazterrik bazter aukeratuz zein bihotzetan galditu betiko maizter. Zilar ezteiak ospatzen gaude urrezkoak dira laister denon partez besarkada bana Jose Ramon eta Esther."



Ana eta **Ekaitz** arrasatearrak urriaren 20an ezkondu ziren Arrasateko Udala auzoko elizan. Afaria Leintz Gatzagako Gure Ametsa jatetxean egin zuten; eta, bidaian Egiptora joan dira. Lagunen partetik, zorionak, bikote, eta zorionsu izan! Patxo handi bat.



Amaita Urtaza eta **Gerardo Guridi** oñatiarrak bihar ezkonduko dira, Oñatiko udaletxean. Ondoren, familia eta lagunekin Gure Ametsa jatetxean egingo dute ospakizuna; eta ezkon bidaian Argentinara joango dira. Zorionak, Kirrin familiaren partetik.

IV. URTEURRENA

Jesus Errarte Madinabeitia

Laugarren urteurreneko meza domekan, urriaren 28an, 12:50ean, Eskoriatzako San Pedro elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi, alde zuretik eskerrik asko sendikoen izenean.

ESKER ONA

Anastasia Madinabeitia Oñate

Eusebio Lizarralde Leibaren alarguna

2007ko urriaren 22an hil zen, 94 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.



Oñatin, 2007ko urriaren 26an.

ESKER ONA

Dunixe Zuazabeitia Errasti

Aretxabaletan hil zen 2007ko urriaren 4an, 87 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.




Aretxabaletan, 2007ko urriaren 26an.

ESKER ONA

Juanito Maiztegi Arabaolaza

Oñatin hil zen 2007ko urriaren 25an, 79 urte zituela.

Gure bihotzean beti egongo da gordeta lekutxo bat zuretzako ez zaitugu sekula ahaztuko. Eskerrikasko aitta.



Zure familia.
Oñatin, 2007ko urriaren 26an.

ESKER ONA

Bixente Ugarte Igartua

Carmen Telleriaren alarguna

Oñatin hil zen 2007ko urriaren 17an hil zen, 85 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.



Oñatin, 2007ko urriaren 26an.

Babeslea:

OROILORE
Hileta eta beilatoki zerbitzuak

Momentu txar horietan sortzen diren galdera, kezka eta arazo guztiei aurre egiteko zuei laguntzeko ireki berria da

Amillaga 27, Bergara
Tel.: 617 44 21 55 - 943 76 94 73 / Faxe: 943 76 94 76
Zerbitzua Debagoiena osorako

BESTE BEGIRADA BAT

Irekiagoa eta, batzuetan, inkonformista ere bai.

Besteek egiten ez dituzten galderak egiten dituzu. Eta erantzun berriak lortu nahi dituzu. Sortzaileagoak.

Besteek arazo kontsideratzen dutena, zuk aukeratzat duzu.

Are gehiago, zure begirada ameslaria ere bada.
Bada beste begirada bat: zuk duzuna.

Noticias de

Gipuzkoa

ZER IRAKURRI, HURA IZAN.

Iker Orobengoa > Auto kopilotua

"Ausardia eta konfiantza ezinbestekoak dira auto rallyetan kopilotu izateko"

Egunak 24 ordu ditu, baina badirudi ez direla nahikoa Arrasateko Garagartza auzoko Iker Orobengoarendako. Ulma Forjan egiten du lan eta aisialdira auto rallyetan kopilotu ibiltzen da; snowboarda egitea du gustuko; eta denbora luzeagoa izango balu, behar bada musikari eskainiko lioke tar- te zabalagoa; izan ere, bateri- jolea ere bada.

IRATI AGIRREAZALDEGI > ARRASATE

Auto lasterketetatik ezagutuko dute batzuek, Kañeria 13 musika taldean bateri-jole jardundakoa delako beste batzuek. Guk auto barruan edo bateria atzean ezkututzen den Iker Orobengoa azalatu dugu.

Nondik dator kizu motorrera-ko zaletasuna?

Motorrekin hasi nintzen, eta gero pasa nintzen autoetara. Txikitatik izan dut motor mundurako zaletasuna. Lehenengo Mobillette zaharretatik hasi eta bederati edo hamar motor izan ditut. Norbaitek botatzeko zeukan motor bat konpondu, xaxisa lortu gero, beti ibiltzen ginen konponketa eta muntaia lanetan. Geroago izan nituen nireak. Gainera, nire aita pontekoak, osaba Alfonsok, mekanikari lanak, konponketa guztiak egiten zizkidan.

Autoetara nola pasa zinen?

Anaia Igor eta Iñigo Saizar orain dela bost urte Kataluniako rallya ikusten egon ziren eta gogoz bueltatu ziren. Hasieran, asistentzia lana egiten nuen eurekin, gero Saizarrek utzi egin zuen eta kopilotu tokia hartu nuen. Igorrekin elkar-ulertze handia daukat eta autoan ibiltzea gustuko dut, betiere behar den tokian. Gainera, anaiari ez bezala, niri berdin dit gidariaren zein aldame- neko aulkian joan.

Inoiz pentsatu duzu gidariaren lekuan jartzea rallyetan?

Bai, baina asmo zoro samarra litzateke. Izan ere, nire gidatzeko modua bortitza da oso.

Kopilotu on batek zer behar du?

Ezinbestekoa da ausardia gidariaren aldamenean joateko. Izan ere, beti esan izan da kopilotuarena heriotzaren aulkia dela; senak gure gorputza babes- tera eramaten gaitu; hortaz, arris- kuaren aurrean gehienetan kopilo- tuak ditu galtzekoak. Dena den, konfiantza dut anaiarekin. Bada- kit noiz dagoen urduri, noiz esan behar diodan poliki joateko eta baita azeleragailua zapaltzeko ere. Notak ere bion artean gerta- tzen ditugu. Azken batean, garrantzitsuena da konfiantza.

Non entrenatzen zarete?

Ahal den tokian. Lehiakete- tarako erabiltzen dugun autoa homologatuta dago eta Aramaio aldera joaten gara proba bat edo beste egitera, baina bidea beste autoendako ere zabalik dagoenez ezin da erokeriarik egin.



ARANTZAZU EZKIBEL

PERTSONALA

Herria: Arrasate, Garagartza auzoa. **Adina:** 28 urte. **Ikasketak:** Goi mailako mantenimendu zikloa. **Zaletasunak:** Motorra, musika eta snowboard egitea. **Gorrotatzen duzu ezer?** Haserrea. **Baduzu maniarik?** Musikarekin maniatikoa naiz oso, entzuterakoan

soinu ona izan behar du. **Auto gidari bat:** Rallyeta-ko egungo onena, Loeb. **Zirkuitu bat:** Montmelo. **Eskiatzeko toki bat:** Las Leñas, Txilen; datorren urtean joateko asmoa dut. **Amets bat:** Lehengo rallyetan era- biltzen ziren moduko auto bat edukitzea.

1 Formula jarraitzen duzu?

Bai, baina askorik ere ez. Iru- ditzen zait prentsa arrosan leku bat bilatzeko asmoz kutsu sent- sionalistegia hartu duela, futbo- larekin gertatu den moduan.

Askotan aldarrikatzen duzue Motor gehiago eta futbol gutxiago esaldia, ezta?

Bai. Herri guztietan dago fut- bol zelai bat gutxienez, baina Euskal Herrian auto zirkuiturik ez dago. Jarriko balituzte, behar- bada istripu gutxiago egongo lira- teke, segurtasunez gidatzeko ikastaroak egin ahal izango lira- tekeelako, besteak beste.

Musikazale ere bazara. Kañeria 13 taldeko kide zinen garaiaz zein oroitzen duzu?

Bateria-jolea nintzen. Garai polita zen, baina era berean gogorra. Kontzertuak nekaga- rriak ziren, baina une hunkiga- rriak ere bizi izan nituen eta bihotzean gordeko ditut. Gaur egun ere bateri- jotzen dut, bai- na niretzat.

Garagartzako jaietan ere musi- kaz arduratzen zara.

Musika beti izan dut gogoko eta Kañeria 13n nenbileneko kontaktuak baliatzen ditut, bes- teak beste, musika ekipoa ekar- tzeko.

Snowboarda egitea ere gustu- ko duzu.

Ahalik eta gehienetan joaten saiatzen naiz, elurra egin behar duela dakidanean, batez ere. For- migalera eta Baqueirara joaten naiz. Gustuko dut pistetan ibili beharrean gailur batera igo eta estilo librean jaitsi. Txapelkete- tan ez naiz ibiltzen ez daukada- lako inori erakutsi beharrik hala- ko edo bestelako jauziak egiten ditudala... Nahi dudalako eta sen- titzen dudalako egiten dut.

Nola banatzen dituzu orduak gauza guztietara heltzeko?

Zaila da. Batzuetan gauza bati eskaintzen diot denbora luzeagoa beste zaletasunei baino. Eguna- ren eta lanetik ekartzen dudan tenplearen araberakoa da.

Aurrerantzerako zein asmo?

Jaizkibelgo lasterketa izango da denboraldiko azkena. Beste rally bat ere badago azaroaren amaieran, baina euriarekin arris- kutsua izan liteke; izan ere, lehe- nengo pertsonok gaude eta autoa gero. Ondoren, azaroaren amaie- ran snowboardari ekingo diot.



AURKEZPENA Elhuyarreko Itziar Nogeras, Lurdes Ansa eta Daniel Solabarrieta, bideojokoarekin.

ELHUYAR

UMEAK > BIDEOJOKOAK

Umeendako euskarazko bideojoko didaktikoa aurkeztu du Elhuyarrek

'Armix baso magikoan' bideojokoa 5-8 urte arteko umeendako da, eta matematika, inguruaren ezaguera eta hizkuntza gaien inguruko probak planteatzen ditu

guerako eta hizkuntzako gaiak landuko ditu. Teknologiarri dagokionez, hiru dimentsioko irudiak erabili dituzte, jokoa erakargarriagoa eta ikusgarriagoa izan dadin.

SERIE BATEKO LEHENA

Elhuyar Fundazioak argitaratuko dituen bideojoko didaktikoen serie baten lehen CD-ROMa da *Armix Baso Magikoan*, eta helburua da 2009. urtearen bukararako seriea amaituta egotea. Lehenengo horrek 5-8 urteko umeak hartzen ditu kontuan; hurrengoak 12 urte artekoentzat izango dira.

Lehenengo joko horretan, erleei ezta lapurtu dien maltzur misteriosua aurkitu beharko du *Armix* izeneko armiarman; horretarako, baso magikoan sartu eta maltzurkeriakideak harrapatu ondoren, azpikeria horren

atzean nor dagoen argitu beharko du. Horretarako, proba batzuk gainditu beharko ditu eremu batzuetan, eta jokalaria bere jakinduria erakutsi beharko du. Elhuyarren webgunean, www.elhuyar.org/armix helbidean, jokari buruzko informazioaz gain, jokoa probatzeko aukera ere badago.

IAZ HASI ZIREN

Elhuyar Fundazioak joan den urtean ekin zion euskarazko bideojokoan ekoizpenari.

Lehenengo bideojoko hura aisialdirako izan zen, eta aurten kaleratu duen *Kao: Sumendiko Sekretua* ere bai. *Armix Baso Magikoan*, aldiz, Elhuyarrek ekoizten duen lehenengo bideojoko didaktikoa da; eskolan lantzen diren gaiak hartzen ditu kontuan, baina modu atseginean aurkezten dizkio ikasleari.

LEIRE KORTABARRIA > BERGARA

Umeek bideojokoetan euskaraz jolasteko eta ikasgaiak fresko edukitzeko aukera dute *Armix* izeneko laguntxoarekin. Elhuyar Fundazioak joan den eguaztenean aurkeztu zuen *Armix Baso Magikoan* izeneko bideojokoa, 5-8 urte bitarteko umeendako. Jolasen bidez, jokalaria matematika, inguruaren eza-

teknologia berriak

> INPRIMAGAILUA

Funtzio askotariko Dell etxearen inprimagailu berria haririk gabe erabil daiteke

Dell etxeak funtzio askotariko Dell 948 inprimagailu berria aurkeztu du.

Hobekuntza nabarmenena aurreko modeloarekiko da abiadura hobetu egin dela eta Energy Star 4.0 standarrarekin bateragarria dela.

Ezaugarri nagusiak honako hauek dira: faxa, eskanerra, kopiagailua eta inprimagailua. Konektibitate aukera hauek ditu: wi-fi eta memoria txartelentzako erretena eta Bluetooth egokitzailea.

Salneurria: 463 euro.



Dituen konexio aukera ezberdinak erabilia, ordenagailua ez da beharrezkoa inprimatzeko.

> LCD PANTAILA

Nec AccuSync: 19, 20 eta 24 hazbeteko monitorea

MultiSync gama eguneratu ondoren, Nec enpresak AccuSync gama eguneratu du.

Pantaila berriek 19, 20 eta 24 hazbete dituzte. Nabarmenena 24 hazbeteko NEC AccuSync LCD24WMCX modelo da. 1920x1200 pixeletako bereizmena du, bost milisegundoko erantzun denbora eta DHCP eta HDMI portuak.

Hiru modeloak eskuragarri daude dagoeneko. 19 hazbete-koak 195 euro, 20 hazbete-koak 265 euro eta 24 hazbete-koak 384 euroko salneurriak dituzte.



Kolore, temperatura eta distira kontrolatzeko botoia; eta sRGB kolore modelo euskarria.

> MARKU DIGITALA

Gigantor: 1024 x 768 pixeleko bereizmena duen hamabost hazbeteko marku digitala

Gigantor marko digitalen merkatuan sartu da.

Hamabost hazbeteko marku digitala kaleratu du. Marku horrek 1024x768 pixeleko bereizmena du. JPEG eta BMP irudi formatuekin bateragarria da. USB erreten bat eta formatu askotariko txartelak (CF, MS, SD, MMC, SM eta XD) erabiltzeko aukera ematen du. MP3 eta MPEG4 fitxategiak erreproduzitzeko gai da, soinua barneratuta dituen bozgorailuetatik entzun daiteke.

Salneurria: 175 euro, urrutiko agintea barne.



Publizitate-kampainan *Godzilla* agertzen da; pantailak duen tamainu izugarria irudikatu nahi izan dute.

Zure negozioaren erakusleioa Interneten

www.goiena.net-eko **blog komertzialak**

www.goiena.net/blogak

- | | | | | |
|-----------------|------------------|--------------------|----------------|---------------|
| /aebpn | /denetik | /gertu | /korozabaleta | /richimaier |
| /aiastui | /dragon-oriental | /gorkataxi | /markiegi | /tabernaberi |
| /aretxargi | /dukiena | /gurea | /maulanda | /udalaitz |
| /argi-plastik | /ego | /gutzieder | /mayte | /urdeki |
| /arregi | /ekilore | /hamaika | /merkeopari | /ugartearotza |
| /atai | /ekin | /itxaseder | /multiopticas | /urbietza |
| /azkarate | /elejalde | /irudisport | /ohiak | /urko |
| /bastida | /ezkutuorly | /ixaun | /ogizun | /vitoria |
| /briz-aseguruak | /galgorri | /jracing | /okipark | /zainduz |
| /BZ-sistemas | /gallastegi | /joseba | /otzeta | /ziripot |
| /bolusukaldeak | /ganesha | /lamaino-etxeberri | /pando | |
| | /garaia | /lorelan | /puerta-ingles | |

Eta baita ere:

- www.aizue.com
- www.amgautoak.com
- www.baster-aldejetexea.com
- www.ehmff.com
- www.gelatzu.com
- www.goikobenta.com
- www.haurtxoa.com
- www.klorofila.com
- www.landaluze.com
- www.lilura.com
- www.toldosiete.com
- www.uxarte.net



berriak

> GOITB

Mensajeros de Irapuato mariatxiak GOITBn asteburuan

Mexiko aldera bidaiatu ahal izango duzue aste bukaeran GOITBekin. Izan ere, euskarazko toki telebisten elkarte-ko (Tokiko) Oizmendi telebistak ekoiztutako ballet folklorikoa ikusteko aukera izango da, bai zapatuan eta baita domekan ere. Mensajeros de Irapuato Mexikoko mariatxiak talde handia osatzen dute. Askok dira agertokian ikusiko dituzuenak: dantzariak, gitarrak, biolinak...

> KANTARI

Aretxabaletako eta Eskoriatzako haurren txanda asteburuan

Kantariko saioak grabatzen jarraituko dute Goiena Telebistan. Bihar, zapatua, Aretxabaletako haurren txanda izango da eta domekan, berriz, bereziki Eskoriatzako haurrak igoko dira taula gainera. Emanaldiak Eskoriatzako Huhezi fakultatean grabatuko dira, eta bi egunetan sei saio grabatuko ditu GOITBk. Hain zuzen, 35 eskal kantu entzun ahal izango ditu hara joaten denak.

> ARRASATE IRRATIA

Domu Santu egunarekin lotutakoak datorren astean

Datorren astean, Domu Santu eguna badatorrela-eta, jai egun horrekin lotutakoak landuko ditugu gure irratiari. Kanposantura joateko autobus zerbitzu berezia, lore kontuak eta beste landuko ditugu. Horrez gainera, gogoan izan aste laburra dugula datorren astekoa; Arrasate Irratian ere egutegi horixe izango dugu eta eguaztenera arte izango gara zuzeneko saioan, *Igo autobusera* saioan.

> ARRASATE IRRATIA

Albistegi zerbitzua indartzeko egitasmoak aurrera segitzen du

Ikasturte berriaren hasierarekin, Arrasate Irratiaren helburuetako bat zen albistegi zerbitzua indartzea. Bada, hori oinarri, ordubeteko albistegi emititzen du egunero irratiak. Arrasateko albisteendako tartea utzi eta gero, ibarrekoak lantzen dituzte. Eguraldiaren iragarpen zehatza ere egiten dute, Joxe Landaren eskutik, eta iritziek ere badute tarte-txoa, *Arbolapetako berbak* saillean. Hori guztia, 10:00etatik 11:00etara bitartean.

'ILUNPEAN' > EGUBAKOITZA, 22:15

ETBko aurkezle Vanessa Sanchez 'Ilunpean' saioan

'Teleberri'-ko aurkezlea da Vanessa Sanchez; sortzez arrasatearra, hainbat tokitan egin ditu berriemaile lanak

GOIENKARIA > ARRASATE

Guztiok ezagutzen dugu ETBko *Teleberri* aurkezten duen emakumearen aurpegia. Vanessa Sanchez da hura, sortzez arrasatearra. Txikitan joan zen Gasteizera bizi izatera, eta ondoren munduko txoko askotan eman ditu hainbat denboraldi. Parisen eman zituen Vanessa Sanchezek bost urte, ETBko albistegitarako korrespontsal lanak egin. Gainera, munduko beste txoko batzuetan ere egin ditu berriemaile lanak. Egun, Bilbon bizi da eta, esan bezala, gaur *Ilunpean* saioan egongo da Iker Barandiaranekin batera.



VANESSA SANCHEZ GOIENKARIARako egindako argazkian.

IKER BARANDIARAN

'ZAHARRAK BERRI' > EGUAZTENA, 20:15

Intxaurrak, loreak eta Domu Santu eguna berbagai 'Zaharrak berri'-n

GOIENKARIA > ARRASATE

Zaharrak berri saioa hainbat kontu zahar eta berrirekin datorrigu datorren astean. Hasteko, Amaia Diaz de Monasterioguren dietistak, astero bezala, elikagai baten gaineko aholkuak emango ditu: aste honetan

intxaurren gainean arituko da. Zeintzuk diren eskaintzen dituen onurak, egunean zenbat jatea komeni den, noiz jan behar diren (goizean, arratsaldean...) eta beste hainbat kontu. Erreportajearen atalean, berriz, Bergarako Gorosti lora-

dendako Irene Zenitagoiak neguan etxeko balkoia apaintzeko zein lore diren egokiak eta zeintzuk ez erakutsiko dizue.

Tertulian, berriz, Kepa Lizarralde eta Isabel Guridi hizlariak, Domu Santu egunaren bezperan, aspaldiko ohiturak jarraitzen dituzten, heriotzari beldurrik dioten eta beste hainbat konturen gainean arituko dira.

Bestalde, Donostiako Kursalean Gabonetan egingo den gospel kontzertuko sarrerak nahi badituzu, deitu 943 00 08 34 telefono zenbakira saioan zehar.

telebegi

Edu Mendibil > www.goiena.net/blogak/edu

Mesedez, Milá

Aspaldian telebista gutxi ikusi dut eta, beraz, zutabe hau egitea tokatzen zaidanez, atrebentzia gehiegi ez bada, saioa ikusi gabe egingo dut, behingoagatik. Zappingetan ikusitakoa, han eta hemen irakurritakoa (gutxi) eta lagunengandik iristen zaidana (are gutxiago) oinarri hartuko dut GHren 9. ekitaldia komentatzeko.

Mercedes Milák jarraitzen du saioaren gidaritzan, nola ez; nik uste dut bere frustraziorik handienetakoa aurkezten duen programako lehiakide bat ez izatea dela. Badirudi kondentatua dagoela aurkeztera eta, ondorioz, lehiakideak zein ikusleak haren gorabeherak jasatera. Bere umorea neurtzeko tresna baliagarria da Miláren orrazkera. Ilea gorantz, tente jarri badiote, *adios!* Aurreko baten Pocholoren antza hartu nion. Esperimentu soziologiko gisa saldu ziguten hasieratik GH, Eduard Punsetek egindako azterketa sakona balitz. Baina zein da GHren ekarpena? *Edredoning* delakoa? Lehiakideen manien harira, Milák berak zera aitortu zuen behin: dutxara doanean txiza egitea gustuko duela. Kantu apropos baten laguntzaz, ez litzateke saioaren amaiera zoragarria izango Milá horrela agertzea?

arrasate irrata

FM 107.7

Zapatua

10:00 Asteko gainbegiratu. Juan Luis Zabala idazlea, *Ilunpean* saioan, *Danbaka.cometa* Kantari saioetako musika kontuak, hirugarren adinekoen gainekoak Zaharrak Berri saioan eta beste.

Domeka

10:00 Asteko gainbegiratu.

Astehenetik eguaztenera

10:00-12:00 Igo Autobusera
Albistegi
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landaren Ilunpean Kantaka Zaharrak Berri Astearren errepasoa Elkarriketak Zozketak Zorion agurrak (parte hartzeko: 943 71 17 31 irratia@goiena.com)
11:55 Arrasateko albistegiak, labur.
12:05 Euskadi Irratiko albistegiak
12:10 Izarren ordua: abesti ezagunak
13:00 Euskadi Irratiko albistegiak.
14:00 Igo Autobusera! (errep.)
17:00, 19:00, 21:00, 23:00 Arrasate Irratiko albistegi laburra.

GOITBko programazioa

Egubakoitza, 26

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak: Calimero. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Ur eta Lur. 14:15 Animaliak. 14:45 Albiste aurrerapena. 15:15 Berbaire. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Eltze beroa. 16:15 Musi-kantoi. 16:45 Albistek. 17:15 Calimero. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Gertutik. 18:15 Erreportajea. 18:45 Albistek. 19:15 Ikusmira. 19:45 Berriak. 20:15 Marrazki bizidunak: Calimero. 20:45 Berriak. 21:15 Erreportajea. 21:45 Gaurkoak. 21:47x2. 22:15 Ilunpean. 22:45 Berriak. 23:15 Berbaire. 22:45 Gaurkoak. 23:30 Musi-kantoi. 00:15 Emisio amaiera.

Zapatua, 27

08:00 Emisio hasiera. 08:05 Marrazki bizidunak: Horry, Calimero eta Trikitraka trikitron. 11:00 Ikusmira. 11:30 Ikusten. 12:00 Astekoak. 12:15 Klipa. 12:30 Erreportaia. 13:00 Eltze beroa. 13:30 Mexiko lindo berezia. 15:00 Berbaire. 15:30 Erreportajea: Udazkeneko oparia. 16:00 Gertutik. 16:30 Ilunpean. 17:00 Marrazki bizidunak. 19:00 Animalia. 19:30 Klipa. 20:00 Ur eta Lur. 20:30x2. 21:00 Jazmina. 21:30 Berbaire. 22:00 Astekoak. 22:15 Klipa. 22:30 Ilunpean. 23:00 Erreportajea: Udazkeneko oparia. 23:30 Musi-kantoi. 00:00 Jazmina. 00:30 Emisio amaiera.

Domeka, 28

08:00 Emisio hasiera. 08:05 Marrazki bizidunak: Calimero, Horry eta Trikitraka trikitron. 11:00 Solasta. 11:30 Musi-kantoi. 12:00 Jazmina. 12:30 Klipa. 13:00 Eltze beroa. 13:15 Klipa. 13:30 Animalia. 14:00 Berbaire. 14:30x2. 15:00 Ikusmira. 15:30 Marrazki bizidunak. 18:00 Mexiko lindo berezia. 19:30 Eltze beroa. 20:00 Ur eta Lur. 20:30 Erreportajea: Udazkeneko oparia. 21:00 Jazmina. 21:30 Musi-kantoi. 22:00 Astekoak. 22:00x2. 23:00 Erreportajea: Udazkeneko oparia. 23:30 Ilunpean. 00:00 Musi-kantoi. 00:30 Emisio amaiera.

Astehena, 29

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak: Calimero. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Erreportajea: Ttipi Ttapa. 14:15 Eltze beroa. 14:45 Berriak. 15:15 Ilunpean. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Berbaire. 16:45 Berriak. 17:15 Calimero. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Ikusmira. 18:15 Ikusten. 18:45 Berriak. 19:15x2. 19:45 Berriak. 20:15 Marrazki bizidunak: Calimero. 20:45 Berriak. 21:15 Harmailatik. 21:45 Gaurkoak. 21:47 Gertutik. 22:15 Kirolari. 22:45 Berriak. 23:15 Harmailatik. 22:45 Gaurkoak. 23:30 Klipa. 00:15 Emisio amaiera.

Martitzena, 30

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak: Horry. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Gertutik. 14:15 Harmailatik. 14:45 Berriak. 15:15x2. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Kirolari. 16:15 Eltze beroa. 16:45 Berriak. 17:15 Horry. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Klipa. 18:15 Musi-kantoi. 18:45 Berriak. 19:15 Harmailatik. 19:45 Berriak. 20:15 Marrazki bizidunak: Horry. 20:45 Berriak. 21:15 Teknopolis. 21:45 Gaurkoak. 21:47 Berbaire. 22:15 Animaliak. 22:45 Berriak. 23:15 Ikusmira. 22:45 Gaurkoak. 23:30 Gertutik. 00:15 Emisio amaiera.

Eguaztena, 31

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak: Calimero. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Ikusmira. 14:15 Eltze beroa. 14:45 Berriak. 15:15 Berbaire. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Animaliak. 16:15 Teknopolis. 16:45 Berriak. 17:15 Calimero. 17:45 Gaurkoak. 17:47x2. 18:15 Harmailatik. 18:45 Berriak. 19:15 Marrazki bizidunak. 19:45 Berriak. 20:15 Zaharrak berri. 20:45 Berriak. 21:15 Hitzbitan. 21:45 Gaurkoak. 21:47 Zuzeneko. 22:45 Berriak. 23:15 Teknopolis. 22:45 Gaurkoak. 23:30 Jazmina. 00:15 Emisio amaiera.

Eguena, 1

08:00 Emisio hasiera. 08:05 Marrazki bizidunak: Horry, Calimero eta Trikitraka trikitron. 11:00 Ikusmira. 11:30 Ikusten. 12:00 Astekoak. 12:15 Klipa. 12:30 Erreportaia. 13:00 Eltze beroa. 13:30 Zuzeneko. 14:30 Teknopolis. 15:00 Berbaire. 15:30 Gertutik. 16:00 Animalia. 16:30 Ilunpean. 17:00 Marrazki bizidunak. 19:30 Klipa. 19:30 Klipa. 20:00 Ur eta Lur. 20:30x2. 21:00 Jazmina. 21:30 Berbaire. 22:00 Astekoak. 22:15 Klipa. 22:30 Ilunpean. 23:00 Animalia. 23:30 Musi-kantoi. 00:00 Jazmina. 00:30 Emisio amaiera.



Karaoke Ikuskizuna

Eskoriatzako HUHEZIn

Aretxabaleta eta Eskoriatzako umeak

Urriaren 27 eta 28an

Urriaren 27an:


- 1.saioa: 17:00etan
- 2.saioa: 18:15ean
- 3.saioa: 19:30ean

Urriaren 28an:

- 1.saioa: 17:00etan
- 2.saioa: 18:15ean
- 3.saioa: 19:30ean

Zatoz zure herriko kantariak animatzera!

BABESLEA



gaztetxo
elkartea
club juvenil

ANTOLATZAILEA

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

LAGUNTZAILEAK



Urriak 26-31

MONIKA BELASTEGI

Zuon ekitaldien berri iragartzeko, bidali informazioa eguazteneko eguerdia baino lehen.
Posta elektronikoa: kultura@goiena.com
Tel.: 943 25 05 01/02 • Faxa: 943 25 05 13

Umeendako karaokea



ESKORIATZA

> Debagoiengan Kantari ikuskizunaren bi saio aste bukaeran

Eskoriatzara iritsiko da aste bukaeran Goienaren karaoke ikuskizuna. Zapatuan eta domekan izango dira saioak, Huheziko aretoan. Saioak izango dira 17:00etan, 18:15ean eta 19:30ean. Eskoriatza eta Aretxabaletako umeek hartuko dute parte.

Antzerkia



ESKORIATZA

> Umore gaua Virginia Imazekin Inker-nu tabernan

Bergarako aktore eta klownak *La mujer salvaje* izeneko antzezlanaren egingo du Inker-nu tabernan. Aitzorrotz kultura elkarteak antolatuta du Imazen emanaldia. Bihar, zapatua, izango da, 22:30ean.

Erakusketa



BERGARA

> 'Batetik-Bestera' delako udako argazkien erakusketa

Batetik-Bestera udako argazki lehiaketara aurkeztutako 23 lanak ikusgai daude gaztelekuko kuboan. Ikusleak izango dira irabazleak aukeratu dituztenak. Erakusketa urriaren 31ra arte egongo da zabalik, 18:30etik 20:00etara.

ditu Azkaratek Nahikari tabernako paretetan. Natura hilak eta paisaiak dira, batik bat, Ricardo Azkargortaren ikaslearen lanen ardatza.

Hil bukaerara arte egongo da ikusgai.

BERGARA

> 'Tratu txarren aztarnak' delako erakusketa

Avaim elkartearena da erakusketa eta Udaleko Ongizate sailak ekarri du. Tratu txarrak jasan dituzten umeek marrazkiek osatzen dute.

Azaroaren 7ra arte, kultura etxean.

Ikastaroak

ARRASATE

> Yoga ikastaroa Txindoki dorrean

Astelehen eta eguaztenetan izango dira eskolak, 09:30etik 11:00etara eta martitzen eta eguaztenetan, 19:15etik 20:45era. Egoitza dago Txindoki dorrean: Bañez Dokorea 1.

Izena emateko edo informazio gehiagorako: 635 71 06 16 (Maite) eta 943 78 31 26 (Ana).

DEBAGOIENA

> Keinu hizkuntza ikasteko eskolak antolatuta dituzte

Arangiz elkarteak antolatuta du ikastaroa, Bergarako Udaleko Ongizate Sailaren laguntzarekin. Ikastaroa urtarrean hasiko da eta gaiarekin interesatuta dauden debagoiendar guztiek har dezakete parte. Ikastaroa Bergaran izango da, Arangiz elkartearen egoitzan. Eskolak izango dira martitzenetan, 19:00-21:00 orduetartean. Sakontze maila ere emango dute. Ikasle kopurua mugatua da; hortaz, lehentasuna izango dute gorren senitarteko eta lagunek. Matrikulak 85 euro balio du.

Izena emateko jo Arangizara edo deitu 943 76 27 03 zenbakira.

ARETXABALETA

> Masaje txinatar ikastaroa Loramendiren eskutik

Azaroaren 5etik 26ra izango da, astelehenero, bi orduz -18:00-20:00. Maite Arana arrasatearrak emango ditu eskolak. Izena emateko deitu 943 77 09 70 zenbakira, loramendi@topagunea.com helbidea idatzi edo jo Loramendiren egoitzara.

Izenematea da hilaren 29ra arte.

ARETXABALETA

> Oraindik parte har daiteke Amuskaren ikastaroetan

Dagoeneko hasi dira eskolak, eta, jende askok izena eman arren, lekua geratzen da. Ehoziri eta bainika lanak, olio-margogintza, oihala eta larru gaineko margogintza eta

Musika

ESKORIATZA

> Los Cretinos eta Jim Dinamita y los Seductores taldeen saioa

Aitzorrotz kultura elkarteak antolatuta du Los Cretinos eta Jim Dinamita y los Seductores taldeen kontzertua.

Gaur, egubakoitza, 22:30ean, Inker-nu tabernan.

BERGARA

> Disko jartzaileen emanaldia Ziripot tabernan

Gaur, egubakoitza, Balza eta Papi arituko dira. Bihar, zapatua, Alkate Klorofila.

Biak ala biak, 23:00etan.

ARRASATE

> Izenero taldeek emanaldia egingo dute 3.60 aretoan

Roy Loneyk Señor No taldearekin batera jardungo du. Emanaldi berean parte hartuko dute On Benitok, Pettik eta Bandek. Emanaldia egin eta gero, Mansilla rock eta Juxe disko jartzaileek egingo dute saioa.

Bihar, zapatua, 22:30ean.

ARRASATE

> Bi taldek kontzertua egingo dute gaztetxean

Foxy Boxxyk eta talde gonbidatuak jardungo dute. Kontzertua doan izango da.

Bihar, zapatua, 22:30ean.

Antzerkia

ELGETA

> 'Bota patsa' delako ikuskizuna Txalo produkzioen eskutik

Iker Galartza eta Joseba Usabiaga aktoreek erakutsiko dute botatzen duten arabera-koak direla gizonezkoak.

Gaur, egubakoitza, 22:30ean, Espaloian.

ANTZUOLA

> Umeendako ipuin kontaketa saioa liburutegian

Maite Franko ipuin kontakelariak egingo du liburutegiko saioa. Frankok hainbat ipuin kontaketa dizkie herriko neska-mutukoiei.

Bihar, zapatua, 18:00etan.

Hitzaldiak

ELGETA

> Guraso elkartearen eta eskola kontseiluaren funtzioen gainean

Guraso elkartearen eta eskola kontseiluko funtzioak: zereginak eta ardurak delako hitzaldia egingo du Imanol Zubizarreta EHIGeko lehendakariak. Interesa duten herritar guztiak joan daitezke hitzaldira.

Hilaren 30ean, martitzena, 19:00etan, kultura etxean.

Erakusketak

OÑATI

> 'Batetik-Bestera' delako udako argazkien erakusketa

Batetik-Bestera udako argazki lehiaketara aurkeztutako 23 argazkiak ikusgai daude gaztelekuko kuboan. Ikusleak izango dira lanok epaituko dituztenak eta lehiaketako irabazleak aukeratu dituztenak. 200 eta 150 euroko sari bana emango dituzte.

Erakusketa urriaren 31ra arte egongo da zabalik, 18:30etik 20:00etara.

OÑATI

> Pintura lehiaketako lanak ikusgai kultura etxean

Urriaren 14an jokatutako margo lehiaketan parte hartu zuten 28 lagun lanak ikusgai jarri dituzte. Arratsaldean ikusi

ahal izango da erakusketa, 18:30-19:30 orduetartean.

Etzi, hilak 28, da azken eguna.

ARRASATE

> Fernando Martinezen margo erakusketa

Arrasatearrak 20tik gora natura hil erakutsiko ditu.

Astelehenera arte, hilak 29, Harresi aretoan.

BERGARA

> Esther Galartza artistaren zeramika erakusketa

Disonante armonia du izena Eibarko artistaren erakusketak. Formatu askotariko lanak -muralak, eskulturak...- aurkeztu ditu.

Azaroaren 28ra arte Aroztegi aretoan.

BERGARA

> Matias Azkarate margolariak erakusketa du ikusgai

15 margolan zintzilikatu

PROPOSAMENA

ARRASATE

> Federico Luppi Debagoiengan 'El guía del Hermitage' antzezlaneanekin

Federico Luppi Argentinako aktore ezaguna Arrasaten izango da aste bukaeran. Hain justu ere, *El guía del Hermitage* antzezlaneanekin etorri da Luppi Debagoienara. Antzezlanean kontatzen diitu Hermitage museoan gidari lanak egiten dituen gizonezkoaren nondik norakoak, alemaniarrek Leningrado inguratuta zuten garaian.

Etzi, domeka, 19:30ean, Amaia antzokian.



beste hainbat ikastaro ematen dituzte, hain zuzen ere.

Izena emateko kultura etxera joan besterik ez dago.

ARRASATE

> Osasun mentaleko boluntarioritzaren gaineko formazioa

Arrasateko Aita Menni ospitaleko Ahizpa Ospitalariaren boluntarioritza elkarteak eta San Juan de Dios ospitaleko boluntarioritza elkarteak, osasun mentaleko boluntarioritzaren gaineko formazio ikastaroa antolatu dute. Azaroan izango dira eskolak. Izena emateko epea da azaroaren 6ra arte. Horretarako jo Arrasateko Udaleko Prebentzio zerbitzura edo deitu 943 25 20 07 zenbakira.

BERGARA

> Ahozko narrazioaren gaineko tailerra Oihulari Klownekin

Taller permanente de narracion oral: la respiracion de los cuentos deitzen da tailer hori eta urriaren 28an hasi eta eskainera arte izango dira eskolak -hileko domeka batean-.

Izena emateko deitu 607 20 45 03 zenbakira.

BERGARA

> Taila ikastaroan izena emateko epea zabaldu dute

Bergarako Taila Eskola kultura elkarteak antolatu du ikastaroa. Eguaztenetan izango dira eskolak, 18:00-20:00 ordutegian, Zabalotegi dorrean duten egoitzan. Ikastaroa hasiko da azaroaren 7an eta iraungo du maiatzera arte.

Izena emateko jo Zabalotegi 11n duten egoitzara eguaztenetan, 18:00-20:00 ordutegian.

Ospakizunak

BERGARA

> Bazkaria egingo dute San Joxepe elkarteok

Kultura hamabostaldiari amaiera emateko bazkaria egingo dute San Joxepe elkarteok erretiratuek. Zabala jatetxean izango da, 14:30ean. Bazkariaren amaieran opariak banatuko dituzte.

Behar dutenendako autobusa antolatu dute joan-etorria egiteko. 14:00etan abiatuko da igerileku ondotik. Itzulera 19:00etan izango da.

Bestelakoak

ANTZUOLA

> Dantzari txikien eguna egingo dute


Debagoieneko dantza taldeetako dantzari txikienak batuko dira Antzuolan. Herrian barrena dantza egingo dute. Etzi, domeka.

ARRASATE

> Sormena lantzeko tailerra Txatxilipurdirekin

Larunblai egitasmoaren barruan antolatu du Txatxilipurdik tailerra.

Bihar, zapatua, 11:30etik 13:30era, Seber Altube plazan.



La huella ***

Zuzendaria: Kenneth Branagh.

Aktoreak: Michael Caine. Jude Law. AEB. 2007. 86 min.

1972. urtean zineman estreinatu zen *La huella*, Joseph L. Mankiewicz zuzendari handiak Anthony Shafferren antzerki obraren zinemarako egindako egokitzapena. Duela 25 urte, Shaffer izan zen filmaren gidoilaria eta orain, Kenneth Branagek egin duen bertsio berrian Harold Pinter -joan den urteko literatura nobel saria lortu zuen idazlea- dugu gidoilari. Bi filmek istorio bera kontatzen badute ere, badira elkarren artean desberdintasun eta aldaketa batzuk.

Mankiewiczen bertsioaren iraupena bi ordu eta laurden pasotxokoa zen, eta Branaghek egindakoak lau-ogeita hamar minutu besterik ez du. Beraz, argi dago erritmoan eta kontatzeko moduan aldaketa nabarmenak izan behar dituztela. Bi filmak klase sozial desberdinetako bi pertsonaien arteko duelu bat da. Eta duela joko maltzur batzuen bitartez gertatzen da. Agian, lehen bertsioak jokoan garpenerako denbora gehiago erabiltzen zuen, jokoak landuagoak ziren eta detaile gehiagorekin kontatuak zeuden, eta etxean zeuden panpinen eta Cole Porterren abestiak filmaren tonu jostalari eta bihurria areagotzeko balio zuten. Branaghek, lehen bertsioa oso eza-guna denez, ezin du ustekabekeriarekin hainbeste jokatu, eta dekoratua, planifikazioa eta gidoiaren azken zatiko biraketarekin, istorioari tonu hotzagoa, itxiagoa eta ankerragoa ematen dio.

Horrelako filmetan garrantzi nabarmena du aktoreen lanak, eta *La huella* berrian, Jude Lawk eta Michael Caineek oso ondo defendatzen dituzte euren pertsonaiak. Lawren interpretazioa histrionikoagoa da eta Caine, berriz, bere maisutasuna erakusten du interpretazioari, intentsitate-terika galdu barik, tonu neurtagoia ematen.

Antonio Zabala

Zinema

ARRASATE AMAIA ANTZOKIA

Ocean's thirteen
Egubakoitza: 22:00
Zapatua: 19:30.
Astelena: 20:30.
Locos por el surf
Zapatua: 17:00.

ELGETA ESPALDIA

Una noche en la opera
Eguaztena: 21:30.

OÑATI KULTURA ETXEA

Mataharis
Egubakoitza eta zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelena: 19:30.
Rebelion en la isla
Zapatua eta domeka: 17:00.

Cartas desde Iwo Jima
Eguena: 20:00.

EIBAR UNZAGA

El orfanato
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15
Astelena, martitzena eta eguaztena: 19:30, 22:15.

GASTEIZ GURIDI

El orfanato
17:30, 20:00, 22:30.
Supersalidos
17:30.

Mataharis
20:00, 22:30.

La joven Jane Austen
17:30, 22:30.

Fracture
20:00.

Invasion
17:30, 20:00, 22:30.

Siete mesas de billar frances
17:00, 22:30.

Promesas del Este
19:45.

Saw IV
17:00, 19:45, 22:30.

Stardust
17:00, 19:45, 22:30.

FLORIDA-GURIDI

El sueño de Casandra
17:30, 20:00, 22:30.

Tierra
17:00, 20:40, 22:30.

Querida Bamako
18:50.

55 días de invierno
17:30, 20:00, 22:30.

13 rosas
17:30, 20:00, 22:30.

Un funeral de muerte
Egubakoitza: 17:00, 22:30.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:45, 22:30

Sin destino
17:00, 19:45, 22:30.

La boda de Tuya
17:00, 19:45, 22:30.

YELMO CINEPLEX-GORBEIA

Saw
12:15, 16:30, 18:30, 20:30, 22:30, 00:30.

Invasion
12:15, 16:15, 18:15, 20:15, 22:15, 00:15.

Stardust
12:15, 17:00, 19:30, 22:00, 00:30.

Tierra
12:15, 16:00, 18:00, 20:00, 22:00, 00:00.

El sueño de Casandra
12:15, 15:30, 17:45, 20:00, 22:15, 00:30.

El hijo del mal
12:15, 16:35, 18:35, 20:35, 22:35, 00:35.

Los seis signos de la luz
12:15, 16:10, 18:10, 20:10, 22:10, 00:10.

Un plan brillante
12:15, 16:20, 18:20.

Fracture
18:00, 20:15, 22:30, 00:45.

Supersalidos
15:50, 18:05, 20:20, 22:35, 00:50.

Las 13 rosas
19:25, 21:55, 00:25.

La joven Jane Austen
22:40, 00:50.

El orfanato
12:15, 15:40, 17:50, 20:00, 22:10, 00:20.

Matrimonio compulsivo
12:15, 15:55, 18:10, 20:25.

Un plan brillante
12:15, 16:20, 18:20.

El asesino
20:40, 22:40, 00:40.

Promesas del Este
20:20, 22:20, 00:20.

Hairspray
12:15, 15:45.

Movida bajo el mar
12:15, 16:00, 17:40.

Locos por el surf
12:15.

Ratatouille
12:15, 16:30, 18:35.

Gauerdiko saioak, egubakoitza eta zapatua.
Eguerdiko saioak, domekan.
Astelena, ikuslearen eguna (jaieguna izan ezik).

ÁBACO BOULEVARD

Saw IV
16:00, 18:05, 20:15, 22:25, 00:45.

Invasion
16:10, 18:15, 20:25, 22:35, 01:00.

Fracture
17:15, 19:45, 22:15, 01:00.

Las 13 rosas
16:20, 19:20, 22:20, 01:00.

Supersalidos
17:00, 19:30, 22:00, 00:30.

Quiereme
20:00, 22:10.

El orfanato
16:05, 18:10, 20:20, 22:30, 00:45.

Nocturna
16:20, 18:10.

La extraña que hay en ti
20:00, 22:30, 01:00.

Hora punta 3
16:30, 18:30, 20:25, 22:25.

Sin reservas
15:50, 18:05, 20:20, 22:35.

Salir Pintado
16:15, 18:25, 20:30, 22:35.

La jungla 4.0
16:10, 19:10, 22:10, 00:45.

Los ojos del mal
16:15, 18:10.

Gauerdiko saioak, egubakoitza eta zapatua.
Eguena, ikuslearen eguna.

nire aukera



Alex Labaien

Bergarako Udal Euskaltegioko zuzendari eta irakaslea

Kanpora joatea dute gustuko

Sarritan kanpora joaten da Alex Labaien emazte Maite Toledorekin aste bukaera pasatzera: "Negu-udaberri partean eskiatzera joaten gara. Egubakoitz iluntzean ateratzen gara Bergaratik eta zapatu eta domeka ematen ditugu eskiatzen". Udaberri-uda partean, berriz, bizikletan ibiltzea dute gustuko. Horretarako, Landak eta Nafarroa atsegin dituzte.

Bergaran geratzen direnean -iaz ez zuten kanpora joateko aukera askorik izan, UNEDen ikasten ari direlako-, mendi buelta egitea edo bizikletan ibiltzea atsegin dute; eta domekan zinemara joatea.

Tartetxo bat libre duzun bakoitzeko zer da egiten duzun lehenengo gauza?

Kirola: mendi buelta bat edo bizikletan ibili.

Debagoienera datorren lagunari zer erakutsiko zenioke?

Elosumenditik Irukurutzetarako bidea egingo nuke harekin, eta bidean dauden trikuharriak erakutsiko nizkioke.

Gomendatu liburu bat eta film bat.

Ikasleei beti gomendatzen diegan liburua gomendatuko dut: Agota Kristofen *Kuaderno handia*. Eta filma, azken boladan ikusitakoetatik gehien gustatu zaidana: *La vida de los otros*.

Bidegorririk balego erabiliko zenuke? Korrika egiteko, oinez ibiltzeko ala bizikletaz?

Bai, oinez joateko erabiliko nuke. Bizikletaz joateko nahiago dut errepidea erabili.

Amitu esaldia: udazkena ederra da...

... zeinekin jun bada.

Datorren astean zubi luzea dago. Badaukazue planik?

Bada, kanpora joateko, behintzat, ez. UNEDen eskola dugu; hortaz, ezin kanpora joan.

Eskasa:* Balekoa:** Ona:*** Oso ona:**** Bikaina:*****

Ratatouille ****

AEB, 2007. Zuzendaria: Brad Bird. Marrazki bizidunak. 110 min.

Remy sagu mokofina da, eta ez da konformatzen zaborrontzietako jakiekin. Parisko jatetxe onenetako baten chef izan nahi du.

Amor y otros desastres

Erresuma Batua, 2006. Zuzendaria: Alek Keshishian. Aktoreak: Brittany Murphy, Matthew Rhys, Orlando Bloom, Gwyneth Paltrow. 90 min.

Bere lagun onenei bikotekidea aurkitzen iaioa da Emily Jackson *Jacks*. Baina besteei maitasun kontuetan laguntzen dien arren, ezagutuko ote du bere maitasun handia, agertzen denean?

Bratz: La Película

AEB, 2007. Zuzendaria: Sean McNamara. Aktoreak: Nathalia Ramos, Janel Parrish. 110 min.

Yasmin, Jade, Sasha eta Cloe betiko lagun minak dira. Institutuan hasten direnean, arazoak izango

dituzte, ikasgelako neska zaharrago batek ezarritako arauak ez betetzeagatik. Euren lagun taldea osatuko dute, hari aurre egiteko.

El ultimatum de Bourne ***

AEB, 2007. Zuzendaria: Paul Greengrass. Aktoreak: Matt Damon, Julia Stiles, Joan Allen. 111 min.

Bi kazetari desagertu egingo dira CIA ikertzen ari direnean. Jason Bourne ikerketa horrekin jarraituko du, iragana argitu nahian eta erakundearekin zorrak kitatu nahian jarraituko du Bourne ikerketa-ekin.

Locos por el surf ***

AEB, 2007. Zuzendaria: Chris Buck. Animazioko filma. 85 min.

Pinguino batek lehiaketa ikusgarri eta arriskutsu batean parte hartu behar du. Pinguinoen Munduko Surf Txapelketan, hain justu ere. Cody Maverick pinguino gaztetxoarendako lehen txapelketa profesionala izango da. Nola jardungo du txapelketan? Zer ekarriko diotxapelketan parte hartzeak?

Caotica Ana ***

Espainia 2007. Zuzendaria: Julio Medem. Manuela Velles, Bebe, Asier Newman. 120 min.

An 18. urteko margolaria, artea ikastera joango da Madrilera. Pertsona baikor eta alai da, baina hipnosi baten ondoren, bizitza aldatuko zaio. Ezagutzen ez dituen beste emakume batzuk agertuko zaizkio; guztiak 22 urte-ekin hil ziren, eta Anaren inkontzientean daude. Erantzun bila hasiko da.

La Jungla 4.0

AEB, 2007. Zuzendaria: Len Wiseman. Aktoreak: Bruce Willis, Timothy Olyphant, Justin Long. 129 min.

Uztailaren 4a, Ameriketako Estatu Batuetan. Ziber erasotzaile batzuek AEBetako sistema informatikoa suntsitu eta blokeatuko dute, kaosa sorraraziz. Thomas Gabriel gaiztoak plan perfektua duela uste du, baina John McClane polizia beteranoak gauzak zail jarriko dizkio.

Ehungintza ikusgarria da

ERAKUSKETA Bergarako ehungintza industriaren gaineko erakusketa dago bihar, zapatua, bitartean

IKUS-ENTZUNEZKOA 'Bergarako urdina' DVDa dago erakusketarekin lotuta; Aranzadiko ikasleek egin dute

HISTORIA Ehungintzarekin lotuta, Bergarako historiako zati hori azaltzen da, datu eta bitxikeria askorekin

LEIRE KORTABARRIA > BERGARA
Ehungintza izan da urte askoan Bergarako ekonomiaren motor, eta orain, herriaren historia gogorarazteko, ehungintzaren gaineko erakusketa dago Ibargarai kaleko Caja Navarraren erakusketa aretoan. Erakusketa hori Aranzadi ikastolako batxilergoko Giza Zientzietako 1. eta 2. mailako ikasleek irakasleen laguntzarekin egindako lanaren emaitza da; izan ere, DVDa ere atera dute, *Bergarako urdina*.

Erakusketa bisitatzeko aukera dago gaur, egubakoitza, 18:00etatik 20:00etara, eta bihar, zapatua, goizean barrena.

HIRU ZATITAN BANATUTA

"Erakusketa erabat didaktikoa da, eta hiru artisautza mota erakusten ditu: batetik, lihoa; bestetik, artilea eta zeta; eta, azkenik, kotoia", azaltzen du Mikel Alberdi erakusketako arduradunetako batek.

Hala, lihoa lantzeko antzina-kro nesnak daude, Oiartzungo Estanis Urdanpilletak utzitako-

ak; badaude 100-150 urte dituztenak ere. Artilearen eta zetaren saillean, azaltzen da zelan bakoitza animalia baten produktua den; DVDan, horren gainean, La Palmako uhartean orain 500 urteko teknikak zelan erabiltzen dituzten jasotzen da. Kotoia da erakusketako motibo nagusia, maila industrialean landu zelako. "Bergaran zeuden lantegiak eta langile kopurua azaltzen da, eta orduko bizimodua, emakumearen papera, bereziki", dio Alberdik.

HISTORIA PIXKA BAT

DVDan, Bergararen historia azaltzen da: industria horren goraldia eta gainbehera, 1846az geroztik; eta 70eko hamarkadan bake-ro-ehunaren alde egin zenekoa. Bitxikerietarako lekua ere bada: bergararrei mahoneroak zergatik esaten dieten azaltzen da.

Tavex ehungintza enpresak Gabirian izango ditu laster bulegoak, eta museoa ere izango du; oraingo erakusketa hara eramateko aukera aztertzen dabilta arduradunak.



ERAKUSKETAN Estanis Urdanpilleta, erakusketaren laguntzailea, ilobatxoekin.

LEIRE KORTABARRIA

ahobero

"Ez naiz arrazista; gainera, bat mozkortuta dagoenean, ez daki zer egiten dabilen"

Sergi M.M. > Ekuadortar bati erasotzeagatik epaituko dute

Eskerrak argitu digun beste arraza batekoari irain arrazistak esatea eta gero jotzea ez dela arrazakeria. Bideoan bere buruaren jabe ematen zuen, baina bestela ere, beti esan izan da inor mozkor dagoenean erakusten duela benetan zelakoa den, ezta?

iturri onetik

Paint-ballean ibiltzeko aukera izango da, taldeka, Arrasateko sail baten

Arrasaten, Bedoña auzoan, zehazki, paint-ballean ibiltzeko lursaila zabalduko dute. Bihar, zapatua, zabalduko dute. Korua delako lur-eremuan egongo da.

Bertan paint-ballean ibiltzeko baldintza bakarra da zortzi laguneko taldea osatzea. Arrasateko kaleetan kartelak ipintzen ibili dira arduradunak, eta han agertzen dira deitu beharreko telefonoak.

piperrautsa

Mikel Irizar > www.goiena.net/blogak/piperrautsa

Valentzia eta gu

Lagunen bisitara joanda izan naiz Valentzian eta hizkuntza kontuak ibili ditugu tartean. Arazo handiak dituzte hizkuntza normaltzeko. Batzuk aspaldikoak: etorkin gaztelar eta aragoarrek ia elebakar bihurtutako zonalde handiak, edota gizartearen ekimen ahula hizkuntza gaitararako. Arazo berri eta bihurriagoak, valentziar aginteak berak eragin ditu: valentzieraren bereizkeria katalanarekiko, hezkuntzan valentziera saihesteko erraztasunak, erabilera diglosikoa hedabideetan, gaztelania etengabe hobesteko joera...

Gu indartsuago ikusten gaituzte, hezkuntzan eta lan arloan bereziki. Orain, baita toki hedabideetan ere: GOIENKARIA eraman nion Ferran Suay-ri bere elkarrizketarekin, eta aho zabalik entzun zituzten emandako datuak.

ai, ene!



Michael Jacksonen aurpegiaren kareta

Halloweenerako propio egin dute. Zeinek asmatuko zuen orain 25 urte *Thriller* bideoan baino okerrago egongo zela *Jacko*?

<http://tinyurl.com/yvugbo>

Bisita ezazu Gipuzkoako sukalde, armairu eta bainugelak erakusketa handiena

Armeko
Sukalde Integrala

31 sukalde baino gehiago ikusgai
600 m2 baino gehiagoko erakusketa
Europako lehen markak

KSM talde laneran indarra

K S M GROUP
VENTANAS AISLANTES
MUEBLES COCINA - BAÑO

Orduategia: 10 - 13 eta 16 - 19:30 . Larunbatak: 10 - 13

25 urte
Zurekin

Fabrikazio eta muntaia profesionala
Aurrekontuak eta aholkularitza konpromisorik gabe

YOSU THERMIK
LEIHO ISOLATZAILEAK

Merkatuko prezio hoberenak Kataide Poligonoa 4 - ARRASATE - 943 770157 Kalitate-prezio erlazio paregabea